

ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2018

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



www.ararteko.eus



URTEKO TXOSTENAK

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2018

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2018. Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2018. Laburpena](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa eta inprimiketa: Eps-Comalpa-Irudi, UTE

ISSN-e 2255-4947



Aurkibidea

AURKEZPENA	11
I. ATALA	
Araudi-testuingurua	15
II. ATALA	
Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak	23
1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: gerturatze kuantitatiboa	23
2. Arriskuan dauden eskubideak	24
2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea	24
2.2. Hezkuntzarako eskubidea	27
2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea	32
2.4. Familia babeslea izateko eskubidea	40
2.5. Osasunerako eskubidea	44
2.6. Adingabe arau-hausleen eskubideak	46
2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea	47
2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea	48
III. ATALA	
Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea:	
Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua	55
IV. ATALA	
Haurren eskubideak sustatzea:	
gizartearekiko harremanak eta erakundeen lankidetzak	59
1. Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC)	59
2. Estatuko beste defentsa-bulego batzuekiko harremana	60
3. Gizarte-eragileekiko lankidetzak	60
4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak	61
5. Ekitaldietan parte-hartzea	61
6. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartzea ospatzea	62
V. ATALA	
Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea	65

AURKEZPENA

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2018. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Gogorarazi nahi dugu, aurtien ere, erantsitako txostenaren formatua daukala, hau da, osotasun integratu baten (Arartekoak Legebiltzarrentzako egin duen 2018. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek neska-mutilen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratuta dago, eta seigarren kapituluan eranskinak eta arloko araudia agertzen dira. Lehenengoan, haur eta nerabeen eskubideen gaine-

ko araudi-testuingurua azaltzen da, horretan jarduten baitu bulegoak.

II. kapituluan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, ikusitako arazo nagusiak aipatzen dira, arriskuan ikusitako eskubideen inguruan bilduta. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak erreparatzen dira.

III. kapituluan zehazki azaltzen da zer-nolako jarduera burutu duen haur eta nerabeentzako gure partaidetza-organoak: Haurren eta Nerabeen Kontseiluak.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduera bildu ditu.

Azkenik, V. kapituluak ixten du agiria. Bertan, haurren eta nerabeen eskubideen egoeraren balorazioa egiten da, laburpen gisa.



I

atala



Araudi-testuingurua

◀ Aurrekoa ikusi

I. Atala

ARAUDI-TESTUINGURUA

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2018. urtean egin duen jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu da, eta gizarte- eta arau-testuinguru jakin batean. Testuinguru horri erantzuten saiatzen da, baina testuinguru horrek mugatu eta baldintzatu egiten du hori egiteko modu zehatza.

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

1990. urtean [Espainiak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena \(HEH\)](#) berretsi zuen, 1989ko azaroaren 20an [Nazio Batuen Erakundearen \(NBE\)](#) batzarrak hartu zuena. HEH modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da; aldi berean, estatuak errespetatzeko, bermatzeko eta beteazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen dituena.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundearen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena. 6. artikulutik aurrera, lau eskubide multzo handi zerrendatu dira: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera izateko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzekoa; **Sustapena**, alegia, erabat garatzeko eta osasun eta hezkuntza maila gorenak izateko eskubidea; **Babesa**, hots, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **Parte-hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nork bere kabuz adierazpenak egiteko eta banaka zein taldean hitza izateko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak (hautazkoak) baziren ere, Espainiak ere sinatu eta berretsi ditu Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko bi protokoloak. Protokolo horietan babes kontuak aipatzen dira batez ere: [HEHren Hautazko Protokoloa](#), [gatazka arma-](#)

[tuetan haurren parte hartzeari buruzkoa](#); [HEHren Hautazko Protokoloa](#), [haurren salmenta](#), [haurren prostituzioa eta pornografian haurrak erabiltzearen gainekoa](#); eta [HEHren III. Hautazko Protokoloa](#), [komunikazio prozedura baten ingurukoa](#). Azken protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariak salaketa jarri ahal izan diezaizoten beren eskubideak babesten [espezializatutako](#) nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratuak izan direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla.

Espainiako Estatuan Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotzen diren eskubideen betetze-mailaren jarraipena egiteko prozesua burutu du Haurren Eskubideen Batzordeak 2018. urtean. Prozesua 2016. urtean hasi zen, eta aurreko urteetako Haurren eta Nerabeen Bulegoaren txostenetan prozesuaren gertaeren eta erakunde honek han izan duen partaidetzaren berri eman da.

[Espainiako bosgarren eta seigarren aldizkako txosten konbinatuak](#) zorrozki aztertu eta egiaztatuta, eta xede horretarako Espainiako Gobernuak zenbait Ministerioz osatutako Batzordea aurkeztuta, Haurren Eskubideen batzordeak Espainiari egindako [Azken oharrak](#) onartu zituen 2018ko otsailaren 2ko 2282. bilkuran. Batzordea pozik agertu zen 2013. urtean Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa berrestearrekin, eta haur eta nerabeen babes-sistema aldatzen duten [Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa](#) eta [Uztailaren 28ko 26/2015 Legea](#) ezartzearekin. Horrez gain, aurrerapen gisa, azken lege horrek, lege-aurreproiektuetan eta arautegien proiektuetan haur eta nerabeengan duen eragina ebaluatzeko, edo Diputatuen Kongresuan Haur eta Nerabeen Batzordea sortzeko betebeharra barne hartzen duela adierazten da. Horrez gain, positibotzat jotzen du Gobernuak [Garapen Iraunkorrek 2030 Agendarekin](#) duen konpromisoa eta [Goi-mailako Forum Politikoari](#) borondatez atxikitzea, 2018an helburu horiek berrikusteko.

Gomendioen kapituluan, Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordea kezkatuta agertzen da, haurren arloan egindako inbertsio-maila ez delako egokia izan 2008an hasi zen ekonomia eta gizarte krisi larriaren eragin negatiboa orekatzeko. Horren ondorioz, pobrezia eta gizarte desberdintasuna handitu egin dira. Horrela, nabarmendu egiten du inbertsio publikoan egindako murrizketek hezkuntza, osasun, etxebi-

zitza eta gizarte-babesaren arloan izan duten eragina, batik bat baliabide eskaseko haur eta nerabeengan eragin dutenak. Hori horrela, Batzordeak premiazko neurriak hartzea eskatzen du, autonomia-erkidego guztietan, haurren arloan dagoen inbertsio-beharra azter dadin sustatzeko. Azken batean, baliabideak berriro banatzea da helburua, haur eta nerabeen eskubideak betetzeko, hezkuntzan egindako inbertsioa handituz eta zerbitzu publikoak hornituz.

Batzordeak haurrentzako aurrekontu publikoak egitea ere gomendatzen du, berariazko jarraipen eta ebaluazio adierazleak barne hartzen dituztenak; baita gardentasuna hobetzea ere, baliabide horiek erabiltzean. Horrela, haurrak eta nerabeak barne hartzen dituen eztabaida publiko bat sortuko da, eta bertako eta eskualdeko agintariek kontuak egiteko mekanismoak sortu beharko dituzte. Bestalde, berariazko finantzazio-lerroak eskatzen ditu pobrezia egoeran edo gizartetik baztertuta dauden haurrentzat. Eraginkorrak izan behar dute, baita krisi ekonomikoko egoeran, hondamendu naturaletan edo bestelako larrialdietan.

Kezkatzen duen beste esparru bat da aurrekontu-azterketarik ez egotea, ez nazio mailan, ez autonomia-erkidegoetan, haurrentzako baliabideak zuzen identifikatzeko, jarraitzeko eta babesteko. Batzordeak berretsi egin du aurretiko gomendioa, hots, koordinazio-sistemak indartzea administrazio zentralaren eta autonomia-erkidegoen artean, haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko eta babesteko politikak txerta ditzaten. Horrela, giza baliabide, baliabide tekniko eta finantzario egokiak bideratzen direla ziurtatuko da.

Hauk dira hartu gainditzeko dauden beste arlo batzuk: haur eta nerabeen bazterkeria prebenitzeko eta aurka egiteko neurriak indartzea; aurrerapen falta haurren kontrako indarkeriari buruzko lege integral bat ezartzen; erakundeek babesgabe dagoen haur eta nerabe kopurua murriztea, familiei laguntza handiagoa emanez; pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden haur eta nerabeen adierazleak murriztea; autonomia-erkidegoen arteko koordinazioa hobetzea, hezkuntzarako eskubidea modu berean bermatzen dela ziurtatzeko; nazioarteko babesa behar duten haur eta nerabeei asilo prozeduretan sartzen laguntzea eta laguntzarik ez duten atzerriko adingabeen babesa bermatzea.

Haurren Eskubideen Batzordeak sustatzen duen beste ekimen bat, jakina denez, ohar orokorrak ematea da, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa ezarri behar den hainbat esparrutan, interpretazio egokia egiteko orientabideak eskaintze aldera. Jarduera-esparru horretan, 2018. urtean 2007ko [10. ohar orokorra](#), haurrek adingabeen justizian duten eskubideei buruzkoa. Prozesu hori garapen-fasean dago oraindik.

Nazioartean, gogoan izan behar da badaudela Espainiak hainbat hitzarmen berretsi dituela –hainbat nazioarteko erakundeek sustatu dituzte itun horiek, hala nola [Nazioarteko Lan Erakundeak](#), [Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren gaineko Konferentziak](#), besteak beste-, adingabeei dagozkien sektore-gaietan: haurren lana, adingabeak osetea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar.

Europar Batasunaren esparruan ere berariaz haurren eskubideak aipatzen dituzten arauak daude. Arau horien artean nabarmenduko dugu [Europako Parlamentuaren 1992ko uztailearen 8ko A-3.0172/92 Ebazpena](#), [Haurren Eskubidearen Europako Gutuna onartzen duena](#). Ebazpen horrek hauek proposatzen ditu: haurren eskubideen defentsariaren figura, estatu-mailan nahiz Europa mailan. Defentsari horrek eskaerak eta kexak jaso beharko ditu, hurrei babesa ematen dieten legeak aplikatzen direla zaindu, eta botere publikoen jarduna haurren eskubideen alde bideratu. Halaber, haurren eskubideen erkidegoko gutun bat egin beharko litzateke, proposatzen den gutxieneko edukia duena.

Halaber, aipatzekoa da [Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna \(Lisboako Itunaren zatia\)](#). Gutun horrek, adingabeei dagokienez, haurrak entzunak izateko eskubidea, haurren interes gorena kontuan hartzea eta gurasoekin harremana izateko eskubidea aldarrikatzen ditu. Garapenean, bi gertaera gogoangarri: lehenbizikoa, «[Haurren Eskubideen gaineko Europar Batasuneko Estrategiarantz](#)» izeneko jakinarazpena, Europako Batzordearena (2006), zeinak hainbat egitura ezarri baititu EBko erakundeek haurren eskubideei lotutako arazoei aurre egiteko duten ahalmena indartzeko, eta egintzetan oinarritutako politiken zimen-duak finkatu baititu, interesdunekiko elkarrekintza arintzeko asmoz; eta, bigarrena, [Haurren Eskubideen Aldeko EBko Agenda](#) (2011), zeinak batez ere eremu jakin batzuetan jartzen duen arreta, EBk eremu horietan benetako balio gehigarria ekar dezakeelako, adibidez, haurrentzako justizia eskuragarri egiteko arloan, egoera zaurgarrietan dauden umeak babestuz eta Europar Batasunaren barruan zein kanpoan haurrengan eragina daukan indarkeriaren kontra borrokatuz.

Europako mailan, estrategiarik berriena [Haurren eskubideetarako Europako Kontseiluaren estrategia \(2016-2021\)](#) da, Monakon, 2006an abian jarri zen Programa honetan oinarritu zena: “[Haurrekin eta haurrentzako Europa eraikitzea](#)”. Estrategia hori, Estatu kideekin, gizarte zibilarekin, haurrak aldeztan dituzten erakundeekin, nazioarteko beste erakunde batzuekin eta haur eta nerabeekin egindako kontsulta handiaren emaitza da. Datozen urteetan haurren eskubideetarako premiazkoenak diren erronken ikuspegi orokorra jasotzen du. Ardatz hauek kontuan hartuz egiten dira:

1. Pobrezia, ekitaterik eza eta bazterkeria.
2. Indarkeria.
3. Helduentzat eginda dagoen sistema judiziala.
4. Familiek eta gurasoek aurre egiten dieten erronkak.
5. Arrazismoa, gorroto eta erradikalizazio hitzaldiak.
6. Mundu digitalean haztea.
7. Migrazioa.
8. Aukera-berdintasuna haur eta nerabe guztientzat.

Arazo horiek aurre egiteko, lehentasunezko bost jarduera-arlo identifikatzen ditu:

1. Aukera berdintasuna.
2. Parte-hartzea.
3. Indarkeriarik gabeko bizitza.
4. Haurrekin lagunkoia den justizia.
5. Haurren eskubideak mundu digitalean.

Arlo horiek beste ekintza batzuen osagarri gisa garatzeko, dokumentu interesgarriak editatu dira Estatu kideei orientatzeko eta aholkatzeko jarraibideekin, sistema publikoak haur eta nerabeen eskubide, interes eta beharretara egokitu ditzaten. Horren kasuak ditugu: haur eta nerabeekin "lagunkoia" diren [gizarte-zerbitzu](#) batzuen, [osasun](#) sistema baten edo [justizia](#) baten gomendioa; [inguru behartsuetako haurrek gizarte-eskubideetara duten sarbideari](#) buruzko gomendioa, adierazleen proposamena [haurren partaidetza ebaluatzeko](#), [Giza eskubideetako hezkuntzari buruzko gutuna](#) edo berriki ezarritako [gidalerroak](#), [haurrek ingurune digitalean duten eskubideak errespetatzeko, babesteko eta gauzatzeko](#).

Europa mailako erreferentziekin amaitzeko, aipatu behar dugu [Gizarte eskubideen Europako Pilarea](#), Europako Parlamentuak, Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak 2017ko azaroaren 17an Göteborgen bidezko enpleguaren eta hazkundearen alde egindako gizarte Biltzarrean elkarrekin ezarritakoa. Gizarte-eskubideen arautze eta aplikatze hobea bermatzeko helburuarekin, eskubideak hiru arlotan proposatzen ditu: aukera-berdintasuna eta lan-merkatutzatzea, bidezko lan-baldintzak eta gizarte babesa eta gizarteratzea. Azken horretan, haurren laguntza barne hartzen da, haur hezkuntza eta laguntza eskuragarria eta kalitate onekoa gozatzeko eskubidea eta pobreziaren aurka babesteko eskubidea nabarmentzen dituena, aukera-berdintasuna sustatzeko diren berriazko neurriekin.

Haur eta nerabeen eskubideei buruzko **Espainiako legediarekin** zerikusia duen gertaerarik garrantzitsuena da abenduaren 28ko Ministroen Kontseiluan onartu zuten [Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua](#). Aurreproiektuak 11 lege aldatzen ditu eta indarkeriaren oso kontzeptu zabala ezartzen du, edozein kalte edo abusu fisiko, psikologiko edo emozional barne hartzen dituena, eraso eta sexu abusuak, zigor fisikoak, arduragabekeria edo zabarkeriazko tratua barne. Izaera integrala kontuan hartuz, arauak Haur eta Nerabeen artean Indarkeria Desagerrarazteko Estrategia egitea proposatzen du, eta kontzientziazio, prebentzio, detekzio eta esku-hartze neurriak barne hartzen ditu zenbait arlotan. Horien artean, hauek nabarmentzen dira: osasuna, hezkuntza, epaiak, segurtasun indar eta kidegoak, edo teknologia berriak.

Estatu mailan, nabarmentzekoa da Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak (parlamentuko talde guztien laguntzarekin) [Haurren aldeko estatu-itun bati buruzko legez besteko](#)

[proposamena](#) onartu zuela abenduaren 19an. Proposamen hori azaroan erregistratu zuten, eta [Haur Erakundeen Plataformak](#) eta haren kideak diren erakundeek haurren inbertsioen, haur ahulenen hezkuntzarekiko eta babes-sistema indartzeko konpromisoaren arloan egindako eskaerak jasotzen ditu.

Haurren aldeko estatu-itun hau urrats garrantzitsua da haur eta nerabeen eskubideen babesean eta defentsan, izan ere, aho bateko konpromisoa erakusteaz gain, herrialdeko apustu gisa ere egiten da. Horrek, bere garapena bermatu behar luke, edozein dela gobernatzen duen alderdia, edo gertatzen diren aldaketa ekonomikoak. Hala ere, erantzun nahi diren egoeretan benetako eragina duten politika publikoetan dagoen konpromisoa gauzatzeko falta da oraindik.

Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak, ahal legegilea duenak, adingabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren arloan **autonomiako legeria** garatu zuen [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko onartu zuenean. Lege horren bigarren Tituluan, "Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera" izenekoan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean sortu ziren eskubideak zerrendatzen dira. Legearen gainerako ataletan babesik gabeko egoeran dauden haurren babesa arautzen da. Beraz, araudi sektorialari buruz hitz egitean berriz ere aipatu dugu legea.

Iaz dagoeneko adierazi zen moduan, Eusko Jaurilaritzak 2017ko otsailean onartu zuen XI. Legealdiko Legegintza Programan, 3/2005 Legearen aldaketa 2019ko lehen lauhilekoan Gobernu Kontseilura bidaltzea aurreikusita dago. Horrela, haren edukia 2015ean onartutako estatu-arautegira egokituko litzateke ([26/2015 Legea, uztailaren 28koa](#), [haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko](#), eta [8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa](#), [haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko](#)).

Uztailaren 28ko 26/2015 Legeak *adingabearen babes juridikoari buruzko [urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa](#)* (22 quinques artikuluan) sartzen duen elementuetako bat da lege-aurreproiektu eta arautegien proiektuekin batera aurkeztu behar diren memorietan [arautegiak haur eta nerabeengan duen eraginaren](#) azterketa bat jaso behar dela eskatzen duela. 2015ean onartu arren, txosten hauek ez dira egiten, eta Haurren Eskubideen Batzordeak ere eskatzen ditu, aurretik aipatu ditugun Espainiari egindako Azken oharretan (9d paragrafoa).

Gai horri buruz esan behar dugu, Finlandiako Haurren Defentsa Bulegoak 2018. urtean egindako azterlanean oinarrituz, non ENOCen (Haurren Defentsa Bulegoen Europako Sarea) dauden hamabi herrialdek eta autonomia-erkidegok parte hartu duten, Euskadi barne, Galesek bakarrik araututa dituela hurrenganako eragin-txostenak. Gainerakoan artean, batzuek ez dute aitortuta beren legedian; beste batzuek, legeak eskatzen baditu ere, ez dira aplikatzen.

Dena den, dagoeneko legezko arau bat dago estatu mailan, eta horren arabera, haur eta nerabeen interes gorena na-

hitaez kontuan hartu behar dute eragiten diren politika eta neurri guztietan. Arartekok 2018. urtearen hasieran interesa agertu zuen, eta [Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren](#) aurrean, haurren politiketan arloan eskumena duen organo gisa, xede horretarako hartutako ekimenen inguruan, xedapen orokorra egiteko prozesuan erabil zitzaten, eta ahal bazen, Eusko Jaurlaritzaren gainerako plangintza-tresna guztietan eta arauak edo planak haur eta nerabeengan izan lezakeen eraginari buruzko txosten guztietan ere bai.

Sailak jakinarazi du, [Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea](#) aldatzen duen Lege Aurreproiektua egiteko prozeduraren barruan, eta Eusko Jaurlaritzaren sailei zabalduetako aurreproiektuaren testurako alegazioen fasean, legez eskatutako ebaluazio hori kontuan hartu behar zutela adierazi zitzaioela [Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren](#) Lege Garapen eta Kontrolerako Zuzendaritzari (prozedura hau izapidetzen duen organoari). Sailak uste zuen lege-aurreproiektuaren artikuluen artean 26/2015 Legean ezarritako arau-xedapenak sartzeari egokiena zela administrazio publikoek lege-ekimena eta arauzko ahalmena erabiltzean eta garatzean eskatutako behar bezalako segurtasun juridikoa indartzeko. Ondorio hori ateratzen zuen honako hauek kontuan hartuz: alde batetik, sortzen den legeak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren barruan izapidetuko diren arautegi-prozedura guztietan eragingo duela; bestetik, han dagoen erregulazioak ekartzen dituen printzipioak lurralde historikoetako foru aldundietan aplikatuko direla, xedapen orokorrak egitean.

Era berean, Sailak adierazi du familian dagoen eragina aztertzen duen prozeduran nahitaez txostenak sartu behar direla, 26/2015 Legean ere jasotzen direlako (azken hamabosgarren xedapena, hirugarren puntua).

Arartekok positibotzat jotzen du eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bere proposamenean azalduetako argudioekin bat dator. Hala ere, prozedura honek bere denbora beharko duenez, formula iragankorrak egitea komenigarria izango litzateke, esaterako, Gobernu Batzordeak erabaki bat hartzea, eta horren bidez, sail guztiek aipatutako txostena egiteko konpromisoa hartzea une horretatik aurrera.

Aurrekoaz gain, eta xedapen orokorrei buruzko legezko testuan jasotzen den aurreikuspenaren osagarri gisa, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ezinbestekotzat jotzen du haur eta nerabeen arloko sektoreko legedian, aurreko izapideaz gain, berariazko aurreikuspen bat ere jasotzea Eusko Jaurlaritzaren betebeharren inguruan, hots, lege edo arau ekimenak haur eta nerabeengan izango lukeen eraginaren azterketa edo ebaluazioa egitean jarraitu behar zaizkien jarraibideei buruzko arauak edo zuzentarauak onartzea, eta hala badagokio, bere edukia edo xedea kontuan hartuz, arau eraginaren azterketa hori zer xedapen ez duten egin behar ezartzea. Jarraibide horiek azterketen txostenen eduki eta egitura bera bermatuko lituzkete, ebaluatu edo baloratu behar diren berariazko alderdiak zehaztuz. Horrela, lege edo arau ekimenak zer eragin duen zehaztu eta

kuantifikatu ahalko da, eta horrekin lotuta, haur eta nerabeengan aurrekontu-gastuan duen eragin ekonomikoan, Haurren Eskubideen Batzordearen [19. ohar orokorraren](#) (2016) edukiarekin bat: "aurrekontu publikoak egiteari buruz, haurren eskubideak eraginkorrak izan daitezten". 2019ko lehen seihilekorako aurreikusita dagoenez [Haurrak eta Nerabeak Artatzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen](#) aldaketa, jadanik esan denez, ekimen horren aukera nabarmendu behar da.

Haur eta nerabeengan duen eraginari buruzko txostenak xedapen orokorrak egiteko prozeduran sartzeari esker, [Lege besteko 52/2018 proposamenari](#) erantzuna eman ahalko zaio. Proposamen hori, [administrazio publikoaren gizarte politika eta jarduera guztietan haurren interes gorenaren printzipioari](#) buruzkoa da, eta Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 2018ko maiatzean.

Azkenik, kapitulu honetan aipatu behar da 2018. urtean [Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako "Haurtzaroan inbertitzea"](#) izeneko plana onartu zutela. Hain zuzen ere, Euskadin, aipatutako aldirako dagoen haurren politiken tresna nagusia da. Familia-politiken barruan egin bada ere, eta zentzu horretan, hark eta beste erakunde batzuek haurren politiken berariazko gidari plan bat izateko egindako errekamazioari osorik erantzuten ez badio ere, onartu behar da azalduetako diagnostikoa, eskubideen erreferentziazko esparrua, ikuspegia eta jardura printzipioak, Arartekok haur eta nerabeentzako plan baterako egokitzen jo dituenak direla, eta berariazko ardatz bat egoteak, kualitatiboki eta kuantitatiboki interesgarriak diren xedeekin, proposamena positibotzat hartzea eramaten duela. Bestalde, haur eta nerabeen bizitzako zenbait esparrutan jarduerak barne hartzen dituenek, kapitulu honetan aurkeztea erabaki genuela, hango alderdi jakin batzuk geroagoko kapituluetan nabarmenduko direla kontuan hartu gabe, sektoreko gaiak buruz ari garelako.

Plana, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Eudelek 2018ko urtarrilean onartutako [Familia eta haurtzaroaren aldeko Euskal Itunaren](#) gauzatzetako bat da. Bultzatzaileek diotenez, komenigarritzat jo du familia-politiken plangintza haur eta nerabeen politiken plangintzara zabaltzea, bi taldeak Euskal Ituneko Familiek eta Haurrek identifikatutako lehentasunen erdian daudelako. Zentzu horretan, planaren abiapuntuko ideia da haurren eta familien politikak elkar osatzen direla -haur eta nerabe gehienak familietan bizi direlako-, beraz, horrek ez du eragozten haurrak eta nerabeak eskubideen banakako titulartzat hartzea, familia-talde jakin batekoak badira ere. Era berean, Planak Ituneko jasotzen diren helburuei erreparatzen die, haurren desberdintasunera, pobreziaaren belaunaldi arteko berregitera eta beren familia-proiektuak sortzeko adinean dauden pertsonen ugalketa itzaropenak egitera nagusiki mugatzen direnak.

Familiei eta haurrei laguntzeko belaunaldi arteko IV. Plana, oinarritzen den Ituna bezala, gizarte-inbertsioaren paradigma kokatzen da. Horrek, gizarte epe luzera bateratzeko funtsezko eragiletzat jotzen du haurren ongizatea eta garapen kognitibo eta emozional egokia. Bat dator, zentzu

horretan, Europako Batzordearen 2013ko gomendio honekin: [Hautzarroan inbertitzea](#), [desabantailen zikloa apurtzea](#), Arartekok hainbat alditan adierazi duena haurren pobrezia-eraketako politikak egiteko erreferente egoki gisa. Gomendioak adierazten du Europar Batasuneko herrialde gehienetan haurrek biztanle orokorrek baino pobrezia edo gizartetik baztertzeko arrisku handiagoa dutela, eta pobrezian edo gizartetik baztertuta hazten diren haurrek besteek baino aukera gutxiago dituztela eskola-errendimendu onaz izateko, osasun onez gozatzeko eta beren bizitzako geroagoko faseetan gaitasun osoaz baliatzeko. Hortik abiatuta, Batzordeak oinarritzko hiru ideia azpimarratzen ditu Europako gizarte-babeseko ereduak berriro egituratzeko:

- Belaunaldien artean desabantailak transmititu daitezela saihestea ezinbesteko inbertsioa da Europaren etorkizunerako, eta epe luzerako onurak ekarriko dizkie bai haurrei, bai ekonomiari, bai gizarteari, oro har hartuta.
- Esku-hartze goiztiarra eta prebentzioa funtsezkoak dira politika eraginkorragoak egiteko.
- Bizitzaren lehen urteetako desabantailak zuzentzea modu garrantzitsua da pobrezia eta gizarte-bazterkeriari oro har aurre egiteko esfortzua handiagotzeko.

Gogoeta horietatik abiatuz, Gomendioak hiru oinarri estratejiko ezartzen ditu politikak garatzeko:

- Familiek eta haurrek baliabide egokietarako duten sarbidea: gurasoei lana lortzen lagunduz eta haurrei bizitza-maila egokia bermatuz, laguntza ekonomikoan bidez, zergak arinduz eta etxebizitzarako laguntzak emanez.
- Kalitatezko zerbitzuetarako sarbidea: arreta lehen haurtzarotik sustatuz, hezkuntza-sisteman aukera-berdintasuna bermatuz, osasun-sistemara baldintza onekin sartzea bermatuz, etxebizitza eta inguru egokia, eta haurren babes-sistemak hobetuz.
- Haurrek parte hartzeko duten eskubidea: Haurrek kultura eta kirol bizitzan parte hartzen lagunduz, jolasarako eskubidea izaten eta beraien bizitzetan eragiten duten erabakietan partaidetza-mekanismoak ezarriz.

Oinarri horiek, familiei eta haurrei laguntzeko Erakunde arteko IV. Planean jasotzen diren ardatz, helburu, eta ekintzetan identifikatzen dira.

Azkenik, Planak, kontzeptuzko esparru gisa, 2012an Euskal Autonomia Erkidegoen haur eta nerabeen Plan bat egiteko esparru agiriak proposatutako haur eta nerabeen politiken lau ardatz nagusiak barne hartzen ditu: sustapena, prebentzioa, babesa eta partaidetza.

Esparru horiekin (eta beste batzuekin) bat etorritik, Planak honako hauek hartzen ditu bere jardueraren oinarritzko printzipioak:

- Familia aniztasuna, tratu berdintasuna eta bazterkeriarik eza ezagutzea eta laguntzea.
- Erantzunkidetasuna, genero berdintasuna eta uztartze-neurri arduratsuen alde egitea.
- Zuzeneko arreta-zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak konbinatzea.
- Unibertsaltasun mailakaturia.
- Kapital soziala sortzeari, gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzeari, hezkuntza ez formalari eta aisialdirako eskubideari erreparatzea.
- Haurrek adingabearen interes goreneko eta eskubideen subjektu gisa.
- Hautzarroan inbertitzea.
- Detekzio goiztiarra eta esku-hartze goiztiarra.
- Aukera-berdintasuna eta gizarte-mugikortasuna.
- Erakunde arteko eta dimentsio anitzeko izaera.
- Eragile politiko eta pribatuen lotura.

Planaren azken helburu hauen ondorioz, printzipio hauek kontuan hartuz, bost jarduera-ardatz eta 18 helburu estratejiko sortzen dira. Interesgarriak direnez eta haurren ikuspegi osoa kontuan hartzen dutenez, nolabaiteko zabaltasunez jasoko ditugu:

1. ardatza. Gazteen emantzipazioa eta familia berriak sortzen laguntzea
 - Enplegura iristea. Gazteentzako enplegu-politika aktiboak eta gazteei kalitatezko enplegurako sarbidea indartzea.
 - Etxebizitzarako sarbidea. Seme-alabak dituzten pertsonen eta gazteei etxebizitzarako sarbidea erraztea.
2. ardatza. Norberaren bizitza, familia eta lan bizitza bate-ratzen, eta seme-alaben zainketan erantzunkidetasuna lortzen erraztea
 - Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartu. Gurasoek seme-alabentzako beharrezkoa duten bezain besteko astia izatea erraztu, familien premiei aurre egiteko denbora sozialaren antolaketa egokiago bat, eta antolaketa sozial erantzunkidea bultzatu.
 - Gurasotasun positiboa eta atxikimendu segurua sustatzea. Hazkuntzarako guraso-gaitasunak bereganatzen sustatzea, lotura eta atxikimendu segurua sustatzea, eta familiei zailtasun-egoeretan laguntzea.
3. ardatza. Familiei babesa ematea

- Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea eta haurren pobrezia prebenitzea. Gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatu seme-alabak dituzten familia guztiei eta haur-pobrezia prebenitu.
 - Familia aniztasuna eta belaunaldi arteko harremanak. Familia modu eta lotura anitzak bideratzea eta babes-tea, eta belaunaldi arteko harremanak sustatzea.
 - Haurren arreta. Haur guztiek arreta-zerbitzu irisgarri, arazoizko preziokoak eta kalitatezkoak jasotzea erraztu.
4. ardatza. Haur eta nerabeen ongizatea sustatzea
- Detekzio eta arreta goiztiarrak. Haurtzaroarekin lotutako arazoan detekzio goiztiarra bultzatzea, eta arreta goiztiarreko zerbitzuen garapenean aurrera egitea.
 - Ohitura osasungarriak eta osasunerako sarbidea sustatzea. Haurren osasuna sustatzea, esku-hartze integralen bidez, familiei hazkuntza-prozesuan lagunduz, denbora-tarte egoki gisa bizitza osasungarria sustatzeko jardueretarako eta jokabide arriskutsuak prebenitzeko.
 - Berdintasuna hezkuntzan. Hezkuntza-esparru erkidetza definitzea bizikidetzara eta ekitaterako, aniztasunaren balioa indartzen duena, bazterkeriarik gabeko eskolatzea bermatzen duena, eta hezkuntza arloko erantzunak eta praktikak ikasle bakoitzaren ikasteko gaitasun eta beharretara egokitzen dituena.
 - Babesgabetasun eta ahultasun egoerak prebenitzea eta horiek lantzea. Haurren babesgabetasun egoeren prebentzioa sustatzea, eta eraginkortasunez esku hartzea ahultasun edo arrisku egoeretan, eta babesgabetasun arin, moderatu eta larriko kasuetan.
 - Haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzea. Haur eta nerabeen aurkako indarkeria, eta genero-indarkeriak haur eta gazteengan dituen ondorioak prebenitzea.
 - Gazteen delinkuentzia prebenitzea eta hori egiten duten gazteen arreta hobetzea. Adingabeen egindako arau-hausteak prebenitzea eta murriztea, eta Gazteen justiziaren erantzunak pertsona bakoitzaren errealitatera egokitzea, haien gizarteratzea hobetuz.
5. ardatza. Familien eta haurren politiken lidergoa eta gobernantza bultzatzea Euskadin
- Informazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziak. Familien eta harren politikaren barruan dauden laguntza eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea, eta familian eta haurtzaroan inbertitzeko politikak garatu behar direla ohartaraztea gizarterari.
 - Lidergoa eta koordinazioa. Lidergo eta koordinazio esparru argia ezartzea autonomia, lurralde eta tokiko mailan, eta benetako gizarte eta hezkuntza esparrua sor dadila sustatzea.
 - Ebidentzian oinarritutako ezagutza eta praktikaren kudeaketa. Jardunbide egokiak zabalitzea, esku-hartzeak ebaluatzea eta haurren eta familien ongizatearekin zerikusia duten adierazleen sistema bat mantentzea, beharrak hautemateko eta politika publikoak berriro orientatzeko.
- Toki mailan** zenbait Haur plan onartu dira, integralak izateko helburuarekin (udalerrien eskumenen ingurukoak badira ere). Horren adibideak ditugu [Bilbo](#), [Ortuella](#), [Pasaia](#) eta [Victoria-Gasteiz](#) udalerrietakoak.

II

atala



Eskubideak urratzea?

Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak

◀ Aurrekoa ikusi

II. Atala

ESKUBIDEAK URRATZEA? KEXAK, KONTSULTAK ETA EKIMEN PROPIOKO JARDUERAK

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espeditenteak bideratzean datza, hau da, espeditente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexa- eta kontsulta-espeditenteen analisari hurbiltzeak batik bat helburu diagnostikoa du bulegoaren berariazko agiri honetan. Bere oinarrizko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkarriak haute-matea da, eta espeditente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentzore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditenteak: gerturatze kuantitatiboa

2018an, 729 kexa-espeditentetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %27,97tan. Zerbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (707): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (22), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertzeke eta horien bilakaera ikusteko.


Alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteetan, erakunde honek bi kasuok zenbatzen ditu:

- a. Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.
- b. Neska-mutilen edota nerabeen ordezkariak egindako kexak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.

Edonola ere, kexa **nork egiten duen** ikusita, bakarra izan da haur edo nerabe batek zuzenean egindakoa. Gainontzekoak helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 8 gizarte-erakundeek egin dituzte (norbanakoen egoerak azaldu dituzte) eta beste 11 kexa elkarteek egin dituzte, baina pertsona-talde baten ordezkari gisa; horregatik, adingabe gehiagori eragiten diete.

Gaikako esparruen araberako espeditenteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko muin nagusia osatzen du), ondorengo grafikoan islatutakoa da:

1. grafikoa. Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera



Bizi-maila egokia: diru-sarrerak eta etxebizitza	291	(%41,1)
Hezkuntza	267	(%37,8)
Babesa	33	(%4,7)
Familia	32	(%4,5)
Beste alderdi batzuk	31	(%4,4)
Osasuna	27	(%3,8)
Justizia	12	(%1,7)
Jolasa, kirola eta kultura	11	(%1,6)
Mendekotasuna eta ezgaitasuna	3	(%0,4)

GUZTIRA
707

Iturria: guk geuk egina

Ofiziozko ikerketetan, honelako arazoak aztertzen dira: non-banakoaren kasua gainditu eta, erakunde honen ustez, haurren eskubideren bat arriskuan egon daitezkeen egoerak. 2018an, ikerketa gehienak babesik gabeko haurrentzako gizarte-zerbitzuen arlokoak izan dira (12). Beste lau kexatan, gizarte-egoera zailean dauden haur eta nerabeen arazoak aztertzen dira, baina pasadizoan dauden atzerritarrak artatzeko programekin lotutakoak bereziki, edo pertsonen salerosketaren biktimekin lotutakoak. Beste bitan, berriz, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsona askori eragiten dieten gaiak ikertu dira, eta gainontzeko lauetan gaiok jorratzen dira: arauzko dekretuak egiteko orduan, haurrengan zer eragin duten aztertzen duten txostenak egitea; gazteen lokal batean gertatutakoa; futbol txapelketetan 8-10 urte bitarteko neska-mutilen balizko diskriminazioa; eta gazteei zer-nolako arreta ematen zaien neurri judizialak betetzeko Uribarri zentroan.

2. Arriskuan dauden eskubideak

2018. urtean, adingabeen arloan Ararteko erakundeak egin-dako jardueraren ikuspegi kuantitatiboa osatzeko, antzemandako arazoak eta kezkak azaltzen dira, eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzak edo ondorioak, zenbatutako kexen ehunekoak iradokitako hurrenkeran eta guztiak azaldutako egoeretan arriskuan dauden eskubideen inguruan bilduta.

2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea

27. artikulua¹ (Haurren eskubideei buruzko Hitzarmeneko)

1. Haur guztiek dute beren garapen fisikoa, mentala, izpirituala, morala eta soziala bultzatuko duen bizi-maila izateko eskubidea, eta estatu kideek hori onartzen dute.
2. Gurasoek edo haurra zaintzen dutenek haurrari bere garapenerako beharrezkoak diren baldintzak eman behar dizkiete, beti ere bere ahalbide eta diru-baliabideen arabera.
3. Estatu kideek, estatuko baldintzen eta dituzten baliabideen arabera, guraso edo haurren erantzukizuna dutenei laguntza emango diete eskubide hau bermatu dadin, eta beharrezkoa bada laguntza materiala eta laguntza-programak bideratuko dituzte, batez ere elikadura, jantzi eta etxebizitzaren arloan.

Nekez zehaztu daiteke zenbat haur eta nerabe bizi diren prekariotasun ekonomiko edo pobrezia egoeretan, eta nekez zehaztu daiteke, halaber, zenbat haur eta nerabe dauden oinarriko beharrak asetzeko zailtasunak dituztela dioten familien espedienteetan. Ez dugu datu hori espediente guztietan jakiterik izan, baina egiazta dezakegu horietatik 237tan beraien kargura seme-alaba adingabeak dituzten bizikidetza-unitateak direla. Kopuru horri etxebizitza arloko 55 espediente gehitu behar zaizkio; espediente horietan berariaz adierazten da haurrak daudela tartean, eta beraien bizitokiak gabezia handiak dituztela (hori beren bizimoduaren baldintza materialen funtsezko zatia da).

2.1.1. Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala

Txosten honen 1. kapituluaren 2018-2022rako Familiei eta Haurrei Laguntzeko Erakundearen arteko IV. Plana aurkeztu da

¹ II.2 kapituluaren atal bakoitzaren goiburuan aipatutako artikulua Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenekoak dira (Nazio Batuak, 1989).

denboraldi horretan hurrei buruzko politikak orientatzeko tresna nagusi bezala. Haurren desberdintasun eta pobrezia belaunaldien artean errepikatzearen oinarrietatik, haurren pobrezia fenomenoari aurre egiteko apustu argia gauzatzen da. Planaren diagnostikoan, erakunde honen iritziz, egungo gizarte-errealitatea definitzen duten bi elementu nabarmenak dira.

Lehenengoari erreparatzen badiogu, etxean haurrak egoteari lotutako pobrezia diferentziala mantentzen da. Aurreko bi txostenetan azaldu den bezala, testuinguru honetan pobrezia eta desberdintasun oso modu desberdinean eragin die gizarte-talde desberdinei eta bere ardurapean seme-alabak dituzten familiek gero eta pobrezia-arrisku handiagoaren aurrean aurkitu dira.

Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunak Inkestaren segida historikoa kontuan hartuta, haurren pobrezia, gutxienez 1996. urtetik, biztanle multzoarena baino handiagoa da. Nahiz eta bi tasak 1996tik 2004ra bitartean elkartzeko joan, urte horietatik aurrera desberdintasuna areagotuz joan da. 2016. urtean (azkeneko datu eskuragarria), 14 urtetik beherako pobrezia-tasa biztanleen multzoaren tasari zegokion % 170 zen. Seme-alabak dituzten familien pobrezia-arriskuan diferentzialaren ondorioa argia da: 15 urtetik beherako euskal haurren % 10 (guztira 30.000 pertsona baino gehiago) egiazko pobrezia-egoeran bizi da Euskadin. Horietatik, % 17k gutxienez bi egunez behin ezin du proteinazko janaririk hartu, % 12k ez du gutxienez bi oinetako-pare, % 40k ez du jantzi berririk eta % 48k ezin du egin eskola-jarduerarik, doakoa ez bada.

Gainera, haur-pobrezia hazkuntzaren azpian, haurren taldearen barruan desberdintasunaren tartea areagotzea dago. Hala, 2008tik 2016ra Euskadin haurtzaroen desberdintasuna gehitu da eta, ondorioz, urte horietan Giniren indizea 25,6tik 26,4ra pasa da.

Bigarren elementua haurrengan pobrezia eta desberdintasunak dituen ondoretan oinarritzen da. Izan ere, goranzko gizarte-mugikortasunaren aukerak txikiagoak dira eta pobrezia belaunaldiz belaunaldi errepikatzen da. Agiriaren egileek azaldukoaren arabera: *“Ebidentzia zientifikoak iradokitzen duenez, gaur egun erregistratzen den diru-sarreraren desberdintasun handiagoak tarteko, familia-testuinguruak gero eta garrantzi handiagoa du gazteen etorkizuneko bizi-maila zehazteko garaian, eta gero eta txikiagoa da ahallegin pertsonalak etorkizuneko bizi-baldintzetan duen inpaktua. Gösta Esping-Andersen gisako egileek azaldu dutenaren arabera, desberdintasunen gorakadarekin, gero eta desberdina izango da familiek haien seme-alaben etorkizunetan inbertitzeko izango duten ahalmena; hartara, borondate politiko erabakigarriak ezean, auzitan jar daitezke itun sozialaren oinarri den aukera-berdintasunaren printzipioa”*.

Aurreko kapituluak, Familiei eta Hurrei Laguntzeko Erakundearen arteko IV. Plana aurkezteari buruzkoan, azaldukoarekin bat, fenomeno horiei aurre egiteko egituratu diren orientazio-planak *Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa puskatzea* 2013ko Europar Batzordearen gomendioarekin planteamendua partekatzen du. Haurren pobrezia aurre-

kako politikak garatzeko gomendio honek proposatzen duen lehenengo oinarri estrategikoa familiek baliabide egokiak (lana lortzea eta bizi-maila egokia bermatzea) lortzearen ingurukoa da. Ildo horri eutsiz, nahiz eta hori ezin daitezkeen uler beste bi oinarririk gabe (kalitatezko zerbitzuak lortzea eta haurrek horietan parte hartzeko eskubidea), txosten honetan atalaren ardatz bihurtuko da.

Izan ere, planaren 5. helburuak “seme-alabak dituzten familia guztiei gutxienezko baliabide ekonomikoak bermatzea eta, bide batez, haurren pobrezia prebenitzea” du xede, beraz, diru-sarrerak bermatzeko sistemari eta etxebizitzaren sistemari dagozkion ekintzak lantzen ditu, ondoren herritarrek egindako erreklamazioak batik bat ildo horietatik baitoaz. Hala eta guztiz ere, esan daitezke horietako jarduerak batzuk jada diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetzeko oinarrizko agirian zeudela, Eusko Jaurlaritzako 2017. urtean aurkeztu ondoren eta, era berean, “diru-sarrerak bermatu eta gizarteratzeko legearen proposamenean” azaltzen direla, Nacionalistas Vascos-Euzko Abertzaleak eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak Legebiltzarreko taldeek batera aurkeztu ostean. Une honetan Legebiltzarrean izapidetzen ari da.

Amaitzeko, hurrei buruzko udal-planetan, txosten honek 1. kapituluak aipatzen dituenetan, zehaztasun-maila desberdinarekin, haurrak dituzten udalerriko familien kokatasun ekonomikoaren egoerak, baita gizarte kalteberari buruzkoak ere erantzuteko jarduerak eta proposamenak ageri dira.

2.1.2. Arartekoaren jardunbidea herritarren eskarien aurrean

Onartu behar da Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eragin positibo handia duela EAEn pobrezia maila eta egoera ekonomiko txarren kopurua murrizteko. Horrexegatik, agian, txosten honetan ezin ditugu aipatu gabe utzi Arartekoaren esku-hartzea eskatzen duten familiek planteatzen dituzten arazo batzuk, behar oinarritzkoenak estali ahal izateko. Gogora dezagun berriz ere diru-sarrerak bermatzeko sistemak dituen prestazio ekonomikoaren hartzaila-ehuneko altuaren barruan sartzen direla ardurapean seme-alabak dituzten familiek. Datu horrek erlazioa du Arartekoari zuzentzen zaion kexa-ehuneko handiarekin, adigabeak ardurapean dituzten pertsonenak baitira asko eta asko. Aurrekoaren harira, prestazioei (diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte-larrialdiko laguntzak) buruzko kexen % 33k baino gehiagok berriaz aipatzen dituzte haurrak (askotan, bat baino gehiago) bizikidetza-unitatean. Horrek ez du esan nahi gainerako % 67an ez dagoenik. Nolanahi ere, ez dute datu hori adierazi egoera azaltzean. Aipatuta eta, beraz, zenbatuta edo zenbatetsita, biribiltasunez baieztatu daitezke oinarritzko beharrak estaltzeko zailtasunak dituzten egoitzetan eta, horien artean, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdiko laguntza ezetsi, eten edo azkendu zailak egoera kalteberenetan dauden familietan adingabe asko dagoela. Izan ere, erakunde honek halako erreklamazio ugari aztertzen du.

Txosten orokorraren II.4 atalean (gizartertzeari buruzkoa) zehazki irakur daitekeenez, 2018. urtean hobekuntzak ikusi dira Lanbidek gai hauetan egindako kudeaketan: ebazpenen arrazoiketa; dokumentuak erregistratzea; aurretiko entzunaldia; prestazioak eskatzeko eta berriz ordaintzen hasteko eskaerak ebazteko epeak; herritarrentzako arreta eta prestazioak erreklamatzeko prozedurak hasteko epeak. Berraztertze-errekurtsoak ebazteari buruz, oraindik atzerapen handia nabari da, baina epea laburtzeko neurriak hartu direla jakinarazi digute. Beste gai batzuetan, aldiz, bere horretan diraute elkarrengandik urruntzen diren iritziak, eta zenbait gomendio eta iradokizun eragin dituzte. Horiek, kontuan hartu beharko lirake, Arartekoaren ustez, sistema hobetzeko. Aurten aipagarriak dira gai hauen gaineko gomendio-iradokizunak: benetako bizilekuaren baldintza eta baliabide ekonomikorik eza egiaztatze modua; gizarterratze-programetan parte hartzen duten pertsonen aukerak; jaraunspenak zenbatzea, gauatzeko zaila den ondasunak badira; errentamendu-kontratua Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskribatzeko betebeharrak –errentatzailea ez den baina logela bat alokairuan hartuta duen pertsonari dagokiona–; enplegu bati uko egitea; EAETik kanpora egiten diren irteerak edo, beste batzuen artean, eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazteko baldintzaren interpretazio hedagarria.

Azken gai horrek honako gai hauekin du zerikusia: Lanbidek prestazioen eskatzaileei eta hartzaileei eskatzen die bide juridikalean erreklama dezatela gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak (seme-alaben mantenu-pentsioari dagokionez) ezartzen dituen epaia gauatzeko, eta egoera batzuetan zaila izaten da, adibidez, bikotea non dagoen ez dakitenean edo beste herrialde batean dagoenean, edo genero-indarkeria jasau dutenean. Egiaztatu da erabiltzaileei hobeto informatzen zaiela horrek berekin dakartzan konpromisoez, baina kontuan hartu behar da egoera horiek neurri handiagoan eragiten dietela guraso bakarrek familiei. Gehienak bere kargura seme-alabak dituzten emakumeak dira, gizarte-talde eta familia mota kalteberena eta pobrezia arriskuan, Lanbideren barne diagnostikoen eta Euskadiko Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren arabera.

Horrez gain, Arartekoak adierazi du garrantzitsua dela ikuskatzeko barne-mekanismoak ezartzea, indarkeriaren biktimak izan diren emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak edo adingabeak zaurgarritasun egoeran babesik gabe geratzea saihesteko; bestalde, prestazioak eteteko edo irautgitzeko erabakietan, baldintzetako bat ez dela bete susmatzen bada, hobeto frogatu behar da, batez ere, tartean adingabeak edo zaurgarritasun larriko beste egoera batzuk badaude.

Lanbidetik aspaldiko zorrak zenbaterako handikoak egoteari buruzko jakinarazpenak jaso dituzten herritarren kexak jasotzen dira oraindik ere. Zor horiek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen dituzten pertsonen baldintza edo betebeharrak ez betetzea berandu antzeman eta hainbat urtetan jasotako zenbaterako erreklamatu direlako sortu dira. Horri buruz, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du on litzatekeela argiago bereiztea zer den betebeharrak ez betetzea eta zer baldintzak

galtzea. Arartekoak uste du arreta handiz deklaratu behar dela zor handia egotea; hori dela eta, tipikotasun, proportzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak gogorarazi dizkio Lanbideri. **Arartekoak 2017ko diagnostiko-txostenean** helarazi zituen gogoetak oraindik ere interes handikotzat jotzen dira, eta kontuan hartu beharko lirake jokabide horien –ez betetzearen– aurrean ezarritako “ondorioei” dago kienez. Arartekoaren iritziz, ondorioak ezin dira berdinak izan bi egoera hauetan: prestazioen hartzaileak baldintzak gaitzen dituzten, eta betebeharrak betetzen ez dituzten; hori dela eta, Arartekoak gomendatu du: araudia argitzea, jasotako prestazioak itzularazteko arrazoiak –baldintzak ez betetzeari lotutakoak– behar bezala tipifikatzea, eta gainera, betebeharrak ez betetzeari (hau da, halako jokabideei) loturiko arau-hausteen eta zigorren erregimena garatzea, arau-hauste horien artean arinak, larriak, oso larriak eta abarrik bereizteko.

Bestalde, prestazioa osorik jasotzeko hainbat baldintza bete behar dira, eta horiek zerbitzu publiko desberdinek baloratzen dituzte, bizi ahal izateko gutxienekoa bermatzeko aukerarik gabe; hori guztia dela eta, oso egoera zailak sortzen dira. Diru-sarrerarik ez dagoenean prestazioaren zati bat bakarrik baldintzapean jartzeak arinduko luke udal gizarte-zerbitzuek jasaten duten presioa (haztara jotzen da DSBerik ez dagoenean), eta oso neurri baliagarria izango litzateke haur pobreziaren aurkako borrokan.

Azkenik, erakunde honek sarritan adierazi izan du DSBEen espedienteetan gizarte-zerbitzuek parte hartu behar dutela, batez ere lehen arretakoek, kasu horietan garrantzi handia baitu gizarte-kalteberatasunezko egoeraren balorazioak. Gizarte-egoera zailen dauden pertsonen bai Lanbidera, bai udal gizarte-zerbitzuetara jotzen dutenez, lankidetzaharmanak ezarri behar dira zerbitzu publiko bakoitzean arreta ematen dieten langileen borondatek haratago. Protokoloetan jasotako mekanismoak egoteak ahalbidetuko luke Lanbide bulego guztietan erantzun berdinak ematea. Beste administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko bidean aurrerapausoak egin badira ere, batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izateko baldintzak betetzen direla zaintzean, ez da aurrera egin gizarte-egoera zailak egiaztatzean –batzuetan, funtsezkoak dira gizarte-bazterketan dauden pertsonen baldintzak eta/edo betebeharrak betetzea egiaztatzeako–, ezta arreta integratua eskaintzeko behar den lankidetzan ere.

Bestelako kontuei dagokienez, Arartekoak pobrezia errealeko egoeran, pobrezia arriskuan edo ongizate-gabezia dauden haur eta nerabeen kasuetan esku hartzen duenez, ezin du jarduera horri buruzko atala amaitutzat eman **etxebizitza** arloan egindako jarduketak aipatu gabe. Arlo honetan igorritako ebazpen guztietan gogorarazten denez, “*duela hainbat hamarkadatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (25.1. artikuluan), bai 1966ko abenduaren 16ko Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen Nazioarteko Ituna (11.1. artikuluan), edo Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2000ko abenduaren 7an onetsitako Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Karta (34.3. artikuluan), iritzi berekoak dira: **etxebizitzak era-***

gin handia du gizartean, pertsonen eta familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako”.

Seme-alabak dituzten familiekin egindako esku-hartzeei dagokienez, talde garrantzitsua osatzen dute babes publikoko etxebizitza bat errentan hartua duten eta etxe handiagoa esleitzeko eskatzen duten familiek, beren bizikidetzaren unitatearen osaera aldatu egin delako eta oraingo etxebizitzak lege ezarritako gutxieneko ratioa (pertsonako 15 m²) betetzen ez duelako. Gehienetan seme-alabak jaino direlako gertatzen den gainokupazio handiko egoerez ari gara. Bidezkoa da adieraztea **Alokabidek** onartu egin dituela etxebizitzaz aldatzeko eskaera horietako batzuk. Hala ere, eskaerak gero eta ugariagoak direnez gero, Arartekoak berriz adierazi nahi du “etxebizitza-ibilbideei” buruzko araudi berria ezarri beharko litzatekeela, Etxebizitzari buruzko **ekainaren 18ko 3/2015 Legearen** 39. artikuluan agindutakoaren babesean. Etxebizitza babestuen eskuratzeko ibilbideak gauzatu beharko liriateke, alokairu sozialeko etxebizitzak errentarietara eta beren familiek bizitza etapa desberdinetan izan ditzaketan beharretara egokitzea lortzeko. Etxebizitza horietan bizi diren haurrek tokia eta nahiko onak diren baldintza materialak izan behar dituzte, bere garapena arriskuan ez jartzeko.

Bigarren taldean, 2018an gora eginez, lehenbailehen babes publikoko etxebizitza bat alokairuan eskatzen duten familiak ditugu, baina **Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailak** ez die nahi bezala erantzuten haien eskaerari. Kexa-idazkietan, kexagileek agerian utzi dute “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda urte asko eraman arren, ez zaiela etxebizitzarik esleitu, eta, diru-sarrerara txikiak dituztenez, ezin dituztela alokairu pribatuko prezioak ordaindu. Erakunde honek aztertu dituen kasu gehienetan, iritzi dio emandako erantzuna bat zetorrela babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedurak erregulatzeko araudiarekin; kexa horiek, berriz ere, agerian uzten dute administrazio publikoek dituzten etxebizitza publikoen kopurua herritarren premia baino askoz txikiagoa dela.

Hirugarren kontu bat ere badugu: aldean artean sortzen diren desadostasunak, alokairu publikoen zenbatekoa dela eta. Kasu batzuetan, administrazioak hileko errenta kalkulatu eta ekonomia-egoeraren arabera aldaketak aplikatu zituztenean, ezinezkoa izan zen ordaintzea. Ondorioz, errenta horiek ordaintzen ez zirenez, kasu batzuetan, errentariak alokairu-erregimenean esleitutako babes publikoko etxebizitza utzi behar izan zuen.

Horrelako egoerekin kezkatuta jarraitzen du Arartekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan hipoteka betearazi dieten pertsonen eta etxetik botatakoen kopuruarekin.

Egoera tragiko horren aurka borrokatzeko asmoz, abenduaren 18an, etxebizitzaren eta alokairuaren arloko presako neurriei buruzko **21/2018 Errege Lege Dekretua**, abenduaren 14koa, argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, besteak beste, Prozedura Zibilarren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duena, arlo horri dagokionez. Zehazki, hori arautzean, 441.1 ter artikulua gehitu zen, aldi baterako, Prozedura Zibi-

laren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean; artikulua horretan espresuki xedatu zen etxe-gabeteak geldiarazi behar zirela hariak eta gizarte-zerbitzuek egokitzen jotako neurriak –beste bizitoki bat aurkitzeko– abian jarri arte. Etenaldia gehienez hilabetekoa izango zen, organo judizialak gizarte-zerbitzuen jakinarazpena jasotzen zuenetik zenbatzen hasita, edo hilabetekoa, eskatzailea pertsona juridikoa bazen. Hala ere, 2019ko urtarrilaren 22an, Errege Dekretua Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkuran aztertu zen, baliozkotzeko edo indargabetezko. Azkenean, ez zen baliozkotu eta **indargabetezko erabakia** Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2019ko urtarrilaren 24an.

Edonola ere, ez da alboratu behar **Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordeak 2017ko uztailaren 21eko irizpenean**, urratutaz jo zuela, besteak beste, adingabeek osatutako bizikidetzaren unitate baten eskubidea –etxebizitza egokia izateko–, ez Espainiako estatuak, ezta autonomia-erkidegoko agintariak ere, etxebizitza utzarazteko prozedura judiziala amaituta, beste bizitokirik bermatu ez zutelako.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren iritziz, are funtsezkoagoa da organo judizialen eta gizarte-zerbitzu eskudunen arteko koordinazioa. Arartekoak uste duenez, horretarako, “**Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, izaera sozialeko neurriak hartzea ahalbidetzeko etxebizitza familiarretik botatzea dela-eta larritasun-egoerak hautemateari buruzkoa**” berrikusi, eta horren jarraipen xehea egin behar da, bizitokiarekin zerikusia duten egoera eta premia berriei erantzuteko.

2.2. Hezkuntzarako eskubidea

28. artikulua

1. *Estatu kideek haurrak hezkuntzarako duen eskubidea onartzen dute (...).*

29. artikulua

1. *Estatu kideek haurraren hezkuntza honetarako bideratu behar delakoan daude:*
 - a) *Haurraren nortasuna, gaitasunak eta ahalmen fisiko eta mentala ahal den gutzia garatzeko;*
 - b) *Giza-eskubideei eta oinarrizko askatasunei eta Nazio Batuetako Agirian azaltzen diren printzipioei buruzko errespetua irakasteko haurrari;*
 - c) *Bere gurasoenganako, bere kultura-nortasunaren-enganako, bere hizkuntza eta baloreenganako, bizi den estatuko baloreenganako, jatorrizkoa duen estatuko baloreenganako eta bere zibilizazioa ez diren zibilizazioarenganako errespetua irakasteko haurrari;*

d) *Haurra, gizarte aske batean, elkar ulertzeko izpirituarekin, bakearekin, tolerantziarekin, sexuen berdintasunarekin, eta herri, talde etniko, nazional, erlijioso eta indigena jatorria duten guztiekin adiskidetasunez eta zentzuz bizitzen prestatzeko;*

e) *Haurrari ingurugiro naturalarekiko errespetua irakasteko.*

2.2.1. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2018an zehar, Hezkuntza Sailak “*Hezkuntzaren aldeko Akordioaren Oinarriak*” dokumentua osatzeko prozesua sustatzen jarraitu du, etorkizuneko Hezkuntzarako Euskal Legea egin baino aurreko urrats gisa.

Euskadiko Eskola Kontseiluak maiatzaren 9ko txostenean egindako ekarpenak gehitu dira dokumentu horretan, baita parlamentuko hainbat taldek urriaren 22an antolatutako Hezkuntza Batzordean egindakoak ere.

Hala ere, hainbat alderdi politikok, sindikatuk eta elkartek haien desadostasunak adierazi dituzte, eta agerian utzi dute zaila izango zela hezkuntza itun berri bat lortzea.

Aurrerago, ijitoen haurrei buruzko txosten honen 2.8.3. atalean zehaztasun handiagoz aipatuko den bezala, 2018ko azkeneko lauhilekoan Eusko Jaurlaritzak 2018-2020rako Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia onartu du eta ijito herriaren sustapen integralarekin zerikusia duten gizarte-politiketarako, baita ijitoen kultura defendatu eta sustatzeko ere oinarritzko esparrua da. Definitutako ardatz batean, zehazki, “ijitoen bizi-kalitatea hobetzea” izenekoan kokatuta, estrategiak “*eskola bateratzailearen esparruan ikasleen eskola-arrakasta gehitu nahi du, neskek (haurrak eta gazteak) arreta berezia jarritz*”. Horretarako, hezkuntzaren eremuan jarduera-multzoa garatzen du, baina lehen aipatu den atalean landuko da.

2.2.2. Kexatzeko arrazoiak

Hezkuntza-sistemari buruzko kexa-kopurua nabarmenki igo da. Azalpen nagusiari erreparatuz gero, arazo berdinen inguruan 150 familiak baino gehiagok erreklamazioa aurkeztu du eta ikasleak onartzeari buruzko hurrengo atalean zehatzago aztertuko da. Kexetan planteatutako bestelako gaiak azpimarragarriak dira 2018. urtean izan duten garrantziagatik eta, ondorioz, epigrafe berezietan landuko dira: ikasleak onartzea, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen arreta, lanbide-heziketa, eskola-garraioa, eskola-jangela eta bekak. Gainerako alderdiei dagokienez, jasotako kexen kasuistika aurreko ekitaldietan erregistratutako kasuistika bera da. Hortaz, ez du balioztapen eta hausnarketa berezirik izan. Eskola-bizikidetzarekin zerikusia duten kexek dirautela azpimarratu beharko litzateke. Kopurua txikia izan arren, betiere sufrimendu-maila garrantzitsua iradoki dute.

2.2.2.a) *Ikasleak onartzea*

Arartekoak kexa ugari jaso ditu ikasleak onartzeko prozesuetan **guraso bakarreko familiei** ematen zaien tratamenduari inguruan. Antza denez, desberdintasunak daude **Haurreskolak Partzuergoko** haur-eskolen, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuaren artean.

Bere esku-hartzean, hainbat kexaren oinarria juridikoki mantentzeko zailtasunaren jakitun egin zen erakunde hau, kontuan izanda kexa horiek aurkeztu direla berdintasun-printzipioaren kontrako ustezko bereizkeriazko tratua baliatuz. Hala ere, hori horrela izanik ere, Hezkuntza Sail horrek esku hartu dezan eskatu du erakunde honek, jakiteko zein den sail horren iritzi arrazoitua ikasleak Hezkuntza Sailaren mende dauden ikastetxe publikoetan edo itunpeko ikastetxe pribatuetan onartzeko orduan guraso bakarreko familien egoera nolabait aintzat hartzeko aukerari buruz.

Aurreko errekerimenduari erantzuna emateko txostenean, sail horrek, alde batetik, familien egoera zehatz batzuk (besteak beste, errenta, anai-arreben kopurua, etab.) aintzat hartzeko lehentasunaren bidez kotatasunaren alde egin zuen ikasleak ikastetxeetan onartzeko agindua emateko orduan. Izan ere, arreta handiagoa eman behar zaie egoera horiei guraso bakarreko familia izatearen egoerari baino. Edozein kasutan, nahiz eta txostenean horren inguruko informazioz eman ez izana, gogoratu beharra dago egoera horiek aintzat hartzea derrigortu zuela hezkuntzari buruzko estatuko oinarritzko legediak (alde horretatik, horixe dio Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 84.2. artikulua, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko **abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren** idazketa berriarekin bat).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak honako ezberdintasun hauek nabarmendu ditu: alde batetik, Haurreskolak Partzuergoak egindako eskaera, eta eskaera horretan, familiei laguntza eskaintzeak garrantzi handia du; bestetik, sailak berak proposatutako hezkuntza eskaintza, eta eskaintza horrek, praktikan, 2 urteko ikasleak ere eskolatzea bermatu du (horixe adierazi du Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako azken txostenak, “*Euskadiko eskola-hezkuntza 2015-2017*” izenekoak, eta txostenaren arabera: “*Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko eskolatzeko-tasari dagokionez, Euskadi lehenengo lekuan dago Europar Batasunean. 2016-2017 ikasturtean, 2 urteko ikasleen % 93,7 eskolatu zen*”).

Argudio horiek guztiak aintzat hartuta, erakunde honek familiei errepikatu behar izan die zein izan den haren lehendabiziko azterketa, bereizkeriazko tratua egon dela baliatzeko zailtasunari dagokionez. Izan ere, aintzat hartu behar dira guraso bakarreko familiei emandako tratua ezberdina justifikatzeko eman diren arrazoiak, berdintzat ezin har daitezkeen bi egoeraren aurrean.

2018an hainbeste kexa eragin dituen gai hori kontuan hartu eta gero, beste gai eztabaidatu bat aipatu behar dugu ikasleak onartzeari dagokionez: **ikasleak ohiko epetik kanpo**

eskolatzea, batez ere berandu sartu badira EAEko eskola-sisteman.

Alde horretatik, ikasleak onartzeko erregulazio berrian (1/2018 Dekretuan, urtarrilaren 9koan) atal zehatz bat gehitu da, eta atal horretan, honako hau ohartarazi da: ikasle horiek eskolatzean, familiek adierazitako lehentasunez eta erabilgarritasunaz gain, kontuan hartu beharko dira eskola-plan-gintzari eta orekari lotutako beste faktore batzuk, aniztasuna ikastetxeen artean banatzeko uanean.

Zehazki, azken alderdi hori (aniztasuna banatzeko uanean dagoen orekari) erabili da ikasle etorri berriak itunpeko ikastetxeetan eskolatzearen alde egiteko. Hala ere, familia asko eskolatze proposamen horien kontra azaldu dira, besteak beste, ikastetxe batzuetako erlijio-idearioa dela eta, ikasleak eskolatzeak dakartzan gastu handiak direla eta, etab. Horren ondorioz, eta normalean (ikasleak onartzeko hurrengo ohiko prozesua), familiek ahal duten bezain laster ikastetxez aldatzea pentsatzen dute.

Hori ikusirik, erakunde honen iritziz, Eskolatzeko Batzordeek eskolatutako ikasleen jarraipena egin behar du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, baita banaketa-politika horren eraginkortasuna ebaluatu ere; horixe bera proposatu da sailak berak aurkeztu duen txostenean, [ikasle atzerritarrak EAEko eskola-sisteman eskolatzeari](#) buruzkoan.

Batzuetan, familiek eskolatzeko proposamenak baztertu dituzte esleitutako ikastetxeetako hizkuntza eredu dela eta. Alde horretatik, erakunde honek Hezkuntza Sailak egindako barne txosten bat eskuratu du, eta txosten horretan, honako ondorio hau jaso da: familiek A hizkuntza eredu eskatzeko edo aukeratzeko eskubidea badute ere, hezkuntza administrazioak ez du eredu horretan plazarik eskaintzeko obligaziorik. Txosten horren arabera, B ereduaren plaza bakar bat eskaintzeko legezko obligazioa dago, besterik gabe. Eredu horretan, curriculum euskaraz eta gaztelaniaz irakatsiko da, eta bidezkoa izango da bi hizkuntzak erabiltzea irakats-hizkuntza gisa. Gainera, garraio eta jantoki zerbitzu osagarriak aintzat hartzea horren guztiaren mende dago.

Hala ere, txosten orokorraren II.2 atalean adierazienez, Hezkuntza Sailak ez dio irizpide horri jarraitu kasu guztietan, dirudienez. Izan ere, Eskolatzeko Batzordeek proposatutako eskolatzeko proposamenak D ereduari buruzkoak dira orokorrean, nahiz eta familiak A eta B ereduaren alde agertu izana. Hortaz, gomendagarria da zehaztea zein den batzorde horiek jarraitu beharreko irizpidea.

Erakunde honi berriz ere proposatu zaio familien nahia aintzat har dezan **anai-arreba bikiak eskolatzeko** erabakitzekeo erduan, nola ikasgela berean hala ikasgela ezberdinetan.

Horrelako kasuak gertatzen direnean, ez dago ebidentzia zientifikorik eskolatzeko modu zehatzen bat gezuratu edo erantzun ezinezkotzat hartzeko. Izan ere, modu guztiak egokiak dira. Hala ere, Arartekoak gogoeta gehitu nahi izan dio eztabaidari kasu honetan. Izan ere, erakunde honen iritziz, kasu bakoitzean dauden inguruabar bereziei arreta emateko egokitasuna, edo, hobe esanda, inguruabar horiek aintzat

hartzeko beharra, kaltetutako adingabeen interes partikularren ikuspegitik azpimarratu beharreko zerbait da; horrez gain, seme-alaben hezkuntzari dagokionez familiek bete dezaketen eta bete behar duten eginkizuna aldarrikatuta dago behar horretan ([Arartekoaren ebazpena, 2018ko uztailaren 4koa](#); horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari iradokitzen zaio komeni dela familien nahia kontuan hartzea anai-arreba bikiak eskolatzeko kasuetan).

Erakunde honen iritziz, planteamendu horrek adingabeen interes gorenari arreta emateko behararen alde egiten du, eta [Haurren Eskubideen Batzordearen 14. Ohar Orokorrarekin](#) bat egiten duen planteamendurik onena da; ohar hori haurrek haien interes gorena lehentasunez kontuan hartzeko duten eskubideari buruzkoa da (3. artikulua, 1. paragrafoa), eta Arartekoak ohar hori zabaldu du beraren jarduketa askotan (jarduketa guztiei buruzko informazioa jasotzeko: [Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, apirilaren 8koa](#)).

Halaber, honako hau hartu behar da kontuan: ikastetxeei proposatu dakieke komenigarria dela jarrera arina izatea anai-arreba biki adingabeak eskolatzeko moduari dagokionez, eta horrek ez dio haien autonomiari kalterik egiten. Izan ere, ez da zalantzan jarriko ikastetxeek eskolatzeko eredu zehatz baten edo beste baten alde egin dezaketarik. Proposatzen dena honako hau da: ikastetxeak aurrez defendatutako jarrera arintzea komeni dela adingabeen inguruabar zehatzek beren interes partikularren mesedetan hori egitea gomendatzen dutenean. Hau da, ezberdintasunak sor daitezkeen kasuetan bakarrik, adingabeen interes partikularrak edo gorenak lehenetsi behar dira, baina hori ez da interpretatu behar ikastetxeei aitortutako autonomia arbitrarioi edo arrazoirik gabe mugatzeko egoera baten moduan.

Ikasleak onartzeari buruzko atal honetan, honatx laugarren gaia: **ikasleak Gasteizen eskolatzeko**, zehazkiago, 2017an egoera horren bilakaera aztertzekeo hartu zen erabakiaren emaitza; batzuek “hezkuntza-segregazioa” deitzen diote.

Gorago adierazi dugunez, 2018ko urrian, Hezkuntza Sailak ikasle atzerritarrak EAEko eskola-sisteman eskolatzeari buruzko txostena idatzi zuen, hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzeko sailaren konpromisoari emandako erantzun gisa. Halaber, eta zehaztuta dagoen legez, txosten hori honako plan honetan dago zuzenean sartuta: [2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planean](#). Txosten horren bitartez, konfirmatu egin da bateratze-fenomenoa eremu geografiko txiki batean gertatu dela Gasteizen kasuan. Hori dela eta, pertzepzioaren eta gehiegizko ordezkartzaren fenomenoa gehitu zaizkio bateratze-fenomenoari.

Azterlan berri horretan proposaturiko erronka eta jarduketa-proposamenen artean, aukera berak izatea bermatzeari buruzkoak dira nabarmentzekoak, baita ikastetxeen osaketa sozialean oreka eta eskola-sistemaren kohesio handiagoko sustatzeari buruzkoak ere. Hala ere, eskola publikoaren aldeko Gasteizko plataformak txostena nahikoa ez dela aldarrikatu du. Izan ere, plataforma horren aburuz, txosten

horretan ez dira jaso hiriko itunpeko ikastetxe batzuetan izan litezkeen arazoak ikasle etorkinak eskolatzeko orduan.

Testuinguru horretan, erreferentzia egin behar zaio [Legegintzako Herri Ekimenari](#) (LHEari), eskola inklusiboaren aldeko eta eskola-bereizketaren aurkako plataforma batek bultzatutakoari. Azkenean, Eusko Legebiltzarrak herri-ekimen horren izapidetzea baztertu du, uste baitu etorkizuneko hezkuntza legea dela txostenaren eztabaida-esparru egokia.

Erakunde honen iritziz, dokumentu eta ekimen horiek guztiek adostutako jarraipen-eginkizuna egiten jarraitu behar dela egiaztatu dute.

Bukatzeko, **hezkuntza-premia bereziak dituen gazte bat eskolatzea** aztergai duenez gero (testu honen hurrengo atalean azterturikoa), honako kasu honetan egindako jardueraren berri ematen da: hezkuntza administrazioa gazte hori ikastetxez aldatzeko aukera aztertzen ari zen, familiaren nahia kontuan hartu gabe eta ikaslea lekualdatzeko prozedura izapidetzea saihestuz.

[Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuak](#) ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozesua arautu zuen, eta dekretu horretan kontuan hartu beharreko salbuespen bat jasota dago hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeari dagokionez. Ikasle horien kasuan, dagokion lurralde ordezkariaren ardurara da ikaslea zein zentrotan eskolatu behar den erabakitzea; hala badagokio, horretarako ezarritako organoen laguntza izaten du ordezkariak, aldez aurretik, gurasoei eta tutoreei entzun behar die, eta dagokion Hezkuntzaren Berrikuntzan eta Prestakuntzan laguntzeko zentroaren (Berritzegunearen) Hezkuntza Premia Berezien aholkularitza-taldeak balorazioa egiten du.

Hala ere, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle horiek eskolatzeko prozesua ikasleak onartzeko ohiko prozeduratik kanpo geratu ahal izateak, baita dagokien lurralde ordezkariak non eskolatu behar diren erabakitzeko ardurara izateak ere, ezin dute ondorioz ekarri nolabait zuzenean jokatzeko, kontuan hartu gabe bai urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan espresuki aurreikusitako eskakizunak, bai Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legean](#) ezarritako gainerako bermeak.

Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren 21.2. artikuluan, zeinak lurralde ordezkariak horrelako kasuetan ikastetxea aukeratzeko aipatutako sistema ezarri baitzuen, adierazita dago entzunaldi-izapidea garrantzi handikoa dela kasu horietan, erakunde honen iritziz.

Horri prozedura osoan agertu behar diren gainerako izapideak eta bermeak gehitu behar zaizkio, legaltasun administratiboaren printzipioa aplikatuta ([Konstituzioaren 103.1. artikulua](#)). Izan ere, alderdi formal edo prozedurazkoari dagokionez, administrazioaren jardun guztiak garatu behar dira administrazio-jarduketaren efikaziaren eta herritarren eskubideen ezinbesteko babesaren artean oreka egoki bat bermatzeko xedez ezarri diren bide formalei jarraikiz, urria-

ren 1eko 39/2015 Legearen zioen azalpenean azaldu den moduan.

Hori guztia dela eta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eman zion erakunde honen jarduketa formalizatzeak duen garrantziaren berri. Horretarako, dagokion lurralde ordezkariak ebazpena eman behar du, eta ebazpen horretan, ikasle gaztea beste ikastetxe batean eskolatzeari buruzko erabakia jaso behar da, familiak erabaki hori aurkara dezan, hala badagokio.

2.2.2.b) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak

Aurreko atalarekin lotuta, Arartekoaren ustez, honako hau ere aipatu behar da: jasotako kexa batzuen arabera, familiak seme-alabak A ereduan eskolatzeko erabaki dute ikasleak hezkuntza premia bereziak eta/edo ikasteko zailtasunak -esate baterako, dislexia- dituzten adingabeak dirrelako. Kexa horiek frogatu dute gai horren inguruko kezka dagoela; erakunde honen iritziz, hezkuntza administrazioak kezka hori desagerrarazi behar du, eta, horretarako, interesdunen esku jarri behar ditu beharrezkoak diren baliabiak eta laguntza.

Berariaz hezkuntza-premia berezietan dagokienez, gure azken txostenean aipatu genuen zer jarduera egin zen orduan neska gazte desgaitu baten kasuan. Neska hark goi mailako ikasketak egin nahi zituen, eta, azkenean, bere adina gorabehera, beharrezkoa zen laguntza eskaini zitzaion.

Aurten, erreferentzia egin behar zaie jasotako kexa berriei. Kexa horietan, honako hau eztabaidatu da: ea unibertsi-tatez kanpoko irakaskuntzaren alorrean prestakuntza jasotzen jarraitu nahi duten gazteei laguntza ematen jarraitu behar zaien ala ez. Alde horretatik, sailak nabarmendu du hezkuntza laguntzako espezialisten eginkizuna dela ikasleek beharrezkoak diren konpetentziak lortzea zailtasunak dituzten alorretan, besteak beste, zainketa pertsonalaren alorrean (garbiketa, janzteak...). Hala ere, laguntza-ekintza horiek egiteko (adibidez, ikasleak komunera joaten laguntzea), ez dago langile espezializatuen beharrik, eta ekintza horiek ez dute langile horiek kontratatu izana justifikatzen, ezin kasutan. Hori dela eta, erakunde honen iritziz, beharrezkoa da eztabaidatzea nola helduko zaion horrelako beharrik dituzten gazte horien egoerari.

2.2.2.c) Lanbide heziketa

Urtea konpondu gabeko arazo batekin hasi zen: neska-mutil jakin batzuen prestakuntza-premiei zer-nolako erantzuna eman behar zaien, 2015-2016 ikasturtean Oinarrizko Lanbide Heziketa ezarri ondoren. Izan ere, heziketa horrek sarbidea mugatzen die 17 urtetik gorako gazteei edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa ikasi ez dutenei. Gai hori monografia moduan azaldu zen Arartekoak Harresiak Apurtze-ekin eta berarekin elkartuta dauden erakundeetako bi-

rekin (Peñascal fundazioa eta Adsis fundazioa) egin zuen bileran.

Arartekoaren ustez, hezkuntza-sistema formal eta arautuaren erantzuna, agian, [Euskadin Oinarrizko Lanbide Heziketa arautzen duen dekretua](#) garatetik etor liteke. Dekretu horretan aintzat hartzen da egiazaturiko bigarren mailako ikasketarik ez duten 17 urtetik gorako pertsonentzat Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak eskaintzeko aukera, berariazko deialdi baten bitartez; baita ere behar bereziak dituzten taldeen beharretara egokitutako lanbide heziketako prestakuntza-eskaintzak ezarri eta abiarazteko aukera (bigarren xedapen gehigarria).

Hala ere, egoera horri enplegurako prestakuntzaren azpisismatik eman zaio erantzuna, funts garrantzitsu bat jarri baitu, beharrezko malgutasunaz, profesionaltasun ziurtagiriek lotuta dauden heziketa batzuk garatzeko. Horrela arazo horren berri eman zen ebazpen honen sarreran: [Ebazpena, 2018ko urriaren 31koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2018-2020ko diru-laguntzen deialdia argitaratzen da. Han erabakienez, prestakuntza-programa bat abian jarri nahi du, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriei lotuta, prestakuntza-aukerak sortzeko; era horretan DBH amaitu ez duten eta, zenbait arrazoiengatik, oinarrizko gaitasunik ez dutenez enplegurako prestakuntza jarraitu ezin duten 16 eta 25 urte bitarteko gazteak, honako kolektibo hauen profila dutenak, lan-mundura arrakastaz igaro daitezzen errazteko:](#)

- *Lehen eta Bigarren Hezkuntzako etapak behin baino gehiagotan errepikatu dituzten ikasleak, titulua eskuratu gabe 17 urte egin dituztenak, eta, Oinarrizko LHko matrikula egiteko adina gainditzen dutenez, prestakuntza-bide horretara jotzerik ez dutenak.*
- *16 urte baino gehiago dituztela iritsi diren gazte atzerri-tarrak eta, ondorioz, Bigarren Hezkuntzan eskolatu ez direnez, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituztenak.*
- *Oinarrizko LH hasi duten baina, zenbait arrazoi direla eta, bertan behera utzi dutenak, eta, hara itzuli nahi dutenean, arauzko prestakuntza-ibilbidea aldi baterako eten dutenez hara itzultzerik ez dutenak, eta horrenbestez, enplegarritasuna handitzeko prestakuntza hartzeko aukerarik gabe gelditu direnak.*

2.2.2.d) Eskola-jantokiak

Jantokiei dagokionez, erakundeak honako honen berri izateko aukera izan du: zaintza partekatuak azken urteetan izan duen bilakaeraren eta garrantziaren jakitun egin da Hezkuntza Saila, baita administrazioak zerbitzuak aztertze eta, hala bada, zerbitzu horiek errealitate berriei eta eskaera sozial nahiz familien eskaerei egokitzeko betebeharraren jakitun ere. Izan ere, Hezkuntza Sailak erakunde honi jakinarazi dio ikastetxe publikoetako jantokiak kudeatzeko eredia

aztertzen ari direla, besteak beste, ikastetxeetako zuzendariordezkari, sukalde-langile eta gurasoek osatzen duten batzorde baten bitartez. Lan horretan egindako aurrerapenen arabera, lan hori erabili ahalko da eskoletako jantokietako araudia aldatzeko. Hori dela eta, testuinguru honetan, jantoki zerbitzua erabiltzen duten ikasleek ordaindu beharreko kuotak ere (jasotako laguntzaren eta familia-egoeraren arabera) aztertu ahalko dira.

2.2.2.e) Eskola-garraioa

Eskola-garraioari dagokionez, Arartekoak honako honen berri izan du: Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari buruzko [maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuan](#) egin daitezkeen aldaketa posibleak aztertze konpromisoa hartu du, bi urteko ikasleei eskainitako zerbitzua arautzeko, 2018-2019 ikasturtearen hasieran gertatutako gorabeherak eta gero. Izan ere, familia askok ez dute garraio-aukerarik izan gorabehera hori dela eta.

2.2.2.f) Bekak eta bestelako ikasteko diru-laguntzak

Ikasteko beken eta laguntzen arloko administrazio-prozedurak herritarren kexak eragiten dituzten oraindik ere. Urterik urte gai horren inguruko kezka dagoela erakusten du horrek.

Dena dela, termino kualitatiboetan begiratzen badiogu kontuari, partikularrek kexak jartzeko arrazoiak errepikatu egiten dira; hau da, hezkuntza-administrazioaren erabakiekiko desadostasunetan biltzen dira, bai eta ebazpena emateko atzerapenetan ere, non protagonismo berezia duten gora jotzeko errekurtsoen gaineko berariazko ebazpena idazteko orduan gertatzen diren atzerapenek.

Aipamen berezia merezi du ikasle ijitoen kasuan ikasteko bekei eta laguntzei buruz egin den **ofiziozko jarduerak**. Jarduera horrek bi alderdi izan ditu. Lehenengoa laguntza horiek eskatu dituzten familien errenta zehazteko prozedura aztertze moduari buruzkoa da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenik aurkezten ez badute, eta prestaziorik (diru-sarrerak bermatzeko errentarik) edo gizar-te-laguntzarik jasotzen ez badute. Bigarrena, ordea, honako honi buruzkoa da: ea ziur aski beka baten onuradun izango diren ikasleei hasierako kuotak ordain ditzaten eskatu behar zaien edo ez jantoki zerbitzua erabiltzeagatik.

Bigarren alderdi horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2013ko abenduan hartutako neurriaren berri eman dio erakunde honi. Neurri horren arabera, jakinarazpen bat igorri behar zitzaion ikastetxei, eta jakinarazpen horren bidez, honako hau gogorarazi zen: jantokiei buruzko zirkularrak ahalbidetu duela ikastetxei ziur aski beka baten onuradun izango diren ikasleei kuotak ordain ditzaten ez eskatzea. Hori dela eta, erakunde honek izan daitezkeen irado-kizun edo gomendioak proposatzeko beharra baztertu du, eta, aldez, kuotak kobratzearen inguruko egoera horiei buruz

etorkizunean gerta daitezkeen gorabeherak izapidetzearen alde (banakako kexa moduan) egin du.

Familien errenta zehazteko moduari dagokionez, azkenean, Hezkuntza Sailak jakinarazi du aintzat hartzen ari direla gizarte-zerbitzuek egin ditzaketen txostenak, bazterketa egoeran egoteko arriskuan dauden familiei buruzkoak. Horrenbestez, amaitutzat jo dugu erakunde honen jarduera.

2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea

19. artikulua

1. *Haurra gurasoen, legezko ordezkarien edo bestelako norbaiten kustumazapean dagoen bitartean, estatu kideek beharrezkoak diren legezko, administrazioko, gizarteko eta hezkuntzako neurri guztiak hartuko dituzte haurrak honakoak jasan ez ditzan: edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zabarra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu gehiegikeriak barne.*

20. artikulua

1. *Aldi baterako edo betirako bere familiaratik atera diren haurrek edo beren interesen arabera ingurune horretan egon behar ez dutenek estatuaren babes eta laguntza bereziaren eskubidea izango dute.*

2.3.1. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2018. urtean [179/2018 Dekretua](#), [abenduaren 11koa](#), *Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duena*, onartu da eta 2015. urtean erakunde honek egindako [gomendio](#) askori erantzuten dio, besteak beste, araua bera idazteari. Aipatu dekretuak oso modu zehatzean arautzen ditu familia-harreraren alderdi guztiak, modalitateetatik hasi eta hautatu, pertsona hartzaileen egokitasuna balioztatu nahiz harrera formalizatzeko prozedura artekoa. Horrez gain, pertsona hartzaileen eta harrera duten haurren nahiz beren guraso edo tutoreen eskubideak eta betebeharrak definitzen dira eta aldaketak, aldi baterako etenaldiak eta neurria azkentzea arautu ere bai. Halaber, emantzipazioaren etapari arreta berezia eskainiz, pertsona hartzaileentzat eta harrera duten haurrentzat babes-neurriak, bisiten araubidea, jatorrizko familiarekin erlazioa edo komunikazioa ez ditu ahazten.

Urteko azkeneko aste honetan onartu zen [abenduaren 26ko 188/2018 Dekretua](#), *Euskal Autonomia Erkidegora adingabe atzerritarrak aldi baterako etortzea xede duten giza programei buruzkoa*. Horretan programek izan behar dituzten baldintzak zehazten dira, programak helburuak betetzen al dituen ebaluatu eta egiaztatze jardueraren prozedurez gain.

Jakina denez, Espainian atzerritarren eskubide eta askatasunei eta bere gizarteratzeari buruzko 4/2000 Legearen [Erregulamenduak](#) (joan-etorriak arautzen dituen araua) eskatutakoaren arabera, haurrak aldi baterako zer autonomia erkidegotan onartuko diren kontuan hartuta, bertako gobernuko ordezkariordeak aldeko txostena egin beharko du eta, aldi berean, aurretiaz erkidegoan haurrak eta nerabeak babestearen arloan erakunde aginpidedunak beste txosten bat burutu beharko du. Euskadiren kasuan, erakunde eskudun horiek foru aldundiak dira. Aurrekoetan bezala, Arartekoak xedapen arautzaileen organo idazleari helarazi dizkio aurreko urteetan gaiari buruz formulatu dituen ebazpen edo gomendioak, gogoan izateko.

Beste gai bati eutsiz, urtearen hasieran UNICEF erakundeak harrerari (familian eta egoitzan) buruz 2017. urtearen amaieran argitaratutako txostena aurkeztu zen. [Gelditzeko tokia](#) izenburupean, neurri horren errealitatea 9 autonomia erkidegotan, horien artean, Euskadin du aztergai. Osatzeko azterlanari erantsitako jardun onen eta gomendioen gidak ([Harrera bizi-aukera modura](#)) euskal zerbitzuen aipamen-kopuru interesgarria jasotzen du.

2.3.2. Pozik ez egoteko arrazoiak

Udaletako gizarte zerbitzuek eskaintako arretarekin zerikusia duten erreklamazioak, hau da, lehenengo mailako arreta eta babesgabetasun arin eta neurrizkoekin zerikusia dutenak aztertzen baditugu, arrazoi nagusiak informazio- eta orientazio-eskeen aurrean erantzunik ezaren ingurukoak dira. Horrez gain, informazio-hutsuneak dituzten administrazio-espeditenteei buruzko txostenak entregatzen dira (egiaz, hirugarren pertsonen informazioa) edo hezkuntzan eta gizarte esku hartzeko programan baliozko emaitzarik eza ageri da. Azkeneko eremu horretan ia denak ez daude ados esku-hartzean parte hartzen duten adituek egindako txostenetan euren buruz jasotako informazioarekin (portara). Gai bera planteatu da beste kexa batean Gipuzkoan familian esku hartzeko programa bati buruz. Dena den, aztertutako kasuetan ez da jarduera okerrik antzeman.

Maiz jakinarazten da **beren seme-alaben babesgabetasuna aitortzearekin**, guraso-ahala etetearekin eta foru erakundeak tutoretza onartzearekin **desadostasuna**. Kasu horietan guztietan, kexagileek neurriaren kontra egiteko lege-egoitzara jo edo horren asmoa ageri zuten, beraz, Arartekoaren jardura saihesten zen eske nagusiari zegokionez. Bestalde, erakunde honek ez du iritzirik ematen gai teknikoei buruz, hala nola, guraso-aginpidea edo adingabearen babesgabetasun-maila handiagoa edo txikiagoa. Horiek Arartekoak berezkoak dituen ezagutza-eremuetatik, hau da, zuzenbidearekin bat al datozen zehaztetik at egiten dira. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan jardun izan da, batez ere, neurriaren kontra egiteko eskubidea gauzatzeko administrazio-informazioa eskuratzen edo balioztatzen atzeratu bada.

Familia harreraren neurriak aurten zenbait kexa izan du, bai familia biologikoei jarritakoak, bai harrera-familiek ipinitakoak eta hurrengoan ingurukoak izan dira:

- o Harrera iraunkorrerako pertsona/familia bezala ez egokitzeari buruzko balioztapenak.
- o Hartutako haurrak beste harrerako haurri eraso ondoren, foru zerbitzuaren jarduerarekin desadostasuna.
- o Harreran dauden adingabeekiko hartutako erabakiekin desadostasuna.

Kasu bati buruzko informaziorik jaso ezean, gainerakoetan administrazioak ez du zuzenbidearen aurka jardun.

Aipamen berezia merezi du espediente batek. Horretan Lanbidek egindako errekerimendua aztertzen zen eta diru-sarrerara bermatzeko errentaren eskatzaileak bere ilobaren *kafala* baliozkotzea eta bizikidetz-unitatearen kidetzat hartzea eskatzen zen. Jakina denez, [54/2007 Legeak](#), [abenduaren 28koak](#), nazioarteko adopzioari buruzkoak, aurrez ikusitakoaren arabera, adopzio sinpleek, *kafalek*, harrerak edo adingabeak babesteko bestelako neurriek atzerrian izanez gero, Espainian ondoreak izan zitezketen eta familia-harrekin edo tutoretzekin pareka zitezkeen, betiere baldintza zehatzak betetzen bazituzten. Dena den, *kafala* Espainian baliozkoa izateko, erregulatasuna kontrolatzeko izapidea egin behar da, [26/2015 Legeak](#), [uztailaren 28koak](#), *haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duenak*, xedatutakoarekin bat. Kexagileari erantzundakoaren arabera, izapide hori egiteko hurrengo bideak zituen: [15/2015 Legeak](#), [uztailaren 2koak](#), *borondatezko eskumenari buruzkoak*, xedatutako gorabehera-prozedura edo homologatzeko prozedura orokorra ala *exequatur* izenekoa.

Haur eta nerabe **adoptatuei** dagokienez, aurtan bi kexa jaso dira. Lehenengoa izapidetzen ari zen bitartean ebatzi zen eta nerabezaro zailari aurre egiteko egituratutako laguntzak zalantzan jartzen ziren; bigarrean, berriz, desadostasunaren arrazoia adopzioarekiko jarraipenak ziren. Kasu honetan, familiak 2010. urtean hiru haur poloniar adoptatu zituen eta desadostasuna azaltzen zuen aurretik egindako adopzioei buruz 2017. urtean Polonian adopzioak jarraitzeko onartutako errekerimendu berriak aplikatzearekin. Kexagileek kontatutakoarekin bat, Polonian adopzioa egiteko erabili zuten nazioarteko adopzioarako ziurtatutako erakundeak adin nagusira iritsi arte adopzioaren osteko jarraipenak egitea eskatzen zien, 2017. urtean onartutako araudiaren babesean, adopzioak egin zirenean indarrean zegoen araudiari jarraiki, adopzioetan hori gauzatu eta bakarrik hurrengo 3 urteetan 3 txosten egin behar zirenean. Nolanahi ere, horiek jada eginak daude. Nazioarteko adopzioarako ziurtatutako erakundeak zioen adin nagusira iritsi arte jarraipenak kasu guztietarako adopzioen arloan Poloniako agintaritzak eskatzen zituela, adopzioa noiz gauzatu zen alde batera utzita. Jarraipenei uko egin ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak, arloan emandako aginpideak betetz, familia kexagileari jakinarazi zion epe laburrean egiten hasten ez bazen, egin gabeko jarraipen bakoitzeko zehapen-prozedura hasiko zuela.

Arartekoak nahasitako administrazioaren aurrean gai bakarra jakin nahi izan zuen: nazioarteko adopzioarako ziurtatutako erakundeak aipatzen zuen legedi-aldaketaren uea

eta horren edukia eta, bereziki, aurretik egindako adopzioe-kiko eragina. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari kontsultatu ostean, horrek kontsulta Nazioarteko Gizarte Zerbitzuari helarazi zion eta foru sailak honako moduan erantzun zuen: Polonian 2017. urtera arte adopzioak jarraitzeko sistema bateraturik ez zegoela eta sistema berria ez zela atzeraeraginez aplikatuko, beraz, bere egunean familiak onartutako jarraipenak eginak zeudelakoan zegoen. Hala, iragarritako zehapen-prozedurak artxibatu zituen.

Egoitzan hartutako haur eta nerabeen balizko arreta txararen inguruan jasotako zenbait kexa aztertuz gero, ez formulatu arren, azpian neska-mutileen babesgabetasun-egoerari buruz foru-zerbitzuen erabakia zalantzan jartzen zen. Edozelan ere, Arartekoaren esku-hartzea kexagileekin argitu ostean, egoitza-baliabideek eskaintako arreta okertzat ezin zela balioetsi egiaztatu zen. Are gehiago, esku-hartzearekin desadostasuna eta lan-proposamenetan gurasoen lankidetzarik eza, gazteentzat planteatutako heziketa-planak aurrerapausoak emateko eragozpena zen eta heziketa-taldeek ez zuten beti gainditzea lortzen.

Era berean, Arartekoak zentroen barruan erasoak ikertu ditu. Kasu batean, lagunak artekoak ziren, beste kasu batean, berriz, mutilek hezitzaileei eragindakoak. Azkenekoari buruzko jardura ofizios ireki zen ezagutu bezain laster eta izapideen esparruan erakundeko langileek baliabidea bisitatu zuten, erakunde kudeatzaile, administrazio titular eta heziketa-taldeko aditu batzuen eskutik informazioa lortzeaz gain. Txostena ixteko datan oraindik ez da jardura amaitu.

Hurrengo atalak berriaz egoitza-harrerarako baliabideen sareari buruzko egoera eta bakarrik datozen adingabe atzeritarrei eskaintako arretaren egoera aztertzeke dira. Ildo horri jarraiki, zentro hori bisitatzeaz gain, Arartekoak 2018. urtean beste 4 zentro bisitatu ditu.

2.3.3. Egoitza-harrera sarearen egoera

Bakarrik dauden adingabe atzeritarren kopuru handia iritsi den urte honetan, egoitza-baliabideen sarea asko tenkatu da. Beraz, atal hau administrazio publiko eskudunek egindako ahalegina (ekonomikoa eta giza baliabideei buruzkoa) sakonki balioetsita hasi behar da. Baliabideak behar aldakorretara egokitzeko jada aurreko urteetan nabarmendutako jardunbide onari eutsi dio. Egiazta daiteke kasu batzuetan eskeak zentroak gainezkatzten dituela irekitzen diren uean eta baliabide gehiago behar direla, baina zentro berria baldintza egokietan irekitzeak edo esku-hartzeko modu berriak diseinatzeak dituen zailtasunez jakitun izanik, lortutakoa balioztatu behar da eta jarduteko modu horretan jarrai dezaten animatu behar zaie. Nolanahi ere, haurrak eta nerabeak babesteko legediak hala eskatzen du.

Berriz ere azpimarratzen da aurtan nahiz eta okupazio-maillak oso altuak diren, egoitza-plazak esleitzen jarraitzen direla, hau da, berehalako arreta eskaintzen da beharrezkoa den kasu guztietan. Dena den, egoerak haur bakoitzari baliabide egokiena esleitzean zailtasun erantsia gehitzen dio, gorabehera eta beharrak kontuan hartuta programa egokie-

narekin bat aukera onena erabakitzeko plaza libre gehiago beharrezkoak bailirateke.

Egindako moldapenei eutsiz, Arabak bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzat plaza berriak gaitu ditu: zentro berria ireki du (ondo ondoko bi etxebizitza, 15 plazekin) emantzipazio-programarako; lehenengo harrerako baliabidean modulu berria abian jarri du; eta aldi baterako emantzipazioan prestatzeko programa kokapen berrira eraman du.

Halaber, atal honetan kokapen berria ageri da. Bisita-unitateari dagokionez, espazioa zabaldu dute eta behar bezala ikuskatzeko baldintza teknikoak ditu. Nolanahi ere, gune horretan adingabeen eta beren gurasoen edo senitartekoen arteko bisitak eta topaketak egiten dira.

2017. urteko txostenean adierazi ondoren, Gipuzkoako oinarriko programaren bi zentroak ireki ditu eta Ubako premiazko harrera-zentroan plaza-kopurua gehitu du 33ra iristeko, iragarritakoari jarraiki. Gainera, baliabide desberdinetako oinarriko programan beste 11 plaza dago eta 8 emantzipazio-programan (bi zentroetan). 6 plazako zentro berria tutoretzapeko ama nerabeentzat da (3 ama eta 3 haur). Neurri judizialak jarraitzeko programari dagokionez, 8 plaza gehitu ditu eta kokapena aldatu du.

Esklusiboki bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzat, behin-behineko kokapenarekin, emantzipatzen laguntzeko zentroa ireki da. 32 plaza ditu eta 4 modulutan antolatuta dago.

Eguneko zentroak aztertuz gero, Gipuzkoako zentro terapeutikoa ireki du. Horren berri ere joan den urtean ematen zen. Azkenean 18 plazekin ireki du, hasieran aurrez ikusitakoak baino 6 gehiagorekin, alegia.

2.3.4. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia

2017an bulego honen txostenean aipatzen zen bezala, 2016. urtearen amaieratik eta, biziago, 2017ko udaz gero, Euskadira bakarrik datorren adingabe atzerritarren kopurua nabarmenki gehitu da. Hala, urtearen bukaeran 1.721 zeuden (bi urte lehenago baino hiru aldiz gehiago). Iristen direnak gutxitzetik urrun, 2018. urtean gora egiten jarraitu du eta are gehiago tenkatu da harrera-sarea eta, oro har, horretarako erantzute-gaitasuna. Oraindik joan den uztailean arteko datuekin, adingabeen kopurua 886koa zen eta horietatik bi heren Bizkaian zeuden.

Euskadira iristen diren mutil askoren asmoa bertan gelditu eta beren migrazio-proiektua hemen garatzea da. Izan ere, 2017. ekitaldiko memorian Estatuko Fiskaltza Orokorrek eskuraturako datuekin bat, Euskadin babesgabetasun-egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuek bakarrik dauden 695 adingabe atzerritar izan zituzten tutoretzapean eta kopuru hori 2018. urtean zehar gehituz joan da. Datu hori autonomia erkidego bakoitzeko biztanleekin harremanetan jarri gero, honakoa baieztatu dezakegu: arretari erreparatu, Ceuta eta Melilla izan ezik, biztanleko Euskadi dela bakarrik

dauden adingabe atzerritar gehienak dituen (0,317 adingabe 1.000 biztanleko).

Gaia sakonduz eta bakarrik alderdi kuantitatiboari erreparatzen badiogu, Arartekoak urteak daramatza Euskadira bakarrik iristen diren adingabe atzerritarren errealtateari jarraipen hurbila egiten berea duen ikuspegitik: babesik gabeko nerabeak diren neurrian, administrazio eskudunek eskaintzen dieten arretan mutilen eskubideak errespetatzen direla bermatzea. Euskal gizarte guztirako eta, bereziki, hartu eta babestuz arduratzen diren administrazioetarako fenomeno honek suposatzen duen erronkaz jakitun izanik, neska-mutilek planteatutako beharrekiko erantzunik onena egituratzen lagundu nahi du.

Egoera hori abiapuntutzat hartuta, Arartekoak zenbait jardura burutu du 2018. urtean bere aginpideen eremuan.

Babesik gabeko haurrentzako egoitza-baliabideetara Arartekoak egiten dituen **ikuskapen-bisiten** esparruan, bakarrik dauden adingabe atzerritarren hartzen dituzten zentroek arreta berezia izan dute 2017. eta 2018. urteetan, hain zuzen, arreta behar duten mutilen (eta neurri txikiagoan nesken) kopurua asko gehitu baita.

Zornotzako lehenengo harrera-zentroari buruz 2017. urtean ireki ondoren, urtearen hasieran ofizios gauzatutako jardueraren **gomendioa** amaitu zen. Burura ekarriz, egoitza-gune honetan urte hartan gorabehera ugari gertatu zen. Batzuk oso larriak izanik, aldi baterako tokiz aldatzera behartuak egon ziren. Horrez gain, erakundeak oso jarraipen hurbila egin zien. Gomendioaren testuan bertan adierazten denez, espediente hori ebazteko, honako jardura hauek burutu dira:

- 2017ko martxoaren 27an, zentroa bisitatu eta ardura-dunarekin hitz egin zen.
- Bilera saileko Haurren Zerbitzuko arduradunekin.
- Zentroa berriz bisitatzea, 2017ko ekainaren 28an (horrekin batera, bisitaldi bien artean irekitako Izurtzako zentroa ere bisitatu zen).
- 2017ko maiatzaren 3an, informazio-eskaera bidali zitzaion Sailari. Horren bidez, honako hauek eskatu ziren: batetik, Ikuskaritza Zerbitzuak *Zornotzako lehen harrerako zentroan* egin zuen azken ikuskapenari buruzko txostena; eta bestetik, babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzeko dekretuak ezarritako langile kopurua betetzen dela egiaztatzeko metodoari buruzko azalpena.
- 2017ko irailaren 25ean, bigarren informazio-eskaera bidali zitzaion sailari, Bizkaian familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrei arreta ematen dieten egoitza-zerbitzuen okupazioari buruzko datu eguneratuak –baliabidearen arabera banakatuta– jasotzeko.
- 2017ko azaroaren 28an, hirugarren aldiz bisitatu zen zentroa.

- Bilera Gizarte Ekintzako diputatuarekin. Aldez aurretik hitzartutakoa betetz, abenduaren 13an egin zen. Aurreko egunean, arratsaldean, Zornotzako zentroa hustu egin behar zuten, instalazioetan gertatutako sutearen ondoriozko kalteak zirela medio.
- Arartekoaren bilera Gizarte Ekintzako diputatuarekin eta bere zuzendaritza-taldearekin.
- Laugarren bisitaldia zentroan, 2018ko martxoaren 14an, konponketa-lanak amaitu eta zerbitzua berrezarri ondoren.

Nolanahi ere, Zornotza Bizkaian premiazko harrera-programa garatzeko zentro bakarra da. [131/2008 Dekretuak, uztailaren 8koak, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerarako baliabideei buruzkoak](#), xedatutakoaren arabera. Jatorrian 30 plazarako definitu zen, baina jada 2017. urtean baliabidea kudeatzeko hitzarmena berri zenean eta mutilen kopurua handiagoa zenez, horiek 40ra gehitu ziren. Edonola ere, egindako lau bisitaldietan gainokupazio egoera, denboran jarraitua, ikusi zen. Izan ere, 40 baino askoz gazte gehiago bizi ziren zentroan: 53 gazte martxoaren 27an, 56 ekainaren 28an, 104 azaroaren 28an eta 68 gazte 2018ko martxoaren 14an. Horrek esan nahi du puntako aldietan okupazioa % 250 igo dela, aurreikusitako plaza kopuruarekin konparatuta.

Hala ere, Afrikako kontinentetik eta batez ere Magrebetik heltzen diren gazteen kopuru handiak Bizkaiko sarea osatzen duten bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako baliabide guztietan du eragina. Izan ere, Zornotzako zentroa sarrerako atea baino ez da. Zentro berriak ireki arren, bai sortu berri horiek, bai lehendik daudenak gainezka daude, eta ez dira prestatu hartzen dituzten gazteen kopurua hartzeko.

Arartekoak jakin badaki zaila dela ezin kontrola daitekeen eskariari erantzuten ez dioten baliabideak kudeatzea eta foru aldundiko saila ahaleginak egiten ari dela zentro berriak irekitzeko eta oraindik ere Bizkaia heltzen diren gazteak hartzeko. Hala ere, argi dago ez dela nahikoa, adingabe horien eskubideak bermatu behar direla kontuan hartzen bada. Egia da lehenengo aipatutako 131/2008 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak gaitzen dituela foru-organismoak honako hau egiteko: *“dekretu honetako 6. artikuluan arautu diren egoitza-harrerako baliabideak ez diren beste baliabide batzuk prestatu ahal izango dituzte babesik gabeko egoeran dauden adingabeek behar duten zaintza berehala emateko, baldin eta adingabe horien premiazko errealitate berrietan edo sortzen ari diren fenomeno sozialetan sartuta badaude, eta horien dimentsioa dela medio, gaur egun dagoen baliabide-sarearen esparruan erantzun ezin bazeaie”*. Hala ere, xedapenaren bigarren puntuak baliabide horiek salbuespenezkoak, aldi baterakoak eta iragankorrek izango direla azpimarratzen du eta, hori bermatzeko, baliabide horiek martxan egoteko gehieneko aldia ezartzen du (urtebete), beste sei hilabetez luzatu ahal izango dena. Denboraldi horretan, dekretu arautzaileak ezarritako baldintzetara egokitzen diren neurriak –egonkorrek eta behin betikoak– antolatu beharko dira.

Gomendioak aipatzen duen aldian heltzen diren gazteen kopuruak gora egin zuela kontuan hartuta, baliteke salbuespen aldia dagoeneko bukatzeare egotea, hortaz, [ezinbestekoa dirudi plaza gehiago sortzea](#) lehen harrera egiteko, eta horrekin batera, emantzipaziorako prestatzeko programak zein emantzipazio programak garatzeko.

Ebazpenean aipaturiko bigarren elementu garrantzitsua heziketa-lantaldea da. Zentroetako profesionalen taldeak, hezitzaile guztiak, ezinbestekoak dira esku hartzeko. Beren esku dago tratu txarren eta arduragabekeriaren ondoriozko kalteak, kasu batzuetan oso handiak, jasan dituzten haur eta nerabeen bizitza berreskuratzea. Profesionalak bere lana ondo egiten badute, haurren mina, indarkeriaren eta gabezia materialaren, eta batez ere, afektiboaren ondorioak arintzeko aukera sortuko da. Hezitzaileak egotea, konpromisoa, hurkotasuna *sine qua non* baldintzak dira heziketa-lana garatzeko.

Arartekoak ezagutu duen errealitatea hauxe da: esperientzia eta inplikazio handiko profesionalak dira, baina nekatuta daude, denboran barrena luzatzen den tentsio egoeran lan egin behar dutelako; horren ondorioz, beraien egoera pertsonalak okerrera egiten du eta ez daude adingabeei heziketan eta emozionalki laguntzeko moduan. Horregatik, oso garrantzitsuak dira lan hori burutzeko baldintzak: lan egiteko espazio egokiak, ordainsari duinak eta ratio egokiak, baina ez hori bakarrik. Profesional horiek beren lana gainbegiratzeko eta egiaztatzeko esparruak behar dituzte, besteak beste, ikasteko, taldean lan egiteko eta eginkizunak betetzeko ezinbestekoa den osasun psikikoa mantentzeko.

Bidalitako testuari foru sailak hainbat zehaztapenekin erantzun zion erakundearen izenari eta tokiko erakundearen lan-kidetzari buruz. Hortaz, zuzentzari ekin zitzaion. Dena den, Arartekoak zailtasunak ditu argudioak partekatzeko. Euren esanetan, Zornotzako zentroa egoitza-baliabide bat da eta lau moduluk osatzen dute, beraz, adingabe gehiago sartuko lirateke. Puntu honetan gogorarazi behar da egoitza-baliabideak arautzeko dekretuan “modulu” irudia bizikidetzaren txiki modura konfiguratzearen testuinguruan sartzen dela. Helburua haurrek eta nerabeek familiari gehien parekatzen zaion egoera izatea da. Ildo horri jarraiki, arreta eskaini eta garatzeko erreferentziako pertsona helduak dituzte eta euskarri material eta afektiboa eskaintzen diete. Dekretua onartu zenean, aurretiaz zentro batzuek jada bizikidetzaren unitate horietarako egokitzen zuten den tamaina gainditzen zuten eta kasu batzuetan askogatik egiten zen. Hori kontuan hartuta, konponbide modura zentroan bertan moduluak antolatu ziren, orokorrean baliabideetarako proposatutako bizikidetzaren giroa errepikatuz asmoz. Ildo horri eutsiz, dekretuaren artikulua desberdinekin baldintza materialak, lanbide-ratioak etab. aipatzen dituztenean, moduluen kasuan bizikidetzaren unitate txikiei arreta eskaintzen dieten baliabideei aplikatzen zaizkien antzeko baldintzak azaltzen dira: moduluari atxikitako hezitzaileen taldea, modulu bakoitzerako egongela, etab.

Zornotzako baliabidearen egitura fisikoa, erakunde honen iritzi, zaila egiten du moduluen araberrako funtzionamendua izatea. Eraikinean guneak (komunak, jangela, etab.) taldean

eta batera funtzionatzeko banatuak daude eta antolaketa ez dago funtzionamendu-maila autonomo batekin unitate txikietan definituta.

2018. urtean bisitatutako bigarren zentroa, **Zabaloetxe**, modulu desberdinez osatutako zentro bezala definitu zen. Zentroak 6 modulu (72 plaza) finantzatuak ditu, baina bisitaren egunean (uztailaren 17an) 99 mutil zituen 7 modulutan banatuta. Zentroa oso zabala da eta espazio fisikoa luke 12 plazetako beste modulu baterako, baina bakarrik egitura-egoera itzulgarrietan egin behar dela ulertzen du. Guztiak emantzipatzeko prestatze-programa garatzen ari dira, azkenekoa izan ezik. Horrek unitate erdi autonomo modura (emantzipazio-programa) funtzionatzen du. Bere egunean erlijiosoen erkidegoa bizi zen etxean daude. Finantzatutako plazetatik (72) egiazko 99 plazetara mutilen mantenu-kostuak ordaintzen dira, baina ez profesionalekin zerikusia dutenak. Era berean, aurrekontua ohiz kanpoko jardueretarako (udalekuak, trukeak, etab.) ez da iristen, nahiz eta lehen egin.

Hezkuntza-taldean (edo hezkuntza taldeetan, modulu bakoitzak bana baitu) ez dago arazo berezirik, ezta hurrengo sistemekin harremanetan ere: osasuna, segurtasuna, udala. Azkenekoaren kasuan, mutilak inolako eragozpenik gabe errolatzen ditu. Zailtasunik aipagarrienak honakoen inguruan daude:

- Administrazioaren ikuspegitik legeztatze-prozesuetan atzerapena dago; horretan Maroko Kontsultatuari eta Gobernuko Ordezkariordeztari lepora dakizkien arrazoiak elkartzen dira. Lehenengoak pasaporteak egiteko bere irizpideak eta erabakiak ditu. Bigarrenaren kasuan, ez du eragozpenik jartzen egoitza-baimena lortzeko dokumentazioa 9 hilabete errolatua eman aurretik, baina epe hori baino lehen ez du egiten. Horrez gain, foru saileko administrazio-zerbitzuak "gainezka" daude eta berehalako harreragatik behin-behineko zaintza ematea 3 hilabetez luza daiteke.
- Mutilen beharrekin zerikusia duen hezkuntza-, prestatuntza- edo trebakuntza-proposamenik ez dago. Izan ere, gaia jada txosten honen 2.2.2c) atalean landu da.
- Emantzipazio-prozesuetan eta adin nagusia lortzeagatik, babesik gabeko haurrentzako egoitza-zerbitzuetatik irten behar dutenean euskarriari dagokion erantzun publikoa urria eta ahula da. Arartekoak egoera hori behin eta berriz adierazten du urtez urte, beraz, ez da gehiago deskribatuko. Nolanahi ere, bisitaren hilabete berean Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritzak emantzipazio-prozesuekiko laguntza-eredu berria jarri zuen abian, baina txosten hau idatzi den datan ezin izan dira emaitzak ebaluatu.

Halaber, uztailean **Urduñako** zentroa bisitatu zen. Bisitaren egunean 60 mutil zituen emantzipatzeko prestatze-programan eta 12 unitate erdi autonomoan (emantzipazio-programa). Pertsona-kopurua kontuan hartuta, zentroak ez du

moduluen araberako funtzionamendua. Zentro hori 2017. urtean ireki zen bakarrik dauden adingabe atzerritarrek Bizkaiko lurraldera biziki iristen ari zirela ikusirik. Hala, Zornotzako lehen harrerarako zentroan pertsona berriak koka zitezkeen.

Zailtasunak aurreko bisitan azaldutakoekin bat datoz: prestatuntza/trebakuntza aukera urriak, administrazio-prozesuetan atzerapenak eta gehieneko kolokatasun egoeran emantzipatzea. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek hartzen dituzten baliabide guztietarako elementu erkidea da plazak kudeatzearekin zerikusia duten beharregatik esku-hartze prozesuak bizkortzen direla. Gutxiago iritsiko balira eta presioa txikiagoa balitz, lehen harrerarako zentroan adingabearekin lotura-prozesua egingo litzateke, bere egoera eta beharrak balioztatzearekin batera. Modu horretan, daudenen artean baliabide eta programa egokienak zehaztuko lirateke, lehenengo azterketa medikoak, etab. egingo litzazkieke. Azkenik, definitutako programa egokira modu zainduan bideratuko litzazkieke. Dena den, egungo egoerak mutilak beste baliabide batzuetara pasatzea behar du, gutxieneko hezkuntza esku-hartzea burutzeko ia denborarik izan gabe. Presa bera dago emantzipazio-baliabideetara edo beste programa batzuetara pasatzen zaienean.

Urduñako baliabidearekin amaitzeko, mutilen beharrek ahalik eta arreta onena izateari begira, adituek esku-hartzea egitura dezaten ez dago inolako banakako hezkuntza-planik.

2018. urtean bisitatu genuen azkeneko egoitza-zerbitzua **Ubako** premiazko harrera-zentroa izan zen. Jarduera duela gutxi amaitu da eta Gipuzkoako Foru Aldundiari [gomendioa](#) bidali zaio. Ubako zentroa aldeztu aurretik ohartarazi gabe bisitatu zen 2018ko irailaren 14an. Berriaz ezagutu nahi ziren iritsi berriak diren adingabeei hezkuntza-arreta eskaintzeko baldintzak. Horiei zentroko bigarren solairuan hartzen zaie. Bisitaren bigarren helburua zen, alde batetik, iristen diren hainbeste adingaberi erantzuteko zentroa zer egoeratan dagoen, eta bestetik, haiei ematen dieten arretaren kalitatea zein den jakitea.

Hirutan banatu zen bisita: lehenik eta behin, baliabideko arduradunarekin hitz egin zuten; ondoren, bigarren solairuko instalazioetan bisita labur bat egin zen eta, azkenik, erakunde honekin beren borondatez hitz egin nahi izan zuten mutilekin bakarkako elkarrizketak egin zituzten. Xede horrez, Arartekoaren ordezkariak interpretearen laguntza izan zuten. Ohikoa denez, bisita egin eta gero, informazioa Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuko foru arduradunarekin osatu eta alderatu zen.

Zentroa bisitatu zenean, 70 adingabe zeuden bertan, haieztatik 60 bakarrik dauden adingabe atzerritarren programan. Azkenekoen banaketa honakoa zen: 14 lehenengo solairuko 7 gela bikoiztetan banatuta, 46, berriz, bigarren solairuko 8 gelatan eta egongelan.

Zentroko arduradunak azaldutakoarekin bat, solairu bakoitzean egonaldia luzatu da egoitza-harrera sareak gainezka egotearen ondorioz eta gero eta adingabe atzerritar gehiago etortzearen ondorioz. Lehenengo harrerako zen-

troa bertan egonaldi bizkor bat egiteko zegoen pentsatuta hasieran, hau da, adingabeen premiak baloratzeko eta premia horiek erantzuteko egokiena zen sareko baliabide egokiena esleitzeko beharrezkoa den denbora, ez gehiago. Une horretan bigarren solairuan egonaldiak, ordea, bost hilabete irauten zituen eta lau hilabete lehenengoan.

Zentroa argi eta garbi gaintzen betea zegoen arren, gazteek ez zuten arreta txarra jasotzen. Administrazioa ostatu emateko eta elikadurarako oinarritzko premiak bermatzen ari zen. Gauza bera gertatzen ari zen medikuek egin beharreko jarraipen eta dokumentazioaren izapideekin.

Zentrorra egindako bisitako unean ikusitakoaren arabera, bigarren solairuko gazteak lasai asko ari ziren solasean korridorearen eta gelen artean, eta ez zirudien antolatutako jarduera zegoenik. Arartekoko taldeak egiaztatu ahal izan zuen jarduera bakarria honako hau izan zen: hiruzpalau gazte gaztelania ikasteko beren gelan betetzen ari ziren banakako fitxa batzuk; haien bidez, sortzen zitzaizkien zalantzak argitzen zituzten. Ildo horri eutsiz, bisita egin zenean arazo nagusia zentrok bigarren solairuan egonaldiak eta bertako baldintzak ziren. Bizia gela eta jangelaren artean igarotzen da. Egoera hori luzatzen da lehenengo solairuko gazteren bat sarearen barruan beste egoitza-harrerako baliabide batera bideratu eta plaza hutsik gelditzen dena arte. Une horretan jarduerak egiten dituzten taldeetan parte hartzen hasten dira. Bigarren solairuan dauden bitartean, interesa duenak baino ez ditu betetzen gaztelania ikasteko fitxak.

Bestalde, arreta emandako pertsonen bolumen horrekin ere ez dirudi harreraren hartutako adingabe bakoitzari jarraipen pertsonalizatu bat bermatzen zaionik; izan ere, erakunde honetara helarazitako informazioaren arabera, tutoretzak ezin dira banaka egin taldeka baizik.

Bistan da, erakunde honen aburuz, adingabe gutxiago egonez gero eta itundutako plazen arabera jende kopurua balego zentroan, harreraren hartutako adingabeen eskaintza jardueren programazioa eta hezkuntza arloko arreta bakoitzaren premiei emandako erantzuna egokia izango zela, Arartekoak azken urteetan Ubako zentroan egindako jarraipen eta bisitetan ikusi ahal izan den moduan. Aurreko atalean azaldutakoaren arabera, zentro berriak irekiko dira eta, ondorioz, Gipuzkoako baliabideen sarea zabalduko da. Beraz, pentsa liteke epe laburrean agertokia hobetuko dela.

Gaintzen okupatuak daude eta bigarren solairuko gazteek prestakuntza- eta aisialdi-jardueratan parte hartu behar ko lukete, baina, gainera, ebatzpenak bestelako hobe-kuntza-elementuak lantzen ditu, besteak beste, ondorengoak: Gipuzkoara iristen direnean gazteei ematen zaien informazioa zaintzea (erabakiak hartzeko informazio errealista eta harrera- nahiz babes-mezua batera ditzaten), hartutako adingabeen eta beren familien harremana sustatzea eta zentrok profesionalen osasuna zaintzean adi egotea, bereziki, denboran estres eutsiaren ondorei dagokienean.

Familia-erreferentziarik gabeko adingabe atzerritarren egoerari buruzko bigarren informazio iturria, bisitez gain, **3 foru aldundietan arretarako aurrez ikusten diren zerbitzu eta**

programetako gizarte-erakundeekin eta arduradunekin bilerak dira. **Batzuetan teknikariekin eta beste batzuetan politikariekin biltzen da.** Hala, maiz elkartzen da SOS Arrazakeriak Gipuzkoa erakundearekin. Aurten, berezitasun modura, Arartekoaren langileen eta Uba zentroan denboran ez oso urrun egon ziren neska-mutil erabiltzaile ohien arteko topaketa bultzatu da. Bisitek ere beste gizarte-erakunde batzuekin harremana eskaintzen dute, bisitatu diren 4 zentroak gizarte erakundeek (Landalan, Religiosos Amigonianos, Bizgarri) eta gizarte-ekimeneko kooperatibek (Zabalduz) kudeatzen baitituzte. Dena den, erantzukizun publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten heinean, beren zereginari leial eutsiz, gune hauetan, neurri handian, administrazio publikoaren ikuspegia eta posizioa jakinarazten dituzte. Hiru foru aldundietan haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzuekin komunikazioa jariatzen da.

Aurrez egindako adierazpenetan Arartekoak aitortu du dagoeneko, besteak beste, **fenomeno orokor konplexu baten aurrean gaudela -prozesu migratzaileena, eta haren sartzan da laguntzailerik gabeko adingabe atzerritarren mugimendua-; fenomeno horren barnean eragile asko daude, tokiko ikuspegitik aldentzen dena eta ikuspegi zabalagoa behar duena.** Arrazoi hori dela-eta, behin baino gehiagotan iradoki du gogoeta partekatua eta erantzun solidarioak egitea Euskadin; izan ere, esparru horretara bidera ditzake bere gomendioak eta, aldi berean, estatuko eta Europako kideei proposamenak igortzen zizkieten elkartasun eta zuzentasunaren klabe berean.

Lan-ildotik horretan kokatzen da uztalean Andaluziako herritarren defendatzaileari eskaintutako erantzuna honakoa eskatu zuenean: *“bakarrik dauden adingabe atzerritarren fenomenoan autonomia erkidegoen inplikazioa sustatzea”* eta *“autonomia erkidegoetako nahiz ministerio aginpide-duneko (edo Migrazioari buruzko Estatuko Idazkaritzako) arduradun politikoen artean migrazioari buruzko topaketa/konferentzia sektoriala bultzatzea. Bidezkoa bada, herritarren defendatzaile hartzaileen ordezkariak ere egon daitezke. Helburua migrazio-fluxu hori ahalik eta ongien banatzea da, baliabide nahikoak dituen harrera-sistema duina egituratzearekin batera”*. Jakinarazitakoaren arabera, euskal administrazioa asmo horrekin elkarrizketak hastearen aldekoa zen. Izan ere, Haurrei buruzko Erkidegoen arteko Batzordea (autonomia erkidegoak eta ministerioa) biltzea eskatu zuen eta hala egin zen irailaren hasieran. Erantzukizun partekatua eta banaketaren proposamenaz gain, euskal administrazioak horietarako irizpideak aurkeztu zituen. Lander desberdinen artean errefuxiatuak banatzeko Alemaniak erabilitakoekin berdina ziren: diru-sarrera fiskalak (kasu honetan, % 50eko garrantziarekin) eta biztanleak (% 30eko eragina). Horiei langabeziaren tasa gehitzea proposatzen zen, % 20ko haztapenarekin.

Andaluziaren ekimenak bigarren ondorioa izan zuen, irailean Valentzian egindako herritarren defendatzaileen koordinazio-jardueratan erabaki baitzen 2019. urteko jardunaldietan hausnarketa-lan erkidea bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari eta administrazioek (estatukoak eta erkidegoetakoak) emandako erantzunari buruzkoa izatea.

Denboran aldi berean eta Parisen ENOC Haurrak Defendatzeko Europar Sarearen topaketari zegokion esparruan, Europar Parlamentuan haurren eskubideei buruzko taldeen arteko koordinatzaileari Espainian eta, bereziki, Andaluzia, Katalunia eta Euskadiren ikuspegia aurkeztu zitzaion bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoeraren inguruan. Nolanahi ere, informazioa interes handiz jaso zuen. Bestalde, ENOCen Batzarrak erakunde-aitorpena onartu zuen [haur etorkinek duten hezkuntzarako eskubideari](#) buruz. Horren barruan, lurraldean familia-erreferentziarik ez dutenak ere sartzen dira.

Erakunde honek jada aurreko txostenetan aipatu du 16 urtetik gorako adingabe atzerritarrek trebatze-prestakuntzara iristeko azaltzen dituzten zailtasun berdinak dituztela familia-erreferentziarik ez duten gazte atzerritarrek. Aurten Haresiak Apurtuz koordinakundeak (Peñascal fundazioaren eta Adsis fundazioaren eskutik) ekarri du arazoa erakundera. Txostenaren 2.2.2.c) atalean ikus daiteke.

Emantzipatzeko zailtasunek eta beren bizien hain une erabakigarrian gazteei eskainitako laguntzan antzeman diren urritasunek, Eusko Legebiltzarrari Arartekoak egiten dizkion txostenetan behin eta berriz adierazitakoek, ofizioz ikerketa irekitzea sustatu dute. Oraindik jardunean dago eta ondorioaren berri hurrengo urteko txostenean emango da.

2.3.5. Genero-indarkeria jasan dezaketen haurrak eta nerabeak

2018. urtean hainbat eztabaida-gunetan Arartekoak iritzia eta hausnarketa partekatu ahal izan du haur eta nerabeen arreta-beharrari buruz, genero-indarkeria jasanez gero. Bai Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako guneetan (*Adingabeak eta genero-indarkeria*), bai Herrialdeko Justizia Auzitegi Nagusiak bultzatutakoetan (*Zuzenbideak generorik al du?*), baita [herritarren defendatzaileen koordinazio jardunaldietan](#) ere, aurten genero-indarkeriari buruzkoa izan baita, Arartekoak azaldukoarekin bat, haurren eskubideen inguruko konbentzioaren printzipioen babesean, oinarritzotzat jotzen ditu prebentzioa eta haur horiek antzeman eta horiekin esku-hartzea. Horretarako, hurrengoak beharko lirateke:

- Esku-hartzearen une eta eremu guztietan haur guztien (12 urtetik beherakoak barne) ahotsa eranstea, beharrek zehaztetik beren lehentasunak kontuan hartzea bitartean. Osasuna (pediatrik), polizia (salaketa), lege-arloa (neurriak, FTP, etab.), gizarte zerbitzuak, eskola, etab.
- Haur eta nerabeekin harremanetan dauden profesionalak prestatzea ohiz beren bizietako eremuetan (eskola, pediatrik, etab.), jasandako indarkeriaren ondoreak "ikusten ikasi" eta hobe antzemateko.
- Profesionalen eta sistema publikoen (segurtasun-gorputzak, eskola, haurrentzako gizarte-zerbitzuak, emakumeentzako gizarte-zerbitzuak, fiskaltza...) arteko informazio- eta komunikazio-kanalak hobetzea.

- Haurrentzako justizia lagunkoian aurrerapausoak ematea, europar zuzentarauen ildotik eta delituaren biktimari buruzko estatutuaren legea garatzeak eskaintzen duen esparruan.
- Lege-eremuan, familia-topaketaren puntuetatik jakinarazitako informazioak kontuan hartuta, kautelazko neurriei eta eginbideari buruzko hausnarketa egitea.
- Emakumeen arretarako gizarte-zerbitzuek eta babesik eza duten haurrentzako arretakoek partekatzen dituzten esku-hartze proposamenak, zerbitzuen arteko lan-kidetza- edota koordinazio-lanaren gehieneko lekuko modura, ohiz erakunde berekoak baitira.
- Eskubideak gatazkan dauden egoeratan (gurasoen eskubideak vs haurren eskubideak lege-epairik ez dagoenean, salaketarik gabe eta bizikidetzat mantenduz) erabakiak hartzeko, zuzenbideak irmoki eusten dituen irizpideak partekatzea.
- Indarkeria matxistaren biktima den haur eta nerabeen kopuruari buruzko errealitatea zehazkiago zenbatzeko datuak eta adierazleak jaso eta sistematizatzea.
- Haurrek eta nerabeek indarkeria jasan ondoren, laguntza psikologikoa eskaintzeko eta kaltea lantzeko esku-hartze terapeutikoa bermatzea.
- Haur eta nerabeentzat prebentziozko programak gehitzea, bereziki, heziketa afektibo-sexualarekin eta harremanetan tratu onarekin zerikusia badute.

Hobekuntza-proposamen horietako batzuk jada azaldu ziren 2017ko irailean Gorte Nagusietan [genero-indarkeriaren aurka adosturiko Estatu Itunean](#), bertan onartutako 213 neurrien artean. Hala ere, horiek gauzatzeko premia handia izanagatik ere, batzuk bakarrik garatu ditu [abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege-dekretuak](#), genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoak. Genero-indarkeriaren eraginpean dauden neska-mutilak babestera bideratuta dauden neurri horien artean, [Kode Zibilaren 156.](#) artikulua aldatzea azpimarratu nahi dugu, izan ere, bereizi egiten ditu neska-mutil horiekin egiten den esku-hartze psikologikoa eta guraso-ahala gauzatzea; horrela, arreta psikologikoa jasotzeko, ez da beharrezkoa guraso erasotzailearen baimena.

Alabaina, Euskadin lan horretan aurrera egiten jarraitu behar da, kaltetutako neska-mutilak hobeto babesten eragin dezaketen berezko eskumen guztiak baliatuz. Horretarako, ibilbide-orri egokitzat jotzen da *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioan* erakunde arteko talde teknikoak 2016an teknikoki adostu zuen lan-plana. Arartekoa 2011. urteaz geroztik ari da plan horretan parte hartzen, eta hori garatu eta ebaluatu egin beharko da. Testuinguru horretan, aipagarria da Araban egin duten genero-indarkeriaren adingabe biktimentzako protokoloa. Hori idazteko batera aritu dira Adingabe eta Familiaren Arloko profesionalak eta Genero Indarkeriaren Zerbitzuko adituak. Halako motako

ekimenak erreferentzia izan daitezke gaian ardura duten bes-telako erakundeetarako.

2.3.6. Sexu abusua

Joan den urteko txostenean aipatu genuen bezala, sexu-abusua, oro har, sexu-indarkeria ez da atal honek aipatutako gizarte-zerbitzuek soilik kudeatu behar duten kontu bat. Indarkeria honek babestuak izateko haurren eta nerabeen eskubidea urratzen du. Horretaz zalantzarik ez dago. Izan ere, eskubide horiek atalaren sarrera modura aipatzen diren [haurren eskubideei buruzko konbentzioaren](#) artikuluetan adierazten dira. Gainera, Haurren Eskubideetarako Batzordeak gogorazitakoari jarraiki, haurren sexu-abusua haurrekiko tratu txarren modu larria da.

Haurren sexu-abusuak hauteman eta horietan esku-hartzean, baita biktimak lehengoratzeko tratamenduan ere ahuleziak egiaztatu dira eta, ondorioz, Arartekoak, egoera larri horiekin kezkatuta dagoenez, arazoa ikusarazten laguntzeko eta erantzun publiko hobekak bilatzeko lanean jardun du. Hala, uztailen, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen esparruan antolatu zen *“Haurren sexu-abusua. Gizarte guztia interpelatzen duen errealitate konplexua”* ikastaroa. Izenburuarekin jada aditzera eman nahi zen arlo ugari dituen fenomenoaren izanik, eragile eta erakunde publiko eta pribatu desberdinek esku hartu behar dutela, beren zerbitzuek eta programek ardurapean dituzten gaiengatik, sexu-abusuak prebenitu, antzeman, horietan esku hartu eta egoera lehengoratu baditzaizkete.

Aurkezpenean aipatu zen bezala, ikastaroak *“hausnarke-ta- eta truke-gunea izan nahi zuen adituentzat eta sektore desberdinetarako. Sentsibilizazio, konpromiso eta interes er-kidearekin haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriaren kasuetan ezagutza eta esperientzia partekatu nahi ziren pre-bentzioaren, antzematearen eta esku hartzearen eremuetan. Helburua estrategia partekatua berreraikitzeke abiapuntua zehaztea zen, gero, haurrei eta nerabeei begira jardun ego-kiak eta tratu ona garatzeko”*. Zehatzago izanda, ondorengoak bilatu nahi ziren:

- Sexu-indarkeriari buruzko egoeren ezaugarri nagusiak eta haurrengan nahiz nerabeengan utz ditzaketen ondorioak ezagutzea.
- Heziketa afektibo-sexualarekin zerikusia duten faktore babesleak ezagutu eta indartzea.
- Haurren artean sexu-indarkeriaren adierazleak identifikatzea.
- Psikologiaren eta auzitegiaren ikuspegitik egoerak behar bezala ebaluatzeko jokabideei buruzko hausnarketa egitea.
- Oinarrizko eskubideak defendatu eta bigarren biktimizazioarekiko babesteko aurretiaz eraturako frogan nahikoa bermeak nola mantendu ezagutzea.

- Sexu-indarkeriaren kasuetan koordinazioa eta esku-hartzea hobetzeko ezagutzak trukitzea.
- Egoerek sor ditzaketen eragina eta ondoreak minimizatzeke lan terapeutikoa ezagutzea.

Ikastaroa inauguratu zenean, egitarauaren edukiak azaldu baino lehen, Arartekoak aztertze-ikuspegia definitzen zuten bi elementu aipatu zituen. Lehenengoak, hain zuzen, fenomenoaren izenarekin zerikusia zuen. Ikastaroaren izenburuan bertan eta orokorrean hartuta “haurren sexu-abusua” hitz egiten zen, baina, agian, kontzeptu egokiagoa izan zitekeen “sexu-biktimizazioa”. Bertan haurrak edo nerabeak jasan ditzaketen sexualitatearen arloko indarkeria-modu guztiak sartzen dira eta, modu horretan, delitu-mota desberdinak aipatzeko termino berdina erabiltzeak dakarren nahastea saihesten da. Hala, kode zibileko sexu-abusuaren delitu-mota bereizita, ikastaroan haurren sexu-abusua eta sexu-biktimizazioa berdinean erabili ziren aginte desberdinen edo asimetrikoaren testuinguruan pertsonak (heldua edo ez) haurri sexu-edukia duen portaera ezartzen dionean aipatzeko. Ohiz horretarako iruzurra, indarra, gezurra edo manipulazioa erabiltzen dira.

Atariko bigarren gaia analisiaren paradigmatari buruzkoa da. Haurren biktimizazio-fenomenoa lantzeko Arartekoak bere ikuspuntua zuen eta ikastaroan hala jakinarazi zuen. Haurren aurkako indarkeria zen, ez genero-indarkeriaren ingurukoa. Haurren sexu-abusua ez da fenomeno zabalagoaren (emakumeen aurkako indarkeria) modu edo zati bat. Haurren sexu-abusua, haurren sexu-biktimizazioa, haurren eta nerabeen kontrako indarkeria da. Sexu izaerako indarkeria, non haurrak biktimak diren. Pertsona erasotzaileak gizonak eta emakumeak izan daitezke. Arrazoi horrengatik, noski, generoaren ikuspegia fenomenoaren aztertean, konponbideak, programak, zerbitzuak eskuratuko dituzten politika publikoak garatzean sartu behar zen, baina sexu-abusua, horren guztien gainetik, haurren aurkako indarkeria da.

Bi egun bizitan, aditu bikainen lankidetzari esker, ikastaroaren egitarauan planteatutako helburuetan barna aritu zen, fenomenoaren sekuentzia logiko edo “kronologikoa” izan zitekeen horretan. Hasierako bi hitzaldietan fenomenoaren aurkezpen orokorra egin zen eta haurren sexu-abusua eta -ustiapena errotik ateratzeko nazioartean nahiz Europan tresna nagusiak izan ziren hizpide. Ondoren, prebentzioari aurre egin zitzaion eta heziketa afektibo-sexualarekin zerikusia duten faktore babesleak sendotzea izan zuen helburu. Txosten ezberdinak aztertu ziren honakoen inguruan: psikologia eta auzitegiaren ikuspegitik ebaluazio egokia; lan terapeutikoa, biktima errekuperatzean eta pertsona erasotzaile adingabeekin balizko esku-hartzean; informazio- eta komunikazio-teknologiak haurren sexu-biktimizazioarekin duten erlazioa; eta abusua ikuspegi integraletik lantzeko lan koordinatuaren esperientzia arrakastatsua. Horiek guztiek eztabaida mahai-ingururaino eramane zuten eta bertan zeuden osasunaren, zerbitzuen, hezkuntzaren, poliziaren, epaitzearen eta ministerio fiskalaren, gizarte-zerbitzuen eta justizia-administratioari laguntzen dioten eremuetako pertsonak. Administrazio eta gizarte bezala dauden erronken inguruan hitz egin zu-

ten, aurre egin beharko baitiegu haurren eta nerabeen sexu-abusua, sexu-biktimizazioa, errotik ateratzeko. Ekarpen horiek guztiak ikastaroari buruzko [argitalpenean](#) jaso dira eta hizlariak erabilitako [aurkezpenak](#) Arartekoaren web orrian ageri dira eskura.

2.4. Familia babeslea izateko eskubidea

18. artikulua

1. *Bi gurasoek dituzte betebeharrak haurra hazi eta hezteko garaian, eta estatu kideek indar guztiak jarriko dituzte printzipio horren onespena bermatzeko. Gurasoei edo, hala dagokionean, legezko ordezkariari dago-kie haurra hazi eta garatzearen erantzukizuna. Estatuaren ardura garrantzitsuena haurraren interesa izango da.*
2. *Hitzarmen honetan jasotako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu kideek laguntza egokia emango die gurasoei eta legezko ordezkariari, haurra hazteko bete-beharrean behar bezala joka dezaten; halaber, haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuen sorrera bultzatuko dute.*

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezten sustatzen du, familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeke.

2.4.1. Araudi-eta gizarte-testuingurua

Familia babestean zuzeneko eragina duten lege, araudi eta beste tresna batzuen testuinguruari dagokionez, bai Estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, lehendabizi aipatu beharra dago [Euskal Autonomia Erkidegoko familiei laguntzeko erakunde arto IV. plana 2018-2022 aldirako](#). Iaz jada iragarri genuen plan hori, [Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal ituna](#) gauzatzeko bidetzat.

Txosten honen lehen kapituluari dagoeneko adierazten zen moduan, non haurtzaroaren ikuspegi integrala dela-eta Plan honen xehetasunak aurkezten baitziren, han azaldutako sektoreko atal batzuetan handituko da, nahiz eta ardura berezia merezi. Atal horien artean oraingo hau dago, zalantzarik gabe, familiei laguntzeko politiken ingurukoa dena. Orduan adierazten zen moduan, Planaren diagnostikoa eta azpiko printzipioak Arartekoarenak berarenak dira, erreferente egokitzat jotzen dituen. Puntu horretan, eta familia-ikuspegiarekin zuzenago lotuta daudenak nabarmenduz, komeni da euskal errealitate politiko eta sozialeko elementuetako batzuk proposamenen oinarrian gogoratzea:

- Jaiotza-tasaren erorketak jarraitzen du, ugalkortasunaren suspertze hasiberriarengatik izan daitekeena.

- Gazteen ugaltzeko nahiak eta itxaropenak gauzatzeko zailtasunek jarraitzen dute.
- Gazteen emantzipatzeko zailtasunek eta bizitza-proiektu autonomoak sortzeko zailtasunek jarraitzen dute.
- Aldaketak familia osatzeko eta familia ereduak dibertsifikatzeko dinamiketan.
- Lanbide eta familiako bizitza bateratzeko zailtasunak mantentzen dira.
- Genero desberdintasunek eta seme-alaben hazkuntzan erantzukizunak partekatzeke zailtasunek jarraitzen dute.
- Gastu-maila murriztuak familian eta haurtzaroan EBko herrialdeen batez bestekoarekiko.
- Haurren aldekoa ez den prestazio ekonomikoaren sistema, beharrezkoa baino gutxiago murrizten duena pobrezia seme-alabak dituzten familien artean.
- Hobe daitekeen prestazioen eredu bat, lan eta familia bizitza bateratzeko.
- Herritarren laguntza administrazioek seme-alabak dituzten familiei laguntza ematean parte hartze handiago izan dezaten.

Planaren bost ardatzak gauzatzen diren neurri eta jarduketak, eta haien 18 helburuak mota desberdinetakoak dira: sentsibilizazio kanpainak, arautegi garapenak, azterlanak eta ikerketak, zerga pizgarriak, programa pilotuak, prestazio ekonomikoak eta bekak, zuzeneko arreta-zerbitzuak eta hirugarren sektoreko erakundeei emandako diru-laguntzak. Ekintza horiek guztiak bat datoz Arartekoak bere aparteko txostenaren gomendioetan ([Euskadiko familiei laguntzeko politikak: azterketa eta proposamenak](#)) egindako proposamenarekin, eta xede horretarako ezarritako planaren epean lortzen badira, aurrerapen garrantzitsua ekarriko dute euskal familiei emandako laguntzan.

Etxebizitzaren arloaren Planean jasotzen diren neurriekin bat, Eusko Jaurlaritzako [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Gaztelagun](#) programa abian jarri du 2018an, 23 eta 345 urteen arteko gazteei emantzipatzen laguntzeko xedearekin, zuzeneko laguntza ekonomikoak ordainduz.

Horrekin guztiarekin, familia esparruko zenbait gizarte-erakundek ahultasun handiak agertu dituzte asmo handiko plan honetan, hala nola txostenik edo Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari egotzi gabeko ekintzen aurrekontu ekonomikorik ez egotea, edo epe jakinik ez egotea lau urteko indarraldian ekintzak gauzatzeko.

Bestalde, azpimarratzekoa da 2018an egindako erreforma, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen [30/2015 Dekretuarena](#); erreforma se-

me-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko den [uztailaren 30eko 121/2018 Dekretuaren](#) bidez burutu da, eta azken hori 2018ko abuztuaren jarri zen indarrean. Horren helburua [diru-laguntzen zenbatekoa handitzea](#) da, bigarren seme edo alabaren hirugarren urtean jasoko den laguntza berri bat gehituta. Erreforma horrekin, gainera, lortu nahi da [diru-laguntza horien kudeaketa hobetzea](#), egoera berezi iragankorrak (eskaera egin denetik diru-laguntza eman arteko aldiaren zaintza galtzea) aintzat hartzea, eta horrela, diru-laguntzak jasotzeko aldiak zaintzaren benetako iraupenari egokitzea; era berean, aldatu nahi da, [adopzio eta tutoretza kasuetan, diru-laguntzak eskatzeko hasiera](#), aipatutako *dies a quo* edo hasierako eguna, adopzio edo tutoretzari buruzko epaian ezarri beharrean, haurra adoptatzeari edo tutoretzan hartzeari buruzko inskripzioa erregistroan egin eta hurrengo eguna izan dadin beti (Erregistro Zibilean edo, hala badagokio, bulego kontsularrean). Horrez gain, erreformaren bidez, bikote hausturan, [bitartekaritzaren alde apustu irmoa egin](#) nahi da, indarkeriarik gabeko gatazkak konpontzeko modua da eta.

Mantenurako laguntzak ematean, adoptatutako edo etxean hartutako haurren adina kontuan hartzeak berekin dakarren muga kenduz eta familia adoptatzaileak seme-alaba biologikoak dituzten familiekin parekatuz, erantzuna eman zaie erakunde honi hainbat urtetan, baita 2018an ere, azaldu dizkioten kexa batzuei. Horrela, Arartekoaren iritziz, aldaketa horren bitartez Eusko Jaurlaritzak zuzendu egin du familia adoptatzaileentzat bidegabea zen araudia; hala ere, atzeraeraginik ez duenez gero, 2016an adoptatutako neska-mutilek bigarren urtea betetzera mugatzen ditu bere ondorio onuragarriak.

Azkenik, egokia dirudi atal honetan [Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren bigarren atal](#) 2018ko urriaren 3an emandako epaia nabarmentzeak, familiengan eragin berezia baitu. Epaia horrek aitortzen du [PFEZaren Legearen](#) 7.3.h artikuluan jasotako salbuespenak barne hartzen duela, halaber, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ordaindutako amatasun-prestazioa. Horrek ez die bakarrik eragiten jaiotza, erditze anizkoitza edo adopzioagatik nahiz seme-alabak ardurapean izateagatik prestazioei, arauak berariaz aipatzen duelako amatasun-prestazioa, eta ez duelako mugatzen haren norainokoa autonomia-erkidegoek edo toki-erakundeek emandakoei, hots, ez baitu bereizten zer erakunde publikok eman behar dituen prestazio horiek.

Prestazio horiek salbuetsitako errentak direla aitortu izanari berehala erantzun diote hiru foru-ogasunek: lurralde historikoetan ere itzulketak egitea bidezkoa dela aitortu ez ezik, onura hori Gizarte Segurantzaren aitasun-prestazioei ere aplikatu diete. Gauzak horrela, eskabide-eredu berezi bat jarri da prestazio horiek kobratu dituzten pertsonen esku, preskribatu gabeko ekitaldietan bidegabe ordaindu zituzten zenbatekoak itzul diezazkieten eskatu ahal izateko. Zergaren araua aldatuz osatu da lehenengo ekimen hori, prestazio horiek berariaz har daitezten salbuetsitako errentatzat.

2.4.2. Kexetan pozik ez egoteko azaldu diren arrazoiak

2.4.2.a) Familiei laguntzeko diru-laguntzekin zerikusia duten arazoak

Aurten ere zenbait kexa jaso dira seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak ([martxoaren 17ko 30/2015 Dekretua](#)) eta familia eta lana bateragarri egiteko diru-laguntzak arautzeko araudiaren babesean ([ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua](#)) egindako diru-laguntzen eskaerak ukatzeari edo artxibatzeari buruz. 2017ko txostenean adierazi genuenez, horietako askotan prozedurazko arazoak azaltzen dira (Euskadin bizitzen benetan zenbat denbora daramaten behar bezala ez egiaztatzeagatik, adibidez) eta, horien ondorioz, laguntzak ukatzen zaizkie horien onuradun izateko baldintza materialak betetzen dituzten pertsona batzuei. Testuinguru horretan, [Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean](#) ezarritakoa aplikatuz eta kontuan izanda beste agiri-eskakizun batzuk dagoeneko horrela egiaztatzen ari direla, Arartekoak berriz azpimarratzen du jarduten duen administrazioak berak eman beharko litzukeela administrazio-agiri horiek (jada beste administrazio baten esku daudenak).

Gainera, gai horri dagokionez, erakunde honi 2018an aurkeztu zaizkion kasu askotan, kexagileek desadostasuna adierazten zuten, Eusko Jaurlaritzak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 118. artikulua babesean, errekurso bidean aurkeztutako dokumentazioa ezetsi zuelako, laguntzaren onuradun izateko bete behar diren baldintzak egiaztatzeko agiri horiek aurkeztu ezean, laguntza eskatzen zuten pertsonen akatsagatik edo prozedura aurretiko fasean horri buruzko informazio egokirik ezagatik. Testuinguru horretan, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du komenigarria izango litzatekeela aipatu artikulua aplikatzeko zorrotasuna malgutzea, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren erabatekotasun izaera kontuan hartuta. Izan ere, Konstituzioaren 24.1 artikuluan ezarritako zaintza judicial eraginkorra izateko eskubidearekin bat, jurisdikzio horrek aukera ematen du auzibidean ebazpena aurkaratzeko arrazoi berriak alegatzeko, bide administrazioan alegatu ez diren arren. Horrela esan daiteke, hala ere, baldin eta administrazioak –eskaera osatu gabe zegoela ikusita– prozedura nagusian egindako zuzentzeko errekerimendua nahikoa argi izan ez balitz, hasierako eskaera osatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez. Horrela, erakunde honetan aipatu arrazoiak dela eta aurkeztutako kasuak irizpide horri jarraikiz aztertu dira, hau da, honako hauek baloratu: administrazioak laguntzen hasierako eskaeran antzemandako akatsak zuzentzeko errekerimendua egiteko eta interesduneri jakinarazteko modua (argitasuna eta eraginkortasuna). Balorazio horretatik ondorioztatuta da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 118. artikulua egoki aplikatu den ala ez.

Arartekoak 2018an gai horren inguruan emandako ebazpenen artean, azpimarragarria da Arartekoaren [2018ko urriaren 25eko Ebazpena](#). Horren bidez, [Eusko Jaurlaritzaren](#)

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio ezespen-ebazpena berrikusteko eta kexagileak eskatutako laguntza aitortzeko. Hain zuzen ere, kexagileak kargura duen bigarren semearengatik laguntzaren mantentzeko egin du eskaera, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren arabera. Gomendioan modu zabalean jorratu dira, besteak beste, Arartekoak aipatu manua egoki aplikatzeko moduaren inguruan daukan jarrera defendatzeko hartutako oinarriak.

Dena den, Arartekoak aspalditik aldarrikatzen du –eta hori hainbatetan helarazi diogu Eusko Jaurlaritzari– komenigarria izango litzatekeela seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak eskuratzeko izapideak erraztea, diru-laguntza **automatikoki eman dezan**, diruz lagun daitekeen egoera bat gertatzen denean (jaiotza, adopzioa, adingabea hartzea). Ondorioz, administrazio jarduleak berak jaso beharko luke diruz lagun daitezkeen inguruabarrak egiaztatzeko behar den administrazio-dokumentazio osoa. Horrek izapideak arindu eta onuradun izan daitezkeen pertsonen diru-laguntzak eskuratzeko erraztu egingo luke. Eusko Jaurlaritzak aipatu du gaur egun ezinezkoa dela diru-laguntzak lortzeko izapidea automatizatzea, horretarako baliabiderik ez dagoelako.

Arartekoaren ustez, ezinezkoa den bitartean, behintzat, **diru-laguntza lerro biei dagokienez, argiagooa eta herritarrentzat ulergarriagooa den informazio-politika bat** eskatu beharko litzateke. Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du Arartekoak salatutako arazoak konpontzen saiatzeko. Horretarako, **Zuzenean** zerbitzuak informazio argiagooa eta zehatzagooa emango du eta hobeto azalduko ditu akatsak zuzentzeko errekerimenduak, hasierako eskaerari ez bazaio erantsi betekizunak egiaztatzeko behar den dokumentazio osoa. Era berean, hobetu egingo da gai horri buruzko informazio orokorra, Eusko Jaurlaritzak bere informazio-webgunean eskaintzen duena. 2018an jaso diren kexak kontuan hartuta, Arartekoak adierazi behar du arlo horretan hobetzeko tarte handia dagoela oraindik.

2.4.2.b) Familia ugariak

2018an, jarraitu dugu familia ugarien inguruko legediaren aplikatzearekin eta kudeatzearekin, eta bereziki, familia ugariaren titulua izateko bete behar diren lege baldintzen interpretazioarekin zerikusia duten kexak jasotzen hori egitea foru aldundien eskumena da. Aipatutako espedienteetan, iaz bezala, 2018an ere nabarena izan da dibortzioagatik edo banantzeagatik bikotea apurtzen denean familia ugariaren titulua guraso bati edo besteari esleitzearen inguruko kexa eta kontsulten kopurua.

Aurreko txostenetan esandakoarekin konparatuta, gutxi dira arlo horretan egindako aurrerapausoak, iragarritako erreformak, *Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea* aldatzekoak, dirudienez, ez baitu aurrera egiten estatuko legegintza-egoitzan.

Erakunde honen aurreko txostenetan Eusko Legebiltzarren aurrean azaldu diren arazoak herritarrek Arartekoan behin eta berriz aurkezten dituzten kexetan azaltzen dira, eta

haien sorburua hau da: aipatu estatu mailako legearen 2.2 c) artikulua ezartzen du beharrezkoa dela bi gurasoetako bat aukeratzea familia ugariaren kidearen izaera mantentzeko. Horrenbestez, beste gurasoak titulartasuna galduko luke eta familia ugari kanpo geratu litzateke. Gurasoen arteko adostasunik ez badago, bizikidetzaren irizpidea hartuko da kontuan, hau da, familia ugariaren titulartasuna esleitu beharko zaio judizialki zaintza duen gurasoari aitari edo amari. Herritarrentzat zaila da arau hori ulertzea, batez ere, kasu batzuetan, zaintza ofizialki gurasoetako bati esleitu arren, bisiten araubidea zabala eta –seme-alaben heziketa eta ardurari dagokionez– erantzunkidetasuna bi gurasoek dutenean. Beraz, bi gurasoetako bat familia ugariaren onuretatik baztertzea ez da bidezkoa. Arazoa are larriagoa da, ahal dela, estatu mailako erregulazioak, erregimen hori elkarrekin seme-alabak dituzten eta banandu edo dibortziatu egiten diren bikoteen kasuetan bultzatzen duten lege autonomikoak baino lehenagokoa denez, jasotzen ez duen zaintza partekatua araubidea esleitzen denean judizialki.

Arlo horretako legedian hutsunea dagoenez, hiru foru-aldundiek egiten duten kudeaketa eredu erkide moduan –soilik zaintza partekatuari dagokionez bada ere–, Eusko Jaurlaritzak erabaki du halako kasuetan (irizpide homogeen gisa) gurasoek txandaka izango dutela familia ugariaren titulua (urtero aldatuko da). Formula horrek ez du konpontzen zaintza partekatua ez duten, baina, banandu eta gero, seme-alabak zaintzeak eragiten dituen erantzukizuna eta kargak *de facto* jasaten dituzten pertsonen arazoa. Gainera, oraindik ere, sortzen du herritarren atsekabea, arauketa horrekin ez baitira zaintza partekatua aukera hautatu duten gurasoen legezko itxaropenak asetzen. Izan ere, zaintza partekatua aukeratzen duten gurasoek familiei laguntzeko neurri desberdinen onurak izaten jarraitu nahi dute zaintza partekatua araubidea indarrean dagoen bitartean.

Arartekoaren erakundeak, azken urteetan, Eusko Jaurlaritzan planteatu du familien egoera berriak aintzat hartzen ez dituen estatuko legeria aplikatzeak disfuntzioa sortzen duela, eta, gainera, diskriminazio-iturri bihurtu daitekeela bikote berria osatu ondoren jaiotako seme-alaben kasuetan (banandu edo dibortziatu ondoren berriz osatutako familietan); izan ere, gurasoei bezala, azken horiei ere urtero txandakatzearen irizpidea aplikatuko zaienez, urte batean familia ugarien onurak izaten dituzte, hurrengo urtean, aldez, baztertuta geratzen dira.

Arazo horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak, bere garaian, erantzun zion erakunde honi bat datorrela egindako diagnostikoarekin eta era aktiboan lanean ari dela iragarritako erreformak, *familia ugariak babesteko 40/2003 Estatu Legearenak*, aintzat har ditzen disfuntzio horiek. Erreforma horren oinarriak autonomia-erkidegoetan eztabaidatzen ari dira. Azpimarratu behar da Eusko Legebiltzarrek *ekainaren 30eko 7/2015 Legea*, *gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa*, aldarrikatu zuenetik, zaintza partekatua lehentasunezko irizpidea dela bikotekideak banantzen edo dibortziatzen direnean. Horrek esan nahi du zaintza modalitate hori hedatu egin dela euskal familietan, gurasoak banantzen direnean. Eusko Jaurlaritzak adierazi duenez, estatuko legearen erreformari egindako

ekarpenetan, dagoeneko ohartarazi dute kontu horretaz eta aldatu behar den horietako bat dela uste dute.

Hala ere, lehenago aipatu denez, arazoa ez da konpondu, estatu mailako legegintzan ez delako ezer egin arlo honetan gero eta beharrezkoagoa den erreforma bultzatzeko. Horrek, erakunde honen iritziz, aukera planteatzen du Eusko Jaur-laritzak onurak ateratzea ahalbidetzeko beste bide batzuk aztertzeko –EAEren eskumen propioen esparruan behintzat– familia ugari horientzat. Horretarako, banandutako gurasoak dituzten familien eta, hala badagokio, berriz osatutako fami-lien errealitatera hobeto egokituta dagoen araubidea ezarri behar da.

2.4.2.c) Guraso bakarreko familiak

Guraso bakarreko familiak ahultasun egoeran daude gure gi-zartean, familia unitatearentzako errenta jaso dezakeen hel-du bakar bat dagoelako, eta familia mantendu eta zaintzeko ardua pertsona bakar bati dagokiolako. Abiapuntuko egoe-ra zailago horri gehitu behar zaio, kasuen ehuneko handi batean, guraso bakarreko familia horietan emakumea dela familiaren arduraduna. Guraso bakarreko familiak feminiza-tuak izateak, tamalez, are larriago bihurtzen du gaur egun gure gizartean dagoen genero-desberdintasunaren arazoa.

Kalteberatasun egoera berezi horrek hauxe azaltzen du: Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearekin lotutako prestazioei buruzko kexak asko ez badira ere, ho-rrekin zerikusia duten arazoak beste arlo batzuetan agertzen direla, esaterako, diru-sarrerak bermatzearen arloan, etxe-bizitza arloan edo udal tasen eta zergen arloan. Azken gai horri lotuta, Arartekoak [2018ko azaroaren 19ko Ebazpena](#), eman zuen. Horren bidez, Irungo Udalarri gomendatzen zaio berri-ikus ditzan udal kiroldegiko tarifak, guraso bakarreko fami-lien (kide gutxiko familiak barne) sustapenaren ikuspegi integratzailetik. Gomendioan, erakunde honek agerian utzi zuen herri agintariek guraso bakarreko familien berezitasuna aintzat hartzeko neurriak ezartzeko beharra, honako lege ho-netan ezarritakoaren babesean: [13/2008 Legea](#), [abenduaren 12koa](#), [Familiei laguntzekoa](#). Lege horrek familien eta haien kide guztien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bidera-tuta dagoen familia-politika integratua lortzeko esparrua eta oinarriak ezartzen ditu, eta honako hau adierazten du espli-zituki Zioen adierazpenean: *“Gizarte honetan, oinarrizko fa-milia da denetan ohikoena, hau da, gurasoek eta seme-ala-bek osatua, baina bestelakorik ere badago, eta, horregatik, lege hau familia-mota guztiei dago zuzenduta. Dakartzan laguntza-neurri batzuk orokorrak dira, baina era berezian aintzat hartzen ditu egoera bereziki ahulean dauden fa-milien arazoak, esate baterako guraso bakarreko fami-lienak (...); horrenbestez, lehentasuna dute legen honentzat familia horiek.*

Horri dagokionez, merezi du gogoraraztea aipatu legearen 3.2.c artikulua zera adierazten duela *“Berdintasuna eta ekitatea”* izenburupean: *“Euskal herri-administrazioek fami-lia-mota guztiak errespetatu daitezela sustatu behar dute, di-renak direla familien osaera eta tamaina edo familia-unitate bakoitzaren oinarrian dauden bikote-harremanen eta se-*

me-alabatasunaren izaera; eta, ekitate-printzipioa dela bide, babes handiagoa eman behar diete egoera bereziki ahulean dauden familiei”.

Dena den, horren azpian, guraso bakarreko familia kontzep-turik ez egotea da auzia, Euskal Autonomia Erkidego guzti-rako jarduera homogeeneko irizpide bat bermatzen duena. Gai hori familiei laguntzeko politikei buruzko aparteko txos-tenaren gomendioetako bati dagoeneko erantzuten zion, 2.4.1. atalean aipatutakoa: *“Gomendatzen da Eusko Jaur-laritzak ezar ditzala Familiei laguntzeko 13/2008 Legean ezarri-tako helburu nagusiak (bereziki lege horretako 4. artikuluko a eta h ataletan adierazitakoak); horretarako, baliabide edo babes berezia behar duten familiako errealitate desberdinak identifikatuko dira, erakunde maila desberdinetatik familia hauek (guraso bakarrekoak, ugariak, mendekoekikoak, etab.) babesteko egiten diren esku-hartzeen diseinu koordinatua egiteko markoa sortzeko. Horretarako gomendatzen da Eus-ko Jaur-laritzak zehatzago garatu dezala –behar izanez gero tresna araugileen bidez– egoera zaurgarrian dauden fami-lien definizioaren barruan dagoen kasuistika, familia hauei laguntzeko eskumena duten euskal erakunde desberdinek ezarritako neurrien eskubideen titularrentzat marko bateratua sor dadin”.*

Hori, Eusko Jaur-laritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari zuzendutako [2018ko urriaren 22ko ebazpenean](#) barne hartzen den argudioetako bat ere bada. Hor, bere barne irizpidea berrikustea eta inskripzioaren titu-larra eta bizikidetzaren unitatea etxebizitza behar bereziko tal-dean barne hartzea eskatzen da, guraso bakarreko familiei emandako 10 puntu gehigarriak onartuz.

Esparru arautzaile horren beharra [MSPE](#) (bikoterik gabeko ama ezkongabeak) elkarrekin ere igortzen du, ezinbestekotzat jotzen baitu guraso bakarreko familiazat zer hartzen den de-finitzea, guraso bakarreko beste familia egoera batzuetatik bereiziz, hala nola alarguntsaren ondoriozko guraso bakar-reko familietatik, esaterako. Hori guztia familia horiei eskubide eta prestazioak modu homogeenan eta argian emateko pa-rametro bat izateko.

2.4.2.d) Haurduntza subrogatua

Arartekoan gai horri buruzko kexarik ez bada jaso ere, ezin da ezeztatu haurduntza subrogatuaren inguruko eztabai-da juridiko etiko eta soziala gero eta handiagoa dela, baita erakundearen barruan ere. Gai horrek eragiten dituen kez-kek eta zalantzak Arartekoak azaldu zituen Euskal Herriko Uni-bertsitateak 2018ko abenduaren antolatutako mintegiaren in-inaugurazioan emandako [hitzaldian](#). Mintegiaren izenburua hauxe zen: [Amatasun subrogatua legeztatuta behar al da?](#)

Nolanahi ere, **haurdunaldi subrogatuarekin zerikusia duten honako bi elkarrekin** egindako bilera aipatu behar da: [SON NUESTROS HIJOS](#) eta haurdunaldi su-brogatuaren aldeko Espainiako elkarrekin ([AGSE](#)). Elkarrekin Arartekora jo dute kezkatuta daudela adierazteko; hain zuzen ere, beren seme-alabak zaurgarritasun egoeran gera daitezke, haurdunaldi subrogatuaren inguruan informa-

zio desitxuratuak ugaltu eta zabaltzen direlako; informazio horiek seme-alabak izateko teknika hori erabili duten pertsoneri arrazoirik gabe delituzko ekintza batzuk –hala nola legez kontrakoa den emakume-gorputzaren salerosketa, haurrak erostea eta abar– esleitzea eragiten duen gizarte-giroa sortzen dute; horiek, hala ere, inola ere ez dute adierazten haien istorioa eta egoera. Horrek eragin zuzena du haien seme-alabengan, aurreiritzi horiek kaltegarriak baitira haientzat; izan ere, haurrak hazi ahala, informazio horiek eskuratzen dituzte eta urduritasun handia sentitzen hasten dira, haien bizitzako jatorriaren inguruan, baita aita eta amaren fede onaren inguruan ere. Gainera, une hauetan, begien bistakoa da haien seme-alaben zaugarritasuna gizartean, eta –jatorriaren arrazoia dela medio– jazarpenaren biktimak izateko erraztasuna, inguruko haurrek inguruabar horren berri izaten badute. Familia-aniztasunarekiko errespetua –hain zuzen, horrela osatutako familiekiko (beren familiekiko) errespetua– zabaltzen laguntzeko eskatu diote Arartekoari, komunikazio egokia eta –erakundeen eta he-dabideen aldetik– haurdunaldi subrogatuaren arrazoiaren ezagutzarekin bultzatzeko, eta oinarritutako ezagutzaren alde egiteko, ez gaur egungo ezjakintasunaren alde, haien iritziz, azken hori teknika horrek sorrarazten duen arbuio sozialaren arrazoi nagusia delako. Laburbilduz, Arartekoak haurrak kontuan hartuta esku hartzeko eskatzen dute, haur horiek defendatzen laguntzeko, haien jatorria errespetatzen duen politika sustatzeko, eta giza ugalketaren teknika horri buruzko informazio egiazkoa eta egokia zabaltzeko. Arartekoak konpromisoa hartu du haien kezka eta ikuspuntuaren berri zabaltzeko, familia eredu horren ikuspegia ezagutarazi eta familia-politika guztietan kontuan har dadin, EAEko familiei laguntzeko politika guztietan bete behar den familia-aniztasunarekiko errespetuaren printzipioa betez.

2.4.2.e) *Deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak*

2017ko txostenean urte horretan deribazio judizialengatiko familia-topaguneen sarean egindako aurrerapen handien berri eman ziren. 2018an, Bilboko familia-topagune berria irekitzeaz gain, haren “antenak” direlakoak ere ireki dira Durangon eta Gernikan. Horrela, zerbitzua eskualde haue-tara hurbildu da: Busturialdea, Durangaldea, Lea-Artibai, Lea-Ibarra eta Arratia.

Orduan hirugarren “antena” baten irekitzea ere jakinarazi zuten, kasu honetan, Donostiako FT (familia topagunea), Tolosan. Hark, Tolosaldea eta Goierri eskualdeei zerbitzu ematen die, eta lehenengoa arintzeko aukera eman du. Konpromiso hori gauzatu da, hala ere, atzerapen apur batekin, 2019ko lehen hilean.

FTetan egindako jarduerekin lotura estua izanda, eta batik bat, haien xedearekin, **gurasotasun koordinatzailearen** irudia dugu, Arartekoak arreta berezia jarri diona urte honetan. Ardurapean seme-alabak dituzten bikoteen haustura prozeduretan esku hartzen duen aditua da, betiere agintari judizialaren zuzendaritzapean eta zerbitzura, gurasoen arteko harreman gatazkatsuen normalizatzeko eta baketzeko. Horrela, hartu den Gurasotasun Planak araututako egune-

roko alderdietan sortzen diren gatazkak ebazten laguntzen da, hori guztia, dituzten seme-alaben eskubideak babes-teko helburuarekin. Ordenamenduetan eta beste erkidego batzuetan, hala nola Aragoi, Valentzia edo Katalunian nola funtzionatzen duen aztertuta, eta erabilgarritasuna egiaztatuta, erakunde honen asmoa da gogoeta bat sustatzea, Euskadin denboraldi batean ezartzeko.

2.5. Osasunerako eskubidea

24. artikulua

1. *Haurraren eskubidea da osasun-mailarik altuena izatea eta gaixotasunak zaintzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak erabiltzea. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute eta haur guztiek eskubide hori izateko eta zerbitzu horiek gozatzeko aukera izan dezaten lan egingo dute.*

2.5.1. Araudi-eta gizarte-testuingurua

Otsailean Eusko Jaurlaritzak [2010-2010 Arreta Soziosanitarioko Lehenetasun Estrategikoak](#) aurkeztu zituen “ibilbide soziosanitario berri” gisa. Hor, Euskadin arreta soziosanitarioko ereduaren garapenari jarraitutasuna emango zaien filosofia, helburuak eta ekintzak adierazten dira.

Egileek diotenez, “Bi sistema, helburu bat: pertsonak” goiburuean, estrategiak argi adierazten du toki eta osasun sistemen jardueraren garrantzia, ikuspegi integral batekin, jarduketak koordinatutakoak, eta pertsonen eta beraien bizitza kalitatearen behar soziosanitarioei arreta jarzen die-na. Zentzu horretan, pertsonak, eta bereziki xede taldeek, funtsezko elementua osatzen dute 17 proiektu estrategikori lehenetasuna emateko. Horiek, 6 lehenetasun handitan taldekatuta, koordinazioko egituraketa soziosanitarioaren, balibideen, arretaren, prebentzioaren, ebaluazioaren eta berrikuntzaren alde egiten dute.

Hauek dira identifikatutako eta laguntzazko ibilbide soziosanitarioak definitzeko proposatzen diren xede taldeak: nahasmen mental larriko pertsonak; desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak; bazterkeria edo babesgabetasun arriskuan edo egoeran dauden pertsonak; behar bereziak dituzten neska-mutilak; gaixotasun arraroak dituzten pertsonak eta bizitzaren amaiera egoeran dauden pertsonak.

2018. urtean urrats garrantzitsuak eman dira Euskadin haurren obesitatea prebenitzeko Estrategia egitean. Horrekin, jarduera esparru berdina eman nahi zaie eragile publiko eta pribatuei. Haien jarduketak lagungarriak izan daitezke eskual gazte eta haurren bizitza osasungarrirako testuinguru bat sortzeko.

Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluari hasierako zirriborroak aurkeztean (neurri horren publiko hartzailearen iritzia biltzeko parte hartzea eskatu zitzaion), Eusko Jaur-

laritzako Osasun Sailak azaldu zuen estrategia hori egin zuela kezkatuta zeudelako gazteen artean obesitatea eta gainpisua handitu zirelako. Obesitatea oso bestelako faktoreen emaitza da, eta adin pediatrikoan dagoeneko transmitigarria ez den gaixotasun kroniko eta nahasmendu nutrizional eta metabolikorik ohikoena da.

2.5.2. Euskal osasun sistemaren inguruko kexak

Txosten orokorraren II.12. kapituluaren adierazten den moduan, 2018ko urtarrilaren 25ean, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzak, instrukzio baten bitartez, onetsi egin zuen [osasunaren babes integraleko programa](#), [administrazio-egoera irregularrean dauden eta Euskadiko udalerrri batean erroldatuta dauden pertsonen gaixotasunak izan ditzaten ekiditeko](#), [horien osasuna sustatzeko eta osasun-laguntza emateko](#). Sailburuordetza horren helburua izan da osasunaren babes integraleko programa bat sortzea, eta programa hori [Osakidetza](#)ren esparruan aplikatzeko prozedura bat ezartzea, osasun-laguntza bermatzeko Euskadiko udalerriren batean erroldatuta zeuden baina Osasun Sistema Nazionalaren aseguru-dun ez ziren eta, gainera, osasun-aseguru publiko zein pribatua sinatzeko behar adina baliabide ekonomikorik ez zuten pertsonen. Hala ere, atzeritarrek **arreta sanitarioa sartzeko** dituzten zailtasunekin zerikusia duten kexak jasotzen jarraitu dira, txosten honetan, hardunek eta adinekoek sartzeko duten arazoetara mugatu dena. Dena den, kezka gehienak osasun-zentroetan osasun-arreta eskaera kudeatu zituzten pertsonen informazio faltarengatik ziren, beraz, guztiei irtenbidea eman zaie.

Haurdunen arretarekin ere lotuta, zenbait emakumek, beren haurdunaldiaren, erditzearen eta erdiondoaren azken jarraipena egite aldera etxean jasotako osasun-laguntzagarriko gastuak itzultzeko eskaerak ukatu egin ditu Osasun Sailak, eta horrek ere kexa batzuk aurkeztea ekarri du. Amei eta neska-mutilei emandako arreta ez denez eztabaidatu, eta Arartekoak esku-hartzea amaitutakoan administrazioaren jarduketara bidezkoa zela adierazi zuenez, ez gara luzatuko kasu horren xehetasunetan. Izan ere, aurretik aipatutako Txosten Orokorraren kapituluaren 2.2. atalean deskribatzen dira.

Erditzearen arretarekin zerikusia duen azken jarduketa, baina oraindik dagokion administrazioaren erantzunaren zain dagoena, Gurutzeta eta Basurtuko ospitaleetako erditzea artatzeko protokoloak buruzkoa da. Kexagilearen iritziz, ez datoz bat [Erditze Arrunta Artatzeko Estrategian \(EAPN\)](#) eta [Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren Jarduera klinikoko gidetan](#) jasotzen diren zuzentarauekin.

Erabiltzaileen eskubideen esparruan, azkenik, esfinterrak kontrolatzea eragozten zion patologia larri batekin jaio zen ume baten kasua jasotzen da. Osasun Sailak lau pixoihal bakarrik finantzatzen zituen egunera, eta bere higiene egokirako gehiago behar ziren. Behar berezi justifikatuak zeudela kontuan hartuz, Arartekoak, Administrazioak azkenean artatu zuen kexa izapidetzeko onartu zuen.

Atal hau amaitzeko, berariazko atal bat ez dugunez erabilizko, **osasun publikoa** esan genezakeenarekin lotuta dauden pare bat kexa jasoko ditugu hemen: bat, estanko batean haurtzentzako jostailuen salmenari buruzkoa, eta beraz, haurrek tabakoarekin duten iritzian izan dezakeena eraginari buruzkoa; bestea, dantzaleku batek antolatutako nerabeentzako festa batean egindako pipa eskaintzari buruzkoa.

2.5.3. Haur eta gazteen buru-osasuna

Gaixotasun mentala duten haur eta nerabeen arretarekin lotutako kexarik ez bada egin, Haur eta Nerabeen Bulegoaren jardura handia izan da gai horretan. Alde batetik, [ENOC Haurrak Babesteko Europako Sarearen](#) (ikus 4.1) lan-xedea izan delako, eta bestetik, gaixotasun mentala duten pertsonen senideen edo pertsonen gizarte erakundeekin izandako lankidetzaren harremanarengatik.

ENOCen barruan egindako lana amaitutakoan hauek egin dira:

- 1) Sarea osatzen duten herrialdeetan gaixotasun mentala duten haurren gizarte-zerbitzuen eta osasun eta hezkuntza arretaren egoerari buruzko [konparaziozko azterlan](#) bat (ingelesez eta frantsesez), hitzemandako eskubideak kontuan hartuz egindakoa. Ez da nabarmendu behar alderatutako diagnostiko hauek duten garrantzia, izan ere, zailtasun berak, eta antzeko testuinguruetan aplikatzeko jarduerak erakusten dituzte.
- 2) [Erakunde aitortpena](#), diagnostikoaren ondoren, beren herrialdeko gobernuari, Europako batzordeari eta Europako Kontseiluari egindako gomendio nagusiak adierazten dituenak.

Dei generiko baten mendean, neurri egokiak abian jartzeko, haurrek eta nerabeek osasun-mailarik handiena izateko eta gaixotasunak tratatzeko zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea bermatzeko, aitortpena haien behararekin lotuta dauden gomendioak aipatzen joaten da:

- Osasun estrategia bat ezartzea. Hor, berariazko jardura plan bat definituko da, osasun mentalari buruzkoa, laguntza zerbitzuen sare egoki batekin.
- Osasun mentalari buruzko legedia, araudia eta irizpideak garatzea, giza eskubideetan oinarritutakoak.
- Gaixotasun mentalarekin lotuta dagoen estigmaren aurka borrokatzea.
- Eskola inklusibo eta osasungarriak sustatzea.
- Zerbitzu espezializatuak, diziplina anitzekoak eta erki-degoko ikuspegia dutenak garatzea.

- Haur eta nerabeek osasun zerbitzuetan ditzuten eskubide guztiak errespetatzen direla bermatzea, barneratze egoeretan.

Sareko gazte ordezkariak (ikus 3. kapitulua), bestalde, beren gomendioak ere igorri zituzten, eta antzeko gaietan arreta jartzen badute ere, beraiek zuzenean egiten dituzte.

Gaixotasun mentalen bat duten pertsonen senideen edota pertsonen gizarte erakundeekiko lankidetzari dagokionez, nabarmendu behar da urtean zehar [AVIFES](#), [ASAFES](#) elkar-teekin eta biak dauden [FEDEAFES](#) federazioarekin egindako lana. Lehenengoaren kasuan, zeregin garrantzitsua izan du Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseiluak aurretik aipatutako Europako programari ekarpena egiteko burutu behar izan zuen gogoetan. Profesionalen topaketak eta beste biek antolatutako lan mintegiek ezagutza eta informazioa eguneratuta mantentzeko aukera ematen dute. Horrez gain, erakunde horrek, iritziak eta proposamenak alderatu ditzake.

2.5.4. Garapen arazoa duten adingabeen arreta goiztiarra

Arreta goiztiarra emateko euskal ereduaren ezaugarria haurren beharrei modu integratzailean heltzea da, osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuen sistemen elkargunea abiapuntu. Txosten honetan, Arartekoaren jarduerari arreta goiztiarrari dagokionez atal honetan azaltzea erabaki da, hala ere, gaiaren izaera partekatua dela eta, gizarte-zerbitzuen jarduerari buruzko atalean, baita hezkuntzari buruzkoan ere, jaso liteke.

0 eta 6 urte bitarteko neska-mutilei eskaini zaien arreta goiztiarrari buruz aurrean jaso diren hiru kexa bakarrak arrazoi hauengatik izan dira: esku-hartzea hasten atzeratzea, izapidetzean zuzendu zena; 6 urte betetakoan arreta amaitzearekin ados ez egotea, ordura arte jasotakoaren jarraipen gisa emandako arretak ez zuelako antzeko kalitate-mailarik; Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak egindako Arreta Pertsonalizatuko Plana berrikusi ondoren, fisioterapia orduak txikiagotzearekin ados ez egotea. Bi kasu horietan Arartekoak ez du kontuan hartu zuzenbidearen aurkako jarduerari bat egon denik.

2.6. Adingabe arau-hausleen eskubideak

40. artikulua

1. *Lege penalak haustea leporatzen zaion haurrari edo hauste horren errudun izatea salatzen edo deklaritzen zaionari bere duintasun eta adonearen zentzua suspertu behar zaizkio, giza-eskubideak eta besteen oinarrizko askatasunak errespetatzen dituzten, eta haurraren adina eta birgizarteratzearen garrantzia gogoan izanik, haurrak gizartearen funtzio konstruktiboa har dezan.*

Arlo honen berezitasuna da Arartekoaren jarduketan duela izapidetu ezin diren erreklamazioekin, gure eskumenen esparrutik kanpo daudelako, arrazoi hauetako batzuegatik:

- Partikularren arteko gatazkak, ehuneko garrantzitsu batek familia eskubidearen arloan gertatzen diren desadostasunei erantzuten diena, eta bereziki, ezkontza edo bikote loturaren hausturen esparruan gertatzen direnei. Kasu horietan, alderdietako batek lortutako akordioak edo elikagaien pentsioekin eta seme-alaben eta gurasoen arteko komunikazio araubidearekin lotuta hartutako ebazpenen bat ez betetzeagatik ziren kexak. Arartekoaren eskumen esparrua Administrazioak egindako behin-behineko eskubide-indarkeriekin lotuta zegoenez, esku-hartzea kexagileek auzitegien aurrean zuten eskubideaz baliatzeko baldintzei buruzko aholkularitzara mugatuta egon da. Hori guztia inpartzialtasun printzipioa errespetatuz, eta eraginda zeuden adingabeen interesik handienaren aurrean erantzunez.
- **Estatuko administrazioaren** organoen jardunak. 2018. urtean besteak beste Erregistro Zibilak egiten dituen ziurtagiriak familia errealitate berrietara, eta bereziki, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzetara ez direlako egokitu egindako erreklamazioak heltzen jarraitu dira (ikus txosten honen 2.8.2. puntua). Kasu horietan, kexak Arartekoak [estatu mailan duen homologoari](#) bidaltzen dizkio, informazio garrantzitsuarekin eta, hala badagokio, erakunde honen irizpenarekin batera.
- Auzitegien erabakiak. [Ararteko erakundearen arautzen duen Legeak](#) 13.1. artikuluan argi adierazten du *ez dituela banaka aztertuko epai irmoa edo ebazpen judiziala egiteko duten kexak*, baina hein batean, alde batetik adingabeen Fiskaltzari, eta bestetik, haien eskubideak defendatzen dituzten erakundeei, hala nola Arartekoari, egotzitako haur eta nerabeen babes eginkizunek, praktikan, ohiko informazio trukea eta erakundearen arteko kudeaketak egiten dituen komunikazio kanal irekia ekartzen dute. Behin behineko kudeaketa horiek, *sub judice* edo dagoeneko jurisdikzio bidean ebaztuta dauden gaien inguruko erabaki ororen abstentzio printzipioa errespetatuz garatzen dira, noski.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Salarekin eta Idazkaritzarekin eta Fiskaltza Nagusiarekin lankidetzan ez da bakarrik gertatzen zuzeneko kudeaketen ondorioz, baizik ere gai orokorren inguruan ere, urtean zehar egiten diren lan-bileretan egindakoak. Horren kasua izango genuke laguntzarik gabeko adingabe atzerritarren egoera 2018an, edo haurren sexu abusuaren abortatzea. Bi gai horiei buruzko informazio zabala eman dugu dagoeneko txosten honen aurreko ataletan.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzaren [Lan eta Justizia Saila](#) murgilduta egon den jardueretako batzuk txosten honen beste puntu batzuetan dagoeneko azaldu dira (hala nola familia babesle bat izateko eskubideari buruzkoan).

2.6.1. Gazte justizia

Arartekoan 2018. urtean jasotako kexetan ez dira inoiz aipatu gazteen justizia sistemako zerbitzu edo programak. Hala ere, erakundearen jarduketan ekimenaren barruan eta Torturaren aurkako Mekanismo Nazionalarekin lankidetzan, abenduan zentrorra joan ziren, Urribarriko (Araba) neurri judicialak betetzeko. Bisitaren ondorioak 2019an zehar ezagutuko dira, hala ere, aurreratu daiteke ez zela irregulartasun garrantzitsurik ikusi.

Bulego honen 2017ko txostenean, urte horren hasieran, 14 urte beteta ez izateagatik, eta *adingabeen zehapen erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren* 3. artikulua arabera, adingabeak babesteko arauetan ezarritakoa aplikatzen zaien adingabe arau-hausleen arretari buruzko *azterlan* bat argitaratu zela adierazi zen. Azterlanak, lan egiten ari ziren prozedurak eta elkarrizketatutako eragileek neska-mutil horiei eta senideei emandako erantzuna hobetzen laguntzeko egindako proposamenak deskribatzen zituen. Ikerketa hori hasi zenetik bi urte baino gehiago igaro dira, eta Arartekoak interesgarritzat jotzen du *14 urtetik beherako adingabe arau-hausleen arreta hobetzeko berariazko Plan* bat egiteko konpromisoa, *Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planean* barne hartuta dagoena (81. jarduketa), are gehiago lantzea proposatzen diren alderdiek ondoriozko azterlanean azaldutako gogoetekin antzekotasun handia badute.

2.6.2. Polizia eremuko esku-hartzeak

Polizia esparruari dagokionez, beste urte batez, Durangoko Ertzaintzaren atxiloketa zentroan adingabeak zaintzeko berariazko bulego falta adierazi behar dugu, *urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak*, adingabeen zehapen erantzukizuna arautzen duenak (17.3. art.), ezartzen duen moduan.

Donostiako Udaltzaingoaren atxiloketa-zentro berrian (erakundeko langileek aurten bisitatu dute), berriz, badaude berariazko bulegoak. Kasu honetan, neurriak hartu behar dira atxilotutako nagusiak eta adingabeak toki komunetan elkartzea saihesteko, ziegetara sartzeko ibilbidearen tarte bat eta eremu horretan komunak diren beste eremu batzuk partekatzen dituztelako. Udaltzaingoak ez du adingabeen atxiloketak jasotzeko erregistro berezirik, *uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak*, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzen duenak, hala exijitu arren (3.5. art.).

2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea

31. artikulua

1. *Haurrak atsedean eta denbora-pasako, jolas eta bere adineko aisialdi ekintzetarako eskubidea du, eta hone-*

kin batera, bizitza kulturean eta artetan parte hartzea ere bai. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute.

2. *Estatu kideek errespetatu eta bultzatu egingo dute, haurrak bizitza kulturean eta artistikoan parte hartzeko duen eskubidea, eta horretarako aukera egokiak eskainiko dizkiote berdintasunaren baldintzapean.*

2.7.1. Jolaserako eta aisialdirako eskubidea

Jolaserako eta aisialdirako eskubideari dagokionez, hasiteko, Arartekoak adierazi nahi du kezkatuta dagoela, izan ere, aditu batzuek adierazi dutenez, ez dago eskubide hori gauzatzeko interesik eta, zehazki, haurren gaineko politika publikoetan ahaztu egin dituzte aisialdi politikak. Itxura denez, "Ahazte" horrek Haurren Eskubideen Batzordeari ere eragiten dio. Estatu kideen txosten gehienetan eskubide hori aipatu ere ez da egiten (2013. urteaz geroztik bidalitako txostenen %70etan) eta Batzordeak haiei erantzuteko egiten dituen azken oharretatik %27tan soilik aipatzen da.

Zenbait pedagogo eta pediatrik etengabe ohartarazten dute gaur egungo neska-mutilak gutxiegi jolasten direla, batez ere bat-bateko jolasean eta aire zabalean, eta horrek eragina duela beraien oraingo eta geroko osasun fisiko eta mentalean. Haurren Jolasaren Behatokiko kide batek dioenez, "gizarteak ez du ulertzen jolasa ez dela haurrek goza dezaten (nahiz eta gozarena jolasaren baitan dagoen), bai zik eta osasuntsu hazi daitezten, bada, jolasten ari zarenean, pertsona gisa sozializatzen ari zara, jakin-mina eta burujabetasuna baliatzen, autoestimua sendotzen, erabakiak hartzen, nortasuna osatzen eta bizi garen gizarte likido honetarako beharrezkoak dituzten balioak ikasten". Eta horretan guztian garrantzitsuena ez da jostailuz inguratuta egotea, baizik eta jolastokiak, denbora eta jolaskideak izatea.

2.7.2. Eskola kirola

Arartekoaren iritziz, kezkarria da neska-mutilek bere modalitate ezagunenetan egiten duten kirola hartuz joan den norabidea, zenbait federazio eta kirol klub bere egituratan hartzen ari diren eginkizunaren ondorioz. Erakunde honek egiaztatu duenez, inguruabar horren ondorioz, Eskola Kirolaren esparruan, errendimendu lehiakorrari gehiago erreparatzen dioten jarduerak ezarri dira, eskola kirolaren xede nagusiak diren hezkuntza eta partaidetza balioei erreparatu ordez.

Pribatuak izan edo ez, kirol klubek ezin dituzte hartu beraiek egokitzen dituzten neurriak. Izan ere, erabaki horiek, eta batik bat horiek eragin ditzaketan ondorioak kontuan hartu behar dituzte gure administrazioek, dagokion erakundeak titulartasun publikoko instalazioak erabili nahi dituzte, edo Programan parte hartzeko dagokion baimena behar duenean. Hori horrela den neurrian, ezarritako printzipioei jarraitu behar diete, izan ere, botere publikoak proaktiboki jardutera behartzen ditu, behin-behineko urratzea prebenitzeko eta zuzentzeko.

Horrela adierazi die Arartekok udal eta foru agintariei, horren inguruko kexak jaso dituen lurraldeetan, eta bakoitzak bere eskumen esparruan jardun dezala eskatu die, haur eta nerabeek egiten duten kirola, hezkuntza-parametroen barruan gara dadin, une eta testuinguru guztietan. Zehazki:

- Udalei, beren udalerriko kirol klubei ematen dizkien laguntzak, bai instalazioak utziz, bai diru-laguntza ekonomikoa emanez edo sustatuz, arlo horretako lege-aurreikuspenak errespetatzea ekar dezaten. (ikusi, adibidez, [Arartekoaren 2018ko ekainaren 13ko ebazpena](#). Horren bidez, Gasteizko Udalarari zenbait neurri iradokitzen zaizkio bere instalazioetan egiten den eskola-kirola, une oro eta inguru guztietan, hezkuntza-parametroen arabera gauzatu dadin). Ekimen horiek dagoeneko zenbait herritan egiten dira. Horrela, zentroek eta kirol klubek jardunbide egokien kode bat sinatzen dute, bide zuzenari jarraitzeko.
- Aldundiei dagokienez, lurralde historiko bakoitzean Eskola Kirolaren arduradun gisa, aurreko puntuan adierazitako ekintzez gain, legeak esparru horretan eman dizkien ikuskapen eta kontrol eginkizunak egin ditzaten, ikastetxeek eta kirol klubek Programa horren jarduerak egitean, azken buruan zentzua ematen dieten printzipioei jarraituz egin ditzaten.

Bestalde, Gipuzkoako araudiak kirol anitz egitera behartzen ditu adin txikiko neska-mutilak, kirol-modalitate jakin batean espezializatutako teknifikazio-eskoletan izena eman ahal izateko. Horren gaineko kexak iritsi zaizkigu oraindik ere. Halako kasuetan, kexagileei berriro adierazi diegu administrazioak beste proposamen batzuk garatu ahal bazitzakeen ere, indarrean dagoenak ez duela legeriaren alderdi bakar bat ere urratzen eta. Beraz, Arartekoak ez ditu aztertu zer lehentasun zituen proposamen horrek. Defentsa-erakunde honi eman zaizkion eginkizunen artean ez dago esku hartzeko eredu baten ala bestearen alde egitea; ereduak aukeratzea administrazioaren eskumenetako bat da, bere politikak diseinatzeko. Eztabaida politikoaren eremuan eztabaidatu behar dira horri jar dakizkiokeen eragozpenak. Horren antzeko erantzuna eman genion beste arrazoi honengatik egindako kexa bati: Arabako administrazioak ume bati ez zion utzi bere bizilekukoa ez zen lurralde historikoko klub batean parte hartzen, bere inguruko eta lurraldeko klub batean egiteko aukera zeukalako.

Atal hau amaitzeko, adierazi behar da Arartekoak oraindik kexak jasotzen dituela gai honen gainean: Espainiako Futbol Federazioak agiri-eskakizun bereziak egiten dizkiela atzerrian jaiotako nerabeei federazio-lizentzia emateko. Eusko Jaurlaritzaren sail eskudunak kexa horiei erantzuten jarraitzen du, eta banan-banan eta bizkor ebazten ditu.

2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

2. artikulua

1. Estatu kideek Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak errespetatuko dituzte eta bermatuko dute beren

jurisdikziopean dauden haurrei aplikatuko zaizkiela, alde batera utzita haurren, gurasoen edo legezko ordezkarien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoa, nazio-, etnia- edo gizarte-jatorria, ezintasun fisikoak, jaiotza edo bestelako edozein ezaugarri.

Oraindik ere, zenbait gutxiengoren kontrako bereizkeria egiten da, eta, gutxiengo horien artean -ezin da bestela izan-, haurrak eta nerabeak dira aipatzekoak. Arazo hori egitea da Europar Batasunean, eta, horrexegatik, Europako Parlamentuak gutxiengo horiek errespetatuko direla bermatzeko batasuneko arau berriak eskatu ditu. Hala, Parlamentuak Europako Batzordeari eskatu dio EBko gutxiengoei zuzendutako gutxiengoko estandarrei buruzko [zuzentarau proposamen](#) bat aurkezteko, estatu kideetan bereizkeria saihesteko neurriak barnean eramango dituen.

[Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Jarraipen Batzordeak](#) egiaztatu du bereizkeriak gertatzen direla Espainian ere, eta batzordeak egindako Espainiako seigarren aldizkako txostenari buruzko [azken oharrei](#) jarraituz, berriro adierazi du bereizkeriarik ez egitearen aldeko lege integrala taxutzeko garrantzia. Batzordeak nabarmendu duenez, eskola-bereizketa arazoa da, eta, hainbat kasutan, etxebizitza-bereizketatik eratorritzen da. Hala, Estatuari eskatu dio eskola goiz uzten duten eta bigarren hezkuntzan maila erreplikatzeko duten ikasleen tasak murrizten jarraitzeko. Horretarako, hezkuntza goiz uzteko erabakian eragina izan dezaketen faktore sozioekonomikoak jasoko dituen eta gehien erasandako taldeei beharreko arreta emango dien estrategia bati jarraituko zaio.

[Era Berean sareak](#) egindako azken [txostenak](#) 2017an harturiko 76 kasuei buruzko informazioa jaso du. Kasu horien %76 arrazismoari eta/edo xenofobiari lotuta egon zen, hau da, etnia, jatorri edo nazionalitateagatik bereizkeria edo gorrotoari. Gainerako kasuen %29 -22 kasuri dagokio LGTBIfobia kasutzat katalogatu da, hau da, sexu-orientazio edo -identitateagatik eta generoagatik bereizkeria edo gorrotoari. Arrazismoari eta/edo xenofobiari lotutako kasuei dagokienez, «Migrazioak» kategoriarik dagozkion 42 kasu gertatu dira (kasu guztien % 55), bai eta «Ijito Herria» kategoriarik dagozkion 12 kasu ere (kasu guztien % 16). Puntu honetan, nabarmendu beharra dago ez direla adinaren arabera banatutako daturik jaso programan, baina, kasuen deskribapenari begira, zuzenean eragindako pertsonak adin nagusikoak dira. Hala ere, kasu batzuetan, etxebizitzaren esparruari lotutako kasuetan gertatzen den legez, «zeharka» eragindako zenbait ume daude.

Egindako erreklamazioez gain, Arartekoak [adierazpen instituzional](#) bat egin zuen Tolerantziaren Nazioarteko Egunean, eta erreplikatu zuen beharrezkoa dela guztiok konpromiso irmoa hartzea pertsonen aurkako aurreiritziak eta bazterkeriak sustatzen dituzten hitzaldi eta jardunbideak gaitzesteko.

“Konpromiso hori inoiz baino beharrezkoagoa da orain, Europako gure gizartean ugaritu egin baitira begirunerik eza, xenofobia, ezberdina gaitzestea, baita ere atzeritarren edo kultura-gutxiengoetako pertso-

nen aurkako indarkeria eta larderia erakusten duten ekintzak”.

2.8.1. Atzerritarren seme-alabak

2018. urtean, euskal lurraldera zuzeneko familiarik gabe iristen diren haur eta nerabe atzerritarrei eskaini die Arartekoak berariazko arreta handiagoa (jarduera horren berri ematen da txosten honen 2.3 atalean). Hala ere, atzerritarren seme-alabak beste eremu batzuei loturiko kexetan azaldutako egoera batzuen protagonista izan dira edo horien eragina jasan dute. Horien berri, gutxi gorabehera, hemen emango dugu.

Euskadin egindako pobrezia eta ezberdintasun sozialek buruzko azterketek diotenez, eta Arartekora bertaratu direnek aurkeztutako kexen analisiak egiaztatzen duenez, **baliabide ekonomiko urriak** dituzten seme-alabak dauzkaten familia asko atzerritarrek dira. Jasotako kexak aztertuz gero, egiaztatzen da badaudela pertsona batzuei (eta, bide batez, pertsona horien familietan dauden seme-alabei) atzerritarrek izateagatik bereziki eragiten dieten elementu bereizle batzuk, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemara sartzeko oztopo bihurtzen direnak. Zailtasun horiek -Arartekoak 2017an egindako **txosten-diagnostikoan**, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria emateko kudeaketa hobetzeko proposamenak bildu zituenean, zailtasun horietako asko jaso dira- txosten orokorraren gizarteratzeari buruzko II.4 atalean eta etorkinei buruzko III.6 atalean daude jasota. Edozein kasutan, honako hauek nabarmendu nahi ditugu, jasotako kexa ugariak direla eta: baliabide nahikorik ez dutela egiaztatzeko zailtasunak, eta, atzerritarren kasuan, horrek esan nahi du haien jaioterriaren ondasun-ziurtagiria aurkeztu behar dutela. Hala, saiatu diren arren, Nigeria, Guinea-Konakry eta Ghanatik datozen pertsonen ez zaizkie ziurtagiriak legez onartu haien herrialdeetako Espainiako enbaxadetan, eta jatorri pakistandarra dituztenei zalantza jarri zaie ondare- eta ekonomia-egoera egiaztatzeko haien herrialdeko administrazioak egindako agiriaren legezotasuna, faltsifikazioak egin direnari buruzko hainbat salaketa direla eta. Bestetik, espainiar nazionalitatea lortu dutenentzat edo Britainia Handikoak diren pertsonentzat ezinezkoa da agiri hori lortzea.

Hezkuntzaren esparruan, txostenaren 2.2 atalean, erakunde honek egin duen -2018an ere- jarraipena dago jasota. Hain zuzen ere, jarraipen hori zenbait ikastetxetan gizarte egoera ahulean dauden ikasle asko daudenari lotutako egoerari buruzkoa da, eta ikasle horien ehuneko handi bat haur eta nerabe atzerritarrek osatzen dute. Alde horretatik, interesgarria da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EAEn ikasle atzerritarrek eskolatzeari buruzko txostenean aurkeztutako egoeraren diagnostikoa aipatzea, bai eta esparru horretan identifikatutako errokeni erantzuteko aurreikusitako jarduketak ere. Euskal administrazioak bere gain hartutako konpromisoa duenez, Arartekoak jarduketara horien ezarpena eta emaitzak aztertuko ditu arreta handiz datozen hilabeteotan.

Derrigorrezko hezkuntzaren ondokoaren esparruari begira, atal berean, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Po-

litiketako Sailak Lanbideren bitartez emandako erantzun bat dago jasota, hain zuzen ere, 16 urte baino gehiago izaki Euskadira datozen nerabe eta gazte atzerritarrek prestakuntza kualifikatzailea jasotzeko dituzten zailtasunei emandako erantzuna.

Haurtzako **gizarte zerbitzuek** babesgabetasunaren inguruan egindako jarduerari dagokionez, 2.3. atalean *kafala* homologatzeari lotutako egoera baten esku-hartzea dago jasota, eta bidaiderek gabeko adingabe atzerritarren egoeraren berri eman da xehetasunez, bai eta haiek dituzten zailtasunen eta haiei arreta emateko Euskadin dauden bitartekoen berri ere.

Atal honetan aipatu behar da, gainera, euskal administrazioek «joan-etorrian» dauden etorkinei emandako erantzuna (irakurri txosten orokorraren III.7 atala). Etorkin horiek, Andaluziako kostaldetik datozenak, Espainia zeharkatzen dute Europako hainbat gunetara joateko asmoz. Etorkin asko udako hiletan etorri direla erregistratu da, eta, hortaz, pertsona horiei osatua eta arreta emateko baliabideak eman daitezkeen eskatu da. Kasu gehienetan, baliabide horiek erabili dira seme-alaba adingabeekin bidaiatutako familiei arreta emateko.

Osasunari buruzko 2.5 atalean, emakume atzerritar batzuek haurdun daudenean atendituak izateko hasieran eduki dituzten zailtasunak jaso dira.

Oraindik ere heltzen dira **futbol federatua** egiteko lizentzia lortzeko arazoei buruzko kexak. Arazo horiek atzerrian jaiotako neska-mutilek izaten dituzte (besteak beste, atzerriko nazionalitatea daukaten familietako seme-alabek), txosten honen 2.7. atalean azaldu bezala.

2.8.2. LGTBI haurrak eta nerabeak

Txosten orokorraren III.7 atalean azaldutakoarekin bat etorritik, arlo honetan egin ditugun jarduerak, laburbilduz, hiru helburu hauek dituzte:

- Euskal herri-administrazioek euren jarduera guztietan berdintasuna erabat errespetatzen eta sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriarik egin ez dezaten lortzea, eskubide horien gauzatzea benetakoa eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren neurriak abian jarri.
- Euskal gizarte osoan, bazterkeriarik ezan eta aniztasun afektibo eta sexualari eta genero-aniztasunari lotutako eskubideen errespetuan oinarritutako kultura zabaltzea.
- Homofobia edo transfobiaren aurka borrokatzea (edozein formatan agertzen bada ere), Euskadin LGTBI haur eta nerabeen egoeraren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa zabaltzea.

Kexen ikuspegitik begiratuta, hasteko esan beharra daukagu 2018an ez dela banakako kexarik jaso LGTBI haur eta nerabeen gainean. Familiaren ikuspegitik, ordea,

oraindik ere kexak jasotzen ditugu hizkeraren erabilera desegokiagatik, sexu bereko bikoteak daudela ahaztuta ezkontzekin eta filiazioekin loturiko inprimaki ofizialetan. Bereziki ezkontza-ziurtagirien eremuan azken urteetan izandako arazoa aipatu behar da. Hala, erakunde honen eskura dauden datuen arabera arazoa dagoeneko konponduta dagoela ematen du familiako kideen zehaztapena behar duten inprimakietan. EAeren eremuan, ordea, badira oraindik termino egokiak erabiltzen ez dituzten Estatuko Administrazioaren zenbait eredu. Horregatik, erakunde honek [Espainiako Herriaren Defendatzaileari](#) igorri dizkio gai honen inguruko kexak, zuzenketa egiteko erakunde eskuduna den aldetik. Kasuren batean, Gizarte Segurantzak seme-alabaren jaiotzeagatik prestazioen eskubideei buruzko inprimakietan esaterako, *A gurasoa eta B gurasoa* sartzea lortu da *aita* eta *ama* agertu beharrean. Hala ere, testuinguru horretan, Espainiako Herriaren Defendatzaileak Arartekoari berriki jakinarazi dionez, ofiziosko jarduketa bat abiarazi du, Justiziako Estatu Idazkaritzak sexu bereko pertsona ezkonduentzat honako disfunzio hau argitu dezala eskatzeko: ezkontza-ziurtagiriaren indarreko eremuan, nahiz eta erregistroan ezkondu diren pertsonak “A ezkontidea” eta “B ezkontidea” izendatuta egon, oraindik “senarra” eta “emaztea” azaltzea.

Arartekoaren jardueraren alderdi proaktiboaren ikuspuntutik (erreaktiboari kontrajarriz, herritarren kexei erantzuteko), arlo honetan nahitaz aipatu behar da [Eskola seguruen aldeko talde egonkorra](#). Horrek jardun gabe jarraitzen du 2016. urteaz geroztik eta hezkuntza arloko aniztasun afektibo-sexualaz eta genero-aniztasunaz arduratzen da. Erakunde honen iritziz, ezinbestekoa da ikastetxeen eta euskal erakundeen arteko baterako lana, tresnak sortzea eta eskolak benetan inklusiboak eta haurrentzat toki segurua direla ziurtatzeko mekanismo eraginkorragoetan sakontzera bideratuta, sexu- edo genero-identitate edozein dela ere.

Ildo beretik, askotariko genero-identitate edo -adierazpenak dituzten haurrak edo araukoak ez diren genero-esperientziak bizi izaten ari diren haurren eskubideak urratu ez daitezzen (adostasunik ez dagoelako eta askotan pertsona helduen orientazioa nahasgarria edo okerra delako) eta pertsona gisa osotasunean eta askatasunez garatzeko, ezinbestekoa da gogoetarako eta eztabaidarako erakundeen arteko foroak bultzatzea, *transsexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Euskal Legearen* itzalpean eskaini beharreko prestazio publikoak egokiago eta haurren eskubideei egokitu definitzeko. Gune horiek helburu hau izan behar dute: arlo horretan jarduteko ahalmena duten erakundeen artean irizpide argiak ezartzea, haur eta nerabeen interesa eta eskubideak beren jardueren erdi-erdian jarriz. Horretarako, aintzat hartu beharko dituzte haurrak babesteko legeetan eta araudian xedatutakoa eta LGBTIen eskubideak babesteko hemengo eta nazioarteko tresnetan eta gizon-emakumeen berdintasunari buruzko legerian ezarritako printzipioak. Gai hori aztertu zen Eusko Jaurlaritzaren Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendariordearekin egindako bileran, eta iritzi bera adierazi zuen.

2.8.3. Neska-mutil ijitoak

Eusko Jaurlaritzak [Ijito Herriarekiko 2018-2020 Euskal Estrategia](#) aurkeztu zuen 2018ko irailean, eta, estrategia horren bidez, aurreko 2013-2016 Estrategia lantzen jarraitu nahi da, bai eta hobetu ere. Estrategiak hiru ardatz nagusi ditu: ijitoen bizi-kalitatea hobetzea; ijitoen partaidetza soziala; eta ijitoekiko bizikidetzeta eta haien kulturaren ezagutza hobetzea; halaber, 18 ekintza-ildo proposatu ditu. Ildo horietako batzuk haur eta nerabeei daude zuzenduta, besteak beste, honako helburu hau proposatu duen ildo: «ikasleen eskola-arrakasta handitzea eskola inklusiboaren esparruan, bereziki haur eta gazteei begira». Gainerako alderdiei dagokienez (genero indarkeria, enplegua, osasuna, etxebizitza, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko errenta, justizia, segurtasuna, kultura, bereizkeriaren kontrako borroka, parte-hartzea), lehen eskuko protagonistak ez badira ere, bereizkeriak gainditzean lortu litezkeen ondorioen onuradun badira.

Haur eta nerabe ijitoei modu zuzenago batean eragiten dieten arazoei lotutako Arartekoan aurkeztutako kexei dagokionez, aipatu beharra dago, lehenik eta behin, arazo horiek ez direla oso ugariak, baina zailtasun-egoerak urtean-urtean errepikatzen dira. Hala, kezka gehienek Lanbidek [diru-sarrerak bermatzeko errenta](#) kudeatzeko moduarekin izan dute zerikusia, baita [familia ijito batzuek etxebizitza duina](#) edukitzeko zailtasunekin ere. Kontu horiek eragin nabarmena izaten dute familia horietan dauden haurren garapen-aukeretan, haur horiek urritasun handiko baldintza materialetan hazten direlako, batzuetan.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kasuan, etxebizitza eta bertan benetan bizi direla egiaztatzeko zailtasunek bereziki eragiten diete, bai eta etxebizitza bateko bizikidetzeta unitateen kopuruaren mugak ere. Bi kontu horiek etxebizitzak alokatzeko zailtasunari daude lotuta, eta, haien baitan, ijitoen kontrako gaur egungo gizarte gaitzespena eta aurreiritziak ikusgai bihurtzen dira oraindik ere. Bestetik, familia zabalean bizitzea eta etxeko solidaritatea -funtsezko alderdia ijitoen kulturari-, kasu batzuetan, ez dira prestazio horiek eskuratzeko eta mantentzeko aurreikusitako irizpideekin berdinkatzen. Zenbatekoa kalkulatzeko ezarritako bizikidetzeta unitateko kideen kopuruaren mugak ere seme-alaba gehiago dituzten familiei eragiten die, eta hori ohikoa da ijito-familien kasuan.

Etxebizitzari dagokionez, bizikidetzeta unitatea osatzen duten kideen kopuruak gora egiteagatik eta araudiak ezarritako pertsona bakoitzeko m²-ko ratioa gainditzeagatik birkokapen eskaerei erantzun ez zaielari edo berandu erantzun zaielari lotutako egoerak daude jasota txosten honetako 2.1. atalean, eta hainbat ijito-familia egoera horien protagonistak izan dira.

Hezkuntzaren esparruan (ikus 2.2.2.f atala), jangela-bekak lortzeko zailtasunak zuzendu dira, eta zailtasun horiek gertatu dira ez direlako aintzat hartu diru-sarrerarik eza ziurtatzeko txosten sozialak.

2016an hasitako eta 2017ko txostenean zehatzago aurkeztutako kasuan oraindik zailtasunak daude, alegia, gizarte bazterkeriako egoeran dagoen ijito-familia baten kasuan.

Izan ere, Gasteizeko auzo batean zuen etxebizitza utzarazitakoan, familia ezin izan da Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak-Etxebidek esleitutako babes ofizialeko etxebizitzara sartu, identifikatu ez diren hainbat pertsonak etxebizitza hondatu dutelako. Erroldari, familiaren haurrak eskolatzeari edo babes sozialari lotutako hasierako arazoak behin zuzenduta, auzokideen aurkakotasuna dela eta, ezinezkoa izaten ari da familia horrek etxebizitzaren bat lortzeko duen beharrrari erantzutea; Gasteizeko Udaleko gizarte zerbitzuak oraindik arreata ematen ari diote familia horri.

Arartekoak instituzioen arteko hainbat mahaitan parte hartu du, eta, mahai horietan, pertsonen eskubideak berdinkatzeko modua eztabaidatu da, bai eta jokoan dauden alde guz-

tien interesak ere, betiere ordenamendu juridikoa eta gizarte demokratiko batean arazoak konpontzeko jasotako bideak guztiz errespetatuz.

Arartekoaren ustez, gizarte eskubideen esparruan eskudunak diren herri-administrazioek ijito-familiaren eskubideak babestu dituzte. Zalantza gehiago suertatu dira beharrezko ekimenak aztertzean, bai poliziaren ikuspegitik, bai ikuspegi penaletik. Kalteak eta jazarpena auzokideen erreakzio baten ondorio dira, eta, erreakzio horren baitan, auzokideen ordezkariekin zuzendaritza eta plan bat adostu duten pertsona ugari daude inplikaturik; hori guztia dela eta, zalantza jarri da neurri zigorgarrien eraginkortasuna, bai eta egin beharreko jarduketak eztabaidatuko ez direla ere.



III

atala



Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan

hartua izateko eskubidea: Arartekoaren Haur eta

Nerabeen Kontseilua

◀ Aurrekoa ikusi

III. Atala

ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA: ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

12. artikulua

1. *Iritzi propioa izateko gai den haurri Estatu kideek iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera bermatuko diote, haurri berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta heldutasunaren arabera.*

13. artikulua

1. *Haurrak adierazpen askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzan duen edozein modutan.*

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek 1989an onarturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

Haur eta Nerabeen Kontseiluak neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da;

halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilei egindako elkarrizketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 24 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseiluaren funtzionamendua oinarritzko arauak.

Ikasturtean zehar, Kontseilua 3 edo 4 aldiz biltzen da aurrez aurre, eta, lan-jardunaldi horietan, parte-hartzaile guztiek ikasturte hasieran adostutako gaietan sakontzen joaten da. Eztabaidagaiak bete behar duten betekizun bakarra da haurren eta nerabeen eskubideak zabaltzen eta sustatzen laguntzea, horiek egunerokotasunetik (egun arruntetan bitzitzen dugunetik eta gertatzen zaigunetik) aztertuz eta aurkeztuz.

Hurrengo paragrafoetan, 2018an egindako lana jasoko dugu labur.

Urteko **lehenengo bilera** —Kontseiluaren 2017-2018 ikasturteko bigarrena— Donostian izan zen, otsailaren 24an, Aieteko Jauregian kokatutako Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Ikasturteko lehenengo saioan hasitako lanarekin jarraituz, 2017ko azaroan, **hezkuntza afektibo-sexualari** buruzko hausnarketan aurrera egin zen. Harreman afektibo-sexualei, mugei, onspenari eta abarri lotuta norberak zer eskubide dituen, horiek izan ziren eztabaidaren alderdi garrantzitsuak; eta, saio horretan, zabaltzeko aukeraturako euskarrian biltzeko prest geratu zen eztabaida.

Horretara bideratu zen urteko **bigarren topaketa**, 2017-2018 ikasturteko azkenengoa, Bilboko Kastrexana ostatuan egin zena, maiatzaren 26an. Gidoia prestatzea, eszenen proba-saioak egitea, grabatzea... lanordu egitekotsuak *Y tú ¿qué opinas del consentimiento? – Onspenaz hitz egingo al*

dugu? bideoa lortu arte. Ikasturteko azkenengo saio horretan, kideetako batzuk ere agurtu genituen; izan ere, bi urte eman eta gero, gurekin egindako ibilbidea bukatu zuten, eta neska-mutiko berriei lekua utzi diete.

Orain, 2018-2019 ikasturteko lehenengo saioa urteko azkenengo hiruhilekoan egiteari buruzko informazioa ematea espero daiteke. Aitzitik, oraingoan, ikasturte horretako jarduna 2019ko lehenengo sei hilekoan pilatuko da. Izan ere, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren onespeneran (ikusi IV. kapitulua) oroitzapen ospakizun berezia egingo da, eta Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseiluan parte hartzen duten edo, haren historian zehar, han parte hartu duten neska-mutilak daude gonbidatuta.

2017aren amaieran, Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseiluak [European Network of Ombudspersons for Children ENOC](#) sarearekin bat egitearen ondorioz, areagotu egin ziren kontseilu horrek zituen parte hartzeko aukerak, Europako esparrua barnean hartuz. Beraz, **ENYA proiektuak** —[European Network of Young Advisors](#)— mahaigaineratutako lan-proposamenarekin bat egin genuen, hasieran zailantzi bageunden ere. Proiektu hori ENOC sareko haurren eta nerabeen parte-hartze organoaren (harekin heldu zitzaion burutik gaixo dauden haurren egoerari) berdintzat jo daiteke.

ENYA proiektuari lotutako jardunak, beraz, bat egin zuen 2018rako aurreikusitako lan-agenda arruntarekin, eta honako hau ekarri zuen:

- Lan-jardunaldi horretan (Bilbo, ekainaren 16an), Kontseilu osoa [AVIFES](#) Senideen eta Gaixotasun Mentalaren Bizkaiko Elkartearekin bildu zen. Han, burutik gaixo dauden edo burutik gaixo dauden pertsonekin bizi diren gazteen egunerokotasunaren, zailtasunen, erronken eta ametsen berri izan zuten bertatik bertara.

Zalantzak eta mitoak argitu ziren, buruko gaixotasunetan sakondu zen, neska-mutil horiek Euskadin jasotzen duten osasun-, gizarte- nahiz hezkuntza-arreta baloratu zen, eta, batez ere, ilusioa eta presentzia partekatuta ziren.

- Kontseiluetako bakoitzaren —ENYA proiektuan parte hartzen duten Europako defentsa bulegoen— 2 ordezkari bildu ziren Bartzelonan (ekainaren 27-29), ENOCen asanbladari (irailerako dago aurreikusita) proposatu beharreko gomendioak partekatze eta adoste aldera.
- Ordezkari batek parte hartu zuen [ENOCen 22. Urteko Konferentzia eta Batzar Nagusia](#) (Paris, irailaren 19-21ean); haren helburua zen gazteen ahots zuzena eta egindako lana mahaigaineratzea, batzarrak ondorio nagusiak eman aurretik. Lan horren zati baten erakusgarri dira [Let's Talk Young](#), [Let's Talk About Mental Health!](#) bideoa eta okasiorako konposatutako [Inclusive world](#) abestia.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, zehatzago esanda Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, irailaren 29an parte-hartze berezia egin dezala eskatu dio Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseiluari. Txosten honen 2.5. atalean azaldu dugunez, 2018an zehar, sail hori [Euskadin Haurren Obesitatea Prebenitzeko Estrategia](#) prestatzen aritu da, eta, behin oinarriak eta lehenengo jardunbideak zehaztuta, Kontseiluari helarazi dizkio, hark azter ditzan eta bere iritzia eman dezan. Estrategiaren helburua denez jarduketa-esparru komuna eskaintzea haur eta gazte euskaldunek bizitza osasuntsua izan dezaten sustatzeko, behar-beharrezkoa zen horien parte hartzea lortzea eta haien proposamenak baloratzea, osasun arloko politika publikoak garatzeko neurri horrek zuzenean eragiten zien-eta.

IV

atala



Haurren eskubideak sustatzea:

gizartearekiko harremanak eta

erakundeen lankidetzak

IV. Atala

HAURREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA: GIZARTEAREKIKO HARREMANAK ETA ERAKUNDEEN LANKIDETZA

42. artikulua

Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai helduei bai eta haurrei ere.

1. Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC)

2018an, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak lehen aldiz hartu du erabat parte [European Network of Ombudspersons for Children ENOC](#) sarean. Iaz adierazi genuenez, Haurrentzako Defentsa-erakundeen Europako Sarea 1997an sortu zen eta, gaur egun, Europako 34 herrialdetako haur eta nerabeen eskubideak defendatzeko 42 erakundek osatzen dute. Honatx sare horren helburu nagusiak:

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ahalik eta modu osatuenean ezar dadin sustatzea.
- Taldeko ekintzari sostengua ematea, Europako herrialdeetako politika publikoetan haur eta nerabeen eskubideak kontuan har daitezela.
- Informazioa, ikuspuntuak eta estrategiak partekatzea.
- Haur eta nerabeentzat eraginkorrak diren bulego burujabeak gara daitezela bultzatzea.

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko organoa ere sortu da, ENOC sareari atxikitakoa: [ENYA](#) –European Network of Young Advisors– ekimena, ENOCen jardueran haur eta nerabeen partaidetza bultzatzeko. Horrela, haur eta nerabeei aukera ematen zaie entzunak izateko eta beren iritzia eta proposamenak beren herrialdeetatik haratago ezagutarazteko.

Sareak urtean behin Biltzar Nagusian biltzen da, kideek proposatutako eta adostutako gaiak eta edukiak lantzeko. Urteko biltzarra aprobetxatuz, herriaren defendatzaileek topaketa luzatu egiten dute, eduki horiei buruzko informazioa

partekatzeko, elkarrizketan aritzeko, esperientziak eta go-goetak trukatzeko.

Hona hemen 2017ko Batzar Nagusian haurrentzako defentsa-bulego guztiek 2018an landu dezaten adostutako gaia: haurren eta nerabeen buruko osasunaren arreta. [ENOCen 22. Urteko Konferentzian eta Batzar Nagusian](#) –Parisen egin ziren irailean– onetsitako [egoeraren diagnostikoa](#) eta baterako [aitorpena](#) egiteko, honako hauek hartu ziren oinarri: galde-sortak nahiz lan-dokumentuak trukatzeko partekatutako informazioa eta ekainean Dublinden egindako aurrez aurreko eztabaidan zetzan [prestatzeko bilkura](#). Batzarraren aurreko [Konferentziak](#), halaber, aukera eman zuten Europako beste lurralde batzuetan izandako esperientziak ezagutzeko, bai eta gai horri lotutako zerbitzu eta baliabide jakin batzuk bertatik bertara bisitatzeko, kasu honetan, Parisen.

Kide guztiek partekatutako jarduera orokor hori osatze aldera, ENOCek bide eman du hausnartzeko beste espazio batzuk –horiei atxiki zaizkie interesa zuten defentsa-bulegoak– sortzeko. 2018an, gaiaren arabera bi lantalde izan dira, lehenengoa [nazioarteko adopzioari](#) buruzkoa, eta bigarrena, [haur migratzaileen hezkuntza-eskubideari](#) buruzkoa; aitorten banarekin amaitu dira biak.

Arartekoak ENOCen “helduen” arloan egindako lan handiaren baliokidea da Haurren eta Nerabeen Kontseiluak ENYA proiektuan izandako parte-hartzea (aurreko kapituluaren eman ditugu horren xehetasun gehiago). Horren harira, urteko konferentzian nerabeen ekarpenak eta helduen bulegoen lanaren ekarpenak uztartu izanak asko lagundu zuten diagnostikoaren eta amaitzeko aitortenaren kalitatea hobetzen.

Sarearen helburuetan aipatu bezala, han parte hartzeak aukera ematen du informazioa, estrategiak eta metodologiak partekatzeko, eta horixe da, hain zuzen ere, bere helburua. Horri lotuta, ohikoa izaten da askotariko gaiei buruzko informazioa eskatzea. Informazioa eskatzen duen erakundearen helburua da datu gehiago izatea hartu beharreko erabakiak hartzeko edo eman beharreko irizpenak emateko. 2018an, kontu hauen inguruko arazoak mahaigaineratu dira: etxerako lanak, haurren kontuetarako aurrekontuak, eskola-jazarpenera, haurren parte-hartzea politikaren arloko erabakietan, Haurren Eskubideei buruzko Kontzentzioaren

betetze-mailaren jarraipena egiteko metodologia, haurren ezgaitasuna aitortzea eta ezgaitasun intelektuala bat duten haurren erakundearen izenak, haurrengan duen inpaktuaren txostenak eta haurren jostailuen inguruko telebistako publizitatea. Horrez gain, defentsa-bulego batek edo batzuek egindako aitorten hauekiko atxikipena eskatu da, besteak beste: [Estatu Batuetan haur eta familia migratzaileei emandako tratamendua](#), eta Siriako iheslarien esparruetako haur holandarren eta belgikarren babesa.

Halaber, atal honetan Txosten Orokorren berri eman da, lankidetzak-espíritu horrekin bat datorrelako eta eskaera Arartekoari egin zitzaizkion ENOCeko kide izateagatik. VI. kapituluak. 1. ataleko 3.2. puntua. [neska-mutilen kontrako indarkeriari buruzko Nazio Batuetako idazkari nagusiaren ordezkari bereziari](#), idazkari nagusiak haurrak eskola-jazarpenetik babesteko txostena egin zuenean, Euskadiko eskola-jazarpenaren inguruko informazioa igortzea eta harekin elkarlanean aritzea.

2. Estatuko beste defentsa-bulego batzuekiko harremana

Aurreko atalean aipatutako helburua, alegia, informazioa, ikuspegiak eta estrategiak partekatzea, ere aintzat hartzen da urtero egiten diren **Herriaren defentsa-erakundeak koordinatzeko jardunaldietan**; defentsa-erakundeek txandaka antolatzen dituzte horiek, eta, kasu honetan, [Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges](#) delakoak (herriaren defendatzailea) hartu du ardura hori. Aztertu beharreko gaiak ere urtero adosten dira, eta ez dira beti lantzen haurrei zein nerabeei berriaz eragiten dieten gaiak. Aitzitik, 2018an, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta adingabeak izan zen landu beharreko gaia, eta laburpen-dokumentu eta [adierazpen instituzionala](#) —han, genero-indarkeria pairatzeko arriskuan dauden haurrei eta nerabeei emandako arreta hobetzea helburu zuten zenbait gomendio jaso ziren— onetsita amaitu zen. Nolanahi ere, kontu horren inguruko xehetasun gehiago eman dira txosten honen 2.3.5. atalean.

Horrez gain, Valentziako Erkidegoko Síndic de Greugesekin Valentziako Generalitateko [Justizia](#), [Administrazio Publiko](#), [Erreforma Demokratiko](#) eta [Askatasun Publikoen Saila](#) bisitatu genuen, Gurasotasun-koordinazioko Zerbitzuan (txosten honen 2.4.2e) atalean eman da horren berri) izandako esperientziaren emaitzak ezagutzeko.

Amaitzeko, [Aragoiko Justizia sailburuaren](#) ordezkariak eta kabineteko zuzendariak Arartekoa bisitatu dute, besteak beste, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren egitura eta funtzionamendua gertutik eta sakonago ezagutzeko, eredu interesgarria baita defentsa-bulego horren egituran integratutako organoa diseinatzeko, Aragoiko haurren eta nerabeen eskubideei erantzun diezaien.

3. Gizarte-eragileekiko lankidetzak

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak, bere ekintza-ildoan artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haur eta nerabeen eskubideak dibulgatuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzak-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan eta abar.

Arartekoa harremanetan egoten da haur eta nerabeen eskubideak defendatzen dituzten erakundeekin, hala nola [Save the Children](#) eta [UNICEF](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Batzordea eta, estatu mailan, [Haurren Erakundearen Plataforma](#) bezalakoekin. Harreman horiek ohikoak eta jarraituak dira.

Bestalde, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak haur eta nerabeen bizitzako arlo guztiei buruz landutako ikuspegiarekin bat, Arartekoaren erakundearen bereizita dauden atal desberdinekin batera lanean ari da, adingabeen egoera edo arazoei ikuspuntu osagarrietatik heltzeko. Izan ere, desgaitasun, mendetasun eta osasun arloetako koordinatzaileak dagozkien sektoreetako erakundeekin harremanetan daude, eta batzuetan, aurrean bezala, [3/12 haurrek hartutako kalte zerebralaren elkarrekin](#) eta [Munduko Medikuekin](#) ere, haur eta nerabeen osasunarekin eta autonomiari laguntzeko beharrekin zerikusia duten gaiak heltzen diete.

Ildo beretik, familia arloko arduradunak arlo horretako erakundeekin harremana dauka, aurrean, [Hirukiderekin](#) eta [MSPEREkin \(bikotekiderik gabe ama izatea aukeratu duten emakumeen elkarrekin\)](#) eta haurdunaldi subrogatuaren bitartez jaiotako seme-alabak dituzten familien ordezkariekin; horiek, aldi berean, [Son nuestros hijos](#) eta [AGSE](#) (haurdunaldi subrogatuaren aldeko Espainiako elkarteak) elkarteetako kideak dira.

Hezkuntza arloarekin lotutako bilerak egin dira [Peñascal fundazioarekin](#) eta [ADSIS fundazioarekin](#), azken kasu horretan [Harresiak Apurtuz-ek](#) bitartekotza-lanak eginda, eta [Jolas eta Ekin](#) programarekin, gizarte eraldatzeko hezkuntza sustatzen duen zentroa baita.

Babesik gabeko haurren eta egoitza-baliabideetara egindako bisiten esparruan, harremanak izan dira Zabalduz, Babesten, [Bizgarri](#), [Landalan](#) eta [Berritzu](#) elkarteekin. Aurrean esaldan etorri dira gure lurraldera bakarrik dauden adingabe atzerriarrak Horiek artatzeko orduan sortu den arazo ere laneko aztergai izan da [Gipuzkoako Sos Arrazakeriak-ekin](#) eta [Gurutze Gorriarekin](#) egindako bileretan. Gainera, aurrean haurren kontrako sexu-abusuaren arazoari arreta berezia eskaini diogunez gero, bulego horretako langileek bilerak egin dituzte [Garaiza](#) eta [ADIMA](#) elkarteekin.

4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak

Modu berean, askotarikoak dira erakunde instituzional eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzan aritzeko espazioak eta uneak. Solaskideetako batzuk honako hauek izan dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Sala.
- Euskadiko Fiskaltza Nagusia eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Probintzia Fiskaltzak.
- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.
- Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
- Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justiziako Sailburua.
- Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako diputatua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirolaren eta Gazteriarren zuzendaria.
- Hiru foru aldundien Gizarte Ekintza / Gizarte Politika / Gizarte Zerbitzuen sailerako haurren zerbitzuetako arduradunak (baita zerbitzu, programa eta baliabide batzuetako arduradunak ere).
- Emakunde. Erakundeen arteko talde teknikoa.
- Bilbo, Donostia, Irun eta Gasteizko udalak.

Bilera horietan, edo, hain zuzen ere, bilera horien ondorioz, Arartekoaren erakundeak politika publikoak eragin dituzten planak, protokoloak edota estrategiak bertatik bertara jakin ditu, eta zenbait egoera kezkarri erakunde eskudunei jakinarazi dizkie, artatu beharreko beharrian gisa formulatuta, edo esku-hartzean eskubideak bermatzea zehazte aldera.

Arlo honetan, azken urteotan bezalaxe, aipatu behar da Arartekoak gonbidapena jaso duela dekretu batzuk lantzeko prozesuan egiten den entzunaldi-izapidean parte hartzeko.

Zehazki, adingabe atzerritarrak Euskal Autonomia Erkidegora aldi baterako lekualdatzeko programei buruzko dekretua, eta beraien kargura seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei buruzko dekretua (biak onartuta daude txosten hau bukatzeko orduan). Orobat, beste batzuetan egin den moduan, hemen azaldutako moduan erantzun zaio gonbidapen horri. Ondo jakina denez, 3/1985 Legeak, erakunde hau arautzen duenak, eginkizunen artean ez du jasotzen dekretuak informatzea. Hala ere, argi dago araudi berri bat lantzeko unea aukera paregabea dela euskal politika publikoak egituratzen neurriak erakitzen eta hobetzen laguntzeko. Hori guztia dela eta, araudiaren zirriborroari buruzko txostenik igorri gabe, lantzen ari den arau-proiektuari buruzko edo horri loturiko kontu batzuk helarazten dira, herritarren kezak izapidetzean, ofiziotzko ikerketetan edo lan-etzabaidagunee-tan antzeman, aztertu eta jaso direnak. Hitz batez, Arartekoak gaiaren inguruan orain arte adierazi dituen iritzien bilduma.

5. Ekitaldietan parte-hartzea

Elkarte eta erakundeekin kolaboratzeko marko horretan zein Arartekoaren erakundeak berak gidatutako ekimenak izateagatik, arartekoak berak edo erakundeko langileek adingabeei lotutako hainbat foro eta topaketan parte hartu izana nabarmendu behar da, gure erkidegoan zein gure erkidegotik kanpo. 2018ko parte hartze nabarmenenak eta orain arte dokumentu honetan aipatu ez direnak honako hauek dira:

- ✓ Gasteizko Udala. *Gasteizko haur eta nerabeen egoerari buruzko ikerketa-diagnostikoa aurkezteko mintegia*. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko IV. Plana 2018-2022* egiteko world café-a. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundia. Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila. *Adingabeak eta Genero-indarkeria*. Bilbao.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia. *Zuzenbideak generorik du?*. Bilbao.
- ✓ FEDEAFES. *Seminario sobre necesidades y recursos dirigidos a las personas con enfermedad mental en la CAPV*. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ AVIFES. *“Zaindu zure kokoa” familien IV. topaketa*. Bilbao.
- ✓ Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideak eta Berdintasun Batzordea. *Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren 2017ko txostenaren aurkezpena*. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ ABIPASE. *Planes de parentalidad*. Bilbao.
- ✓ Bidegintza. *Programa Mantangorri*. Bilbao.
- ✓ Kantabriako Gobernua –Lehendakariordetza. *Congreso de Infancia y Familias “Cantabria te ayuda a crecer”*. Santander.

- ✓ ASAFES. *II Encuentro técnico profesional. La realidad de la adolescencia con enfermedad mental y sus familias en Álava*. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Comillaseko Eliz Unibertsitatea – Haurren Erakundearen Plataforma. *Las Observaciones Finales del Comité de los Derechos del Niño a España*. Madril.
- ✓ Emakunde. *Jardunaldi monografikoa: arlo judiziala emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien arretaren kalitate estandarrei buruzko programaren barruan*. Bilbao.
- ✓ Eusko Jaurlaritzaz. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko familia eta haurtzaroen inbertsiorako estrategia. Bilbao.
- ✓ Arabako Foru Aldundia – UNICEF. “Acogimiento familiar y residencial”. azterlana. Arabako emaitzak. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Gasteizko Udala. *Haur eta nerabeen gaineko jardunaldi Gasteizen*. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Espainiako Bigarren Aukerako Eskolak. *Encuentro nacional y europeo de E2O*. Bilbao.
- ✓ Gasteizko Udala. *Kale heziketako udal programari buruzko jardunaldia*. Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Gasteizko Udala. *Haur eta Nerabeentzako Gasteizko II. Udal Plana*. Vitoria-Gasteiz.

6. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartzea ospatzea



Nazio Batuen Batzar Nagusiak [Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa](#) azaroaren 20an onartu izana, oraingo honetan,

Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikako Zuzendaritzarekin eta Bilboko Udalarekin batera ospatu dugu.

Partekatutako ekimen horren ardatz nagusia zen “Treblinkara azken trenaz” lana, Janusz Korczakek zuzendutako Varsoviako ghettoan umeturtutako etxean egindako azken egunei buruzkoa, antzeztea. Medikuek eta pedagogok horrek (Haurren Eskubideen Adierazpenaren aitazintzaritza jotzen da) haurrak eskubide-subjektu gisa errespetatu beharra aldarrikatu zuen praktikatik abiatuta: ahotsa eman zien, eta zentro horretako eguneroko bizitzaren autogobernuaren oinarriak jarri zituen.

Izan ere, protagonismo hori nabarmendu nahi izan zen egun horretako ospakizunean, hau da, haurrek eta nerabeek eragiten dieten eguneroko kontuetan parte hartu beharra, eta unea baliatu zen “adingabe” horiek gure gizartearen duten balihoa, haien gaitasuna eta ekarpenak sustatzen, zabaltzen eta horien inguruan sensibiltzatzen jarraitzeko.

Nolanahi ere, haurrek parte-hartze organoetan eta prozesuetan parte hartzea errealitate bat da Euskadiko zenbait udalerrietan. Beraz, antzezpen hori leku pribilegiatu batetik ikustera gonbidatu genituen parte-hartzaile horiek eta beren familiak. Izan ere, obra horren berezitasuna da, haren formatua dela-eta, ikusle batzuek agertokitik bertatik ikus dezaketela, umeturtutako 200 haurretako bat bilakaturik, elkarren gaineko oheak eta jantokia antzezleekin partekatuta, eta bertatik bertara bizi dezaketela beren eguneroko bizitza berezia, barne-antolamendua, beldurrak, pozak, eta beren Konstituzioa eta Zigor Kodea nola sortu zituzten ere ikus dezaketela. Halaber, aukera ematen die umeturtutako etxea utzi eta Treblinka kontzentrazio-esparruan (han, naziek milaka pertsona sarraskituak zituzten ordurako) eraikitako gas-ganberetara eramango zituen trenara joan behar zutela jakinarazi zieten unearren lekuko izateko.

Antzezlanera gonbidatzeaz gain, dossier didaktikoa eman zitzaizkien eskatu zutenei, lana ikusi aurretik zein ondoren landu zezaten haren edukia, haurren eta nerabeen eskubideen ingurukoa.

V

atala



Haur eta nerabeen eskubideen egoera
baloratzea

◀ Aurrekoa ikusi

V. Alala

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEEN EGOERA BALORATZEA

Ondorengo paragrafoetan aurkeztera goaz Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2018an egin duen jardueratik azpimarragarriena. Kasu batzuetan balorazio bat erantsi diogu, Euskadin bizi diren haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko aurrera egin behar den gaitan.

2018an, 729 kexa-espeditetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %27,97tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditetarik (707): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditetarik (22), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertzeke eta horien bilakaera ikusteko.

Kexa **nork egiten duen** ikusita, bakarra izan da haur edo nerabe batek zuzenean egindakoa. Gainontzekoak helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 8 gizarte-erakundeek egin dituzte (norbanakoek egoerak azaldu dituzte) eta beste 11 kexa elkarteek egin dituzte, baina pertsona-talde baten ordezkari gisa; horregatik, adingabe gehiagori eragiten diete.

Helarazitako gaiak dagokienez, % 41ek baino gehiagok hurreman du hurrek bizi-maila egokia garatzeko baldintza materialekin. Zehatz-mehatz esanda, diru-sarrerak eta etxebizitza bermatzeko sistemei lotutako gaiak dira. Beste % 38 hezkuntza-sisteman arazoei buruzkoa da eta gainerako % 21 ehuneko desberdinetan banatzen da, beti % 5etik behera honako eremu hauetan: gizarte-zerbitzuak (% 5, babesik gabeko haurrak eta % 0,5 mendekotasuna), familiak laguntzeko politikak (% 4,5), osasun-sistema (% 4), justizia-administrazioaren zerbitzuei buruzko jarduerak (% 2), eskola-kirola (% 1,5) eta bestelako hondar-alderdiak.

Zenbakiak alde batera utzita, Haurren Eskubideen Batzordeak **aplikazio-neurri orokorrak** deritzanei dagokienez, aurrerapausoak eman dira legegintzaren eremuan. Zerbitzuak eta programak arautzen dituzten dekretuak (familia-harrera, aldi baterako egonaldiak, etab.) onartu dira eta guztietan nahasitako haurren eskubideak bermatu dira.

Dena den, aipatu behar da euskal legedia oraindik ez dela eguneratu, uztailearen 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta uztailearen 28ko 26/2015 Legea indarrean jarri arren; bi lege horiek haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen dute, Gobernuaren planak 2019. urteko lehenengo seihilekorako aurrez ikusi ostean.

Halaber, aurrekontuaren eremuan ez da aurrerapenik antzematen batzordearen gomendioen ildotik. Horiek *haurren eskubideak eraginkorrak izateko aurrekontu publikoak egiteari buruzko 19. Ohar Orokorrean* ageri dira. Nolanahi ere, aurreko edizioetan egiaztatutakoarekin bat, hasieran zailtasunak daude haurren eta nerabeen eskubideetan eragina izango duten diru-sarrerak publikoak, aurrekontu-esleipenak eta gastuak identifikatzeko orduan. Ildo horri eutsiz, Arartekoa batzordearen azken oharrekin ados dago eta, ondorioz, autonomia erkidego guztietan haurrengan egin behar diren inbertsioen analisia sustatzeko premiaz neurriak hartu behar dira. Helburua haurren eta nerabeen eskubideak betetzeko baliabideak birbanatzea da. Hala, hezkuntzan eta zerbitzu publikoen horniduran inbertsioak gehitu behar dira.

Haurren Plan bat eskatu da eta, Eusko Jaurlaritzak 2015. urtearen amaieran iragarri zuen moduan, erantzuna Familia eta Haurren aldeko Euskal Ituna izan da, 2018-2022rako Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko IV. Planaren esparruan. Nahiz eta familiaren politiken esparruan formulatu den eta, beraz, haurren politiketan plan gidari berezia izateko horrek eta beste erakunde batzuek egindako erreklamazioari oso-osorik ez erantzun, onartu behar da diagnostikoa, eskubideen erreferentziazko esparrua, ikuspegiak eta jardueraren printzipioak Arartekoak haur eta nerabeei buruzko plana egiteko egokitzat jo dituenak direla. Horrez gain, ardatz berezi bat dago (“haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea”) eta kuantitatiboki nahiz kuantitatiboki helburu interesgarriez hornitu dute. Bi alderdi horiek kontuan hartuta, proposamena positiboki balora daiteke.

Tokiko eremuan, haurrentzako planak onartu dira eta osotasunerako zaletasuna dute (udalerriko aginpidearekiko izan arren). Are gehiago, besteak beste, Haurren Hiri Lagunkoia eta Umeen Hirien Sarea ekimenei esker joera gorantz doa.

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren euskarazko bertsio ofizialik gabe jarraitzen dugu, hortaz, hezkuntza-

ren ehuneko oso garrantzitsua hizkuntza horretan irakasten den herrialdean, konbentzioa hedatzeko eta haurren eskubideak sustatzeko oraindik ibiltzeke dagoen bidearen adierazgarri da.

Printzipio orokorre eta, bereziki, **haurrak duen goi-mailako interesari** dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekimena aipatu behar da. *8/2003 Legeari, abenduaren 22koari, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedatzen duenari, haurrengan arau-eragina ebaluatzea* eskatzen du, bai aldaketa-prozesuetan, baita alegazioen fasean ere. Izan ere, formularik egokiena da, ekimen legegilea erabili eta garatzeko eskatzen den lege-segurtasuna eta administrazio publikoen araubidezko ahalmena sendotzeari begira. Arartekoak oso positiboki baloratzen ditu azaldutako argudioak eta partekatu ere bai. Dena den, prozesu horretarako denbora beharko denez, komeniko litzateke behin-behineko formulak egituratzea, hala nola, Gobernu Kontseiluan erabakitzea sail guztiek txostena egin behar dutela une horretatik aurrera.

Haurrek entzunak izateko duten eskubidea eta, aldi berean, beren iritzia kontuan hartzeko eskubidea gero eta gehiago ezagutu, aipatu eta eskatzen da. Hala, partaidetzarako guneak, egiturak eta erakundeak eratu dira. Askotan arestian aipatu diren ekimenen esparruan, haur eta nerabeentzat tokiko planak formulatzearekin batera, haurren kontseiluak eta antzeko funtzioak dituzten organoak errealitate izaten hasi dira Euskadiko udalerrri anitzetan. Dena den, ez dugu ahaztu behar mugimendu hasiberria dela eta, ondorioz, hurrengoak eskatzen jarraitu behar dira: parte hartzeko bide erreal eta egonkor gehiago; haurrak eta nerabeak entzutera bideratutako denborak; mekanismo egokiak; metodologia erakargarriak eta abar. Horiek bermatu behar dute adingabeek horien bizitzan eragina duten eremu desberdinetan parte hartzen dutela.

Ez-diskriminazioaren printzipioari dagokionez, ijitoen familia batzuetan seme-alabek bizitzeko dituzten zailtasun bereziak azpimarratu behar dira. 2018. urtean erakunde honek antzemandakoari jarraituz, etxebizitza alokatzeko aparteko zailtasunak dituzte eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren prestazio ekonomikoak lortu edo mantentzeko ondoreak ez dira desiragarriak, gizarteak ijitoen familia (haurrekin) arbuizatzeaz gain. Egoera jada bi urtez luzatu da eta epe laburrean ez zaio bake-irteerarik antzematen.

Aurten haur eta nerabe lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualekin zerikusia duen kezarik ez da jaso; bai, ordea, sexu bereko familiei buruzkoak. Salatzen jarraitzen dute administrazioaren inprimakiak eta prozedurak ez zaizkiola egokitzen familia berri eta anitzen errealitateari.

Atzerriko familien haurrek ez dituzte salatzen diskriminazio-egoerak, Arartekoari dagokion jardunaren hainbat eremutan beren eskubideak erabiltzeko zailtasun erantsiak islatu arren: ezegonkortasun-maila handiagoak, gizartearen ikuspegitik gutxietsiak diren ikasleak ikastetxe zehatzetan pilatzeko arriskua, futbol federatuan jarduteko oztopoak, eta abar.

Haurrak garatzeko bizi maila egokia izateko eskubideari dagokionez, onartu behar da Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak balio handia duela EAEn pobrezia maila eta egoera ekonomiko txarren kopurua murrizteko. Horrexegatik, agian, txosten honetan ezin ditugu aipatu gabe utzi Arartekoaren esku-hartzea eskatzen duten familiek azaltzen dituzten arazo batzuk, behar oinarritzkoenak estali ahal izateko. Gogora dezagun berriz ere diru-sarrerak bermatzeko sistemak dituen prestazio ekonomikoen hartzaile-ehuneko altuaren barruan sartzen direla ardurapean seme-alabak dituzten familiak. Datu horrek erlazioa du Arartekoari zuzentzen zaion kexa-ehuneko handiarekin, adigabeak ardurapean dituzten pertsonenak baitira asko eta asko. Aurrekoaren harira, prestazioei (diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte-larrialdiko laguntzak) buruzko kexen % 33k baino gehiagok berariaz aipatzen dituzte haurrak (askotan, bat baino gehiago) bizikidetzak-unitatean. Horrek ez du esan nahi gainerako % 67an ez dagoenik. Nolanahi ere, ez dute datu hori adierazi egoera azaltzean. Aipatuta eta, beraz, zenbatuta edo zenbatetsita, biribiltasunez baieztatu daiteke oinarritzko beharrak estaltzeko zailtasunak dituzten egoitzetan eta, horien artean, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdiko laguntza ezetsi, eten edo azkendu zaielako egoera kalteberenetan dauden familietan adingabe asko dagoela. Izan ere, erakunde honek halako erreklamazio ugari aztertzen du.

Txosten orokorraren II.4 atalean (gizarteratzeari buruzkoa) zehazki irakur daitekeenez, 2018. urtean hobekuntzak ikusi dira Lanbidek gai hauetan egindako kudeaketan: ebazpenen arrazoiketa; dokumentuak erregistratzea; aurretiko entzualdia; prestazioak eskatzeko eta berriz ordaintzen hasteko eskaerak ebazteko epeak; herritarrentzako arreta eta prestazioak erreklamatzeko prozedurak hasteko epeak. Berraztertze-errekurtsoak ebazteari buruz, oraindik atzerapen handia nabari da, baina epea laburtzeko neurriak hartu direla jakinarazi digute. Beste gai batzuetan, aldiz, bere horretan diraute elkarrengandik urruntzen diren iritziak, eta zenbait gomendio eta iradokizun eragin dituzte. Horiek, kontuan hartu beharko liriteke, Arartekoaren ustez, sistema hobetzeko. Aurten aipagarriak dira gai hauen gaineko gomendio-iradokizunak: benetako bizilekuaren baldintza eta baliabide ekonomikorik eza egiaztatzeko modua; gizarteratze-programetan parte hartzen duten pertsonen aukerak; jaraunspenak zenbatzea, gauzatzeke zaila den ondasunak badira; errentamendu-kontratua Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskribatzeko betebeharra –errentatzailea ez den baina logela bat alokairuan hartuta duen pertsonari dagokiona–; enplegu bati uko egitea; EAetik kanpora egiten diren irteerak edo, beste batzuen artean, eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazteko baldintzaren interpretazio hedagarria.

Etxebizitzaren arloan, seme-alabak dituzten familiekin egindako esku-hartzei dagokionez, talde garrantzitsua osatzen dute babes publikoko etxebizitza bat errentan hartua duten eta etxe handiagoa esleitzeko eskatzen duten familiek, beren bizikidetzak-unitatearen osaera aldatu egin delako eta oraingo etxebizitzak legez ezarritako gutxieneko ratioa (pertsonako 15 m²) betetzen ez delako. Gehienetan seme-alabak jairo direlako gertatzen den gainokupazio handiko egoerez ari

gara. Eskaerak gero eta ugariagoak direnez gero, Arartekoak berriz adierazi nahi du “etxebizitza-ibilbideei” buruzko araudi berria ezarri beharko litzatekeela, alokairu sozialeko etxebizitzak errentariak eta beren familiek bizitza etapa desberdinetan izan ditzaketan beharretara egokitzen ahalegintzeko. Etxebizitza horietan bizi diren haurrek tokia eta nahiko onak diren baldintza materialak izan behar dituzte, bere garapena arriskuan ez jartzeko.

Arartekoak badu beste kezka-iturri bat ere: alokairuak ez ordaintzea (babes publikoko etxebizitzetan nahiz pribatuetan) eta etxe-utzarazpenak. Gai horren gainean, bere iritziz, are funtsezkoagoa da organo judizialen eta gizarte-zerbitzu eskudunen arteko koordinazioa. Horregatik, bere ustez, berrikusi egin beharko litzateke “*Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Eusko Jauraritzaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, izaera sozialeko neurriak hartzea ahalbidetzeko etxebizitza familiarretik botatzea dela-eta larritasun-egoerak hautemateari buruzkoa*”, eta horren bilakaera zehazki aztertu, bizitokiarekin zerikusia duten egoera eta premia berriei erantzuteko.

Testuinguru honetan, berri ona da Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko IV. Plana onartzea. Haurren desberdintasunetik, pobrezia belaunaldi belaunaldi errepikatzenetik eta haurren inbertitzeari buruzko paradigmatik abiatuta, haurren pobrezia buruzko fenomenoaren aldeko apustu argia burutzen du. Haurren pobrezia haztearen azpian haurren taldean bertan desberdintasunaren hazkuntza dago. Hori erakusten du 2008. urtetik 2016. urtera Gini indizea igotzeak. 25,6tik 26,4ra igo da. Bestalde, itxuraz, zientzia-nabaritasunak jada eusten dio honi: diru-sarreraren desberdintasuna handitzen ari denez, familiaren testuinguruak gero eta zeregin garrantzitsuagoa du haurren etorkizuneko bizi-maila zehazteko orduan. Hori politika publiko irmoekin orekatzen ez bada, aukera-berdintasunaren printzipioa kolokan jar daiteke. Gutxieneko errenta-politikak, jarduera-printzipiotzat haurren goi-mailako interesa dutenak, hezkuntza-sistema barneratzailea, ikasleen sarrera-desberdintasunak salbatzeko prest dagoena, hazkuntzan laguntzeko zaletasun argia duten familia-politikak; horiek guztiak politika publikoen elementu batzuk izan daitezke familietan diru-sarreraren desberdintasunak orekatzeko.

Aurrekoari eutsiz, diru-sarrerak bermatzeko sistemari eta etxebizitza-sistemari buruzko ekintzak, planak helburutzat dituenak, Arartekoak proposatutako bidetik doaz: “*Seme-alabak ardurapean dituzten familia guztiei gutxieneko baliabideak bermatzea eta haurren pobrezia prebenitzea*”. Beraz, planaren denboraldian jarraipen berezia egingo zaie.

Hezkuntzarako eskubideari dagokionez, ikasleak onartzeari buruz kexa-arrazoirik ugarienetakoa aurreko ikasleak onartzeko prozesuetan guraso bakarrek familiei ematen zaien tratamenduaren ingurukoa izan da. Antza denez, desberdintasunak daude Haurreskolak Partzuergoko haur-eskolen, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen artean.

Hezkuntza-administrazioak helarazitako argudioak aintzat hartuta, erakunde honek familiei errepikatu behar izan die

zein izan den haren lehendabiziko azterketa, bereizkeriazko tratua egon dela baliatzeko zailtasunari dagokionez. Izan ere, aintzat hartu behar dira kide bakarrek familiei emandako tratua ezberdina justifikatzeko eman diren arrazoiak, berdintzat ezin har daitezkeen bi egoeraren aurrean. Dena den, jadanik puntu honetan aurreratu behar da Arartekoak premiazko zatitza jotzen duela kide bakarrek familiei estatu berezia ematea, behar bereziei erantzun egokia eskaintzeko. Are gehiago, hala izan beharko luke familiak babesteari buruzko politika publikoek –zeharkakoek ere bai– lantzen dituzten eremu publikoetan. Nolanahi ere, aurrerago izango da gaia hizpide.

Erakunde honi berriz ere proposatu zaio familien nahia aintzat har dezan anai-arreba bikiak eskolatzea erabakitzeke orduan, nola ikasgela berean hala ikasgela ezberdinetan. Kasu honetan esku-hartzea amaitzeko erabili den ebazpenean proposatzen dena honako hau da: ikastetxeak aurrez defendatutako jarrera arintzea komeni dela haurren inguruabar zehatzek beren interes partikularren mesedetan hori egitea gomendatzen dutenean. Erakunde honen iritziz, planteamendu hori da onena *beren goi-mailako interesa lehentasuntzat jotzeko haurren eskubideari buruz Haur Eskubideen Batzordeak egindako 14. ohar orokorraren* ildotik.

Ikastetxe zehatzetan gizartearen ikuspegitik familia gutxietsien kide diren ikasleak metatzen dira. Hori, bereziki, Gasteizen salatu da. Dena den, ez da toki bakarra, beraz, 2018. urtean arreta berezia eskaini diote, bai Arartekoak, baita beste gizarte-eragile eta erakunde batzuek ere. Eztabaida hainbat adituk eman dituzten argudioekin aberastu da. Nolanahi ere, horiek Legebiltzarrearen egoitzan defendatuta dira *eskola barneratzailearen alde eta eskola-bereizketaren aurkako legegintzaren herri-ekimenean* eta gauza bera egin du Eusko Jauraritzako Hezkuntza Sailak. Testuinguru honetan, Arartekoaren iritzia adostutako jarraipen-lanarekin jarraitu behar dela berresten du. Hala, adi egon behar da txosten horretako jarduketaren proposamenak eta erronkak betetzen direla ziurtatzeko.

Hezkuntza-behar bereziekin zerikusia duten laguntza eskeek, joan den urtean ohartarazten zen bezala, derrigorrezkoen osteko ikasketetara pasatzen jarraitzen dute. Halako neska-mutilak iristen direnean, ordura arte zuten laguntza ez dute beti izaten.

Kualifikazio-prestakuntza profesionalera iristeko zailtasunak zeuden eta erakunde honek 2015. urteaz gero aipatu ditu. LOMCEk horiei erantzuteko xedatutakoa kontuan hartuta, 2018. urtean enplegurako prestakuntza-azpisisistematik egituratu da eta funts garrantzitsuak gaitu du, beharrezko malgutasunarekin, profesionaltasun-ziurtagariei lotutako prestakuntza jakinak garatzeko.

Ikasteko beka eta bestelako laguntzei dagokienez, laguntza horien familia eskatzaileen errenta erabakitzeke erari lotuta, 2017. urtean ofizios irekitako jarduera amaitu da. Nolanahi ere, familia horiek, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitortpena ez aurkezteaz gain, ez dute inolako prestazio edo gizarte laguntzarik jasotzen (diru-sarrerak bermatzeko errenta...). Oraingoan Hezkuntza Sailak baieztatutakoaren

arabera, bazterte-arriskuaren egoeran dauden familiei buruz gizarte zerbitzuek egin ditzaketen txostenak kontuan hartzen hasi dira.

Azkeneko gai saihestezina hezkuntzaren eremua jorratzean: eskola-bizikidetzaz ari gara. Hainbat agiritan definitutakoari jarraitu, ikastetxeak egituratu behar dira, batetik toki seguruak izateko eta, bestetik, aniztasuna errespetatzeko, beraz, ez da tokirik egongo jokabide bortitzetarako, jarra iraingarrietarako edo, hitz batez, hezkuntza-erkidegoa osatzen duten kide guztien eskubideen aurka doazen horietarako. Oraindik zenbait kexa iristen da arrazoi horrenatik, baina administrazio-jarduna (kasu honetan, ikastetxeak edo hezkuntza-ikuskapena) okerra izan denik ez da antzeman. Hala ere, hartutako neurriekin gertakarien kexagileak ez dira erabat ase gelditu. Ildo horri eutsiz, Bizikasi ekimenak asetzetik ezaren arrazoiak kontuan hartu beharko lituzke, antzemandako atsekabea egiaztatu eta onartzea, barne, jadanik jarduera horretan ari ez bada, programan dauden neurriak inplementatzeko irmoki urratsak ematen baitiharditu. Duela gutxi “prozesuaren” lehenengo emaitzak (irakatsitako prestakuntza, eratu diren BAT taldeak, etab.) argitaratu dira eta, itxuraz, ekimenak bilakaera egokia duela baieztatu daiteke. Gainera, agian, egotz dakioke tratatu txarrei buruzko kasuak hobeto hautematea, protokolo-kopuru gehiago ireki delako.

Udaletako **gizarte zerbitzuek** eskainitako arretarekin zerkusua duten erreklamazioak, hau da, lehenengo mailako arreta eta babesgabatasun arin eta neurritzkoekin zerkusua dutenak aztertzen baditugu, arrazoi nagusiak informazio-eta orientazio-eskeen aurrean erantzunik ezaren ingurukoak dira. Horrez gain, informazio-hutsuneak dituzten administrazio-espedituei buruzko txostenak entregatzen dira (egiaz, hirugarren pertsonen informazioa) edo hezkuntzan eta gizartearen esku hartzeko programan baliozko emaitzarik eza ageri da. Azkeneko eremu horretan ia denak ez daude ados esku-hartzearen parte hartzen duten adituek egindako txostenetan euren buruz jasotako informazioarekin (portaera). Gai bera planteatu da beste kexa batean Gipuzkoan familian esku hartzeko programa bati buruz. Dena den, aztertutako kasuetan ez da jarduera okerrik antzeman.

Une honetan, berriz nabarmendu behar dugu babesgabatasun egoeren hasierako faseetan esku hartu beharra dagoela, eta gizarte-heziketarako esku-hartzeak eginkizun garrantzitsua duela, batez ere gizarte-desabantailak daudenean eta gurasoek zailtasunak dituztenean. Komunitate lana, bai eta gizarte kohesioa sustatzeko eta desparekotasunei aurre egiteko lana ere, hainbat sistema eta gizarte eragileren eginkizuna da, ez bakarrik gizarte-zerbitzuena. Hala ere, horien eginkizuna besteena bezain garrantzitsua da. Baliteke gizarte desparekotasunak dakartzan erroinei aurre egiteko erantzun integralagoak eta hobeak mahaigaineratu behar izatea. Gauzak horrela, familien segurtasun, hezkuntza, justizia mailan edo seme-alabak hezteko familiei eman behar zaien laguntzaren mailan egin beharrekoarekin batera, gizarte-heziketarako esku-hartzea, kalean eta zailtasun handienak dituzten familietan, inbertsioa da eta horren onuradun nagusiak haurrak izango dira, ez baitute “aurrera” egingo babesa galtzeko bidean eta dagozkien eskubideak

–inork kalte egin ez diezaiena eta guztiz garatzekoa– urratzeko bidean. Inbertsioaren beste onuradun bat, zalantzarik gabe, gizartearen izango da, segurtasunaren aldetik, bai, baina batez ere gizarte-justizia eta duintasunaren aldetik.

Foru aginpideko bigarren mailako arreta-zerbitzuei dagokienez, kexa-arrazoirik ohikoena beren seme-alaben babesgabatasunaren aitortzearekin, guraso ahala etetearekin eta foru erakundeak tutoretza onartzearekin desadostasuna da. Kasu horietan guztietan kexagileak neurriaren aurka egiteko lege-egoitzara joanik ziren edo asmo hori zuten, beraz, eske nagusiari zegoenez, Arartekoak ezin zuen esku hartu. Hala eta guztiz ere, halako kasuren batean, baloratzeko orduan edo kontra egiteko eskubidea erabiltzeko beharrezkoa den administrazio-informazioa eskuratzean atzerapenen inguruan jardun ahal izan da.

Familia-harreraren neurriari buruz, dekretu arautzailea urte honen amaieran onartu da eta pertsona/familia hartzaile modura gaituak ez izatearen balorazioekin ados ez zeudelako azaldu dute kexa. Gauza bera gertatu da foru zerbitzuek, tutorek, alegia, hartutako adingabearekiko adostu dituzten erabakiekin. Jarduerarik ez da zuzenbidearen aurkakotzat jo eta epe labur-ertainari begira neurri honetaz legediak aurrez ikusten duen garapena (arretan eta modalitateetan) lor dezan espero liteke. Xede horrez, harrera espezializatua inplementatzean aurkitu diren zailtasunak eta nahasmendua gainditu behar dira.

Adopzioaren inguruan gai gutxi sortu da, baina oraindik nazioarteko adopzioarako ziurtatutako erakunde batzuen jarduketara dute xede. Dena den, esku-hartzean zehar konpondu dira.

Foru aldundiek helarazitako informazioarekin bat, egoitza-harrerarako baliabideen sareak oraindik okupazio-maila altua du. Gainera, nahiz eta zentro berriak ireki eta programak nahiz zerbitzuak aniztu diren, egoera okerrera egiten ari da, joan den urtean baino adingabe atzerritar gehiago iristen ari baita Euskadira bakarrik. Egindako ahalegina sakon baloratzen bada, foru erakundeak behar aldakorrei egokitzen ari dira urtero baieztatzen dugun moduan eta, horren ondorioz, Arartekoak jardun on horrekin jarraitzeko gonbita luzatzen die.

Genero-indarkeria jasaten duten neska-mutilei dagokienez, urratsak irmo egin behar dira, bai genero-indarkeriaren aurkako estatuaren ituna, bai etxearen eta sexu-indarkeriaren eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeekiko arreta hobetzeko erakundearen arteko II. akordioaren esparruan 2016. urtean teknikoki adostu zen lan-plana garatzeko.

2018. urtean Arartekoak haurren sexu-abusuari buruzko udako ikastaroa antolatzen du eta erakundeak gaiaren inguruan askotan adierazitako kezka ikusgai utzi du. Aldi berean, sakonago ezagutu da eta indarreko erroen hausnarketa partekatua burutu ere bai. Aurrekoaren harira, prebentzioaren, antzematearen eta esku-hartzearen arloak lan-du dira, biktimak berreskuratzeko tratamenduetan batera. Ibilbidea zehaztu ostean, hurrengo hilabeteetan ibiltzeari ekin behar zaio.

Familia erreferentziarik ez duten adingabe atzerritarren arreta bereziari dagokionez, hasteko, gogorarazi behar da 2016. urtearen amaieratik eta, biziago, 2017ko udatik, Euskadira iritsi den adingabeen kopurua nabarmenki eta bizkor gehitu dela. Adingabe hauen (batez ere, mutilak) kopuru garrantzitsua gelditu eta hemen beren migrazio-proiektua garatzeko asmoz iristen da.

Alderdi kuantitatibora jotzen badugu, Arartekoak duela hainbat urtetatik Euskadira bakarrik iristen diren atzerritar adingabeen errealitateari hurbileko jarraipena egiten dio berea duen ikuspegitik: administrazio eskudunek babesgabetasun egoeran dauden nerabeei ematen dieten arretan mutilen eskubideak errespetatzen direla bermatzea, alegia. Euskal gizarte guztiarentzat eta, batik bat, hartzez eta babestez arduratzen diren administrazioentzat fenomenoaren erronkaz jakitun izanik, berea duen funtzioetik neska-mutilek planteatutako beharrekiko erantzunik onena ematen lagundu nahi du. Xede horrez, 2018. urtean egoitza-baliabideak (lehen harrerakoak eta emantzipatzeko prestatzen dutenak) bisitatu ditu, gizarte elkarte eta erakundeekin bilerak egin dira, kasu bereziak aztertu ditu, gestioetan aritu da, eta abar. Horiei guztiei esker, hainbat ebazpen amaitu du eta aurre egiteko erronkak adierazi ditu, hala nola:

- Ezinbestez lehen harrerarako eta, bide batez, emantzipatzen prestatzeko eta emantzipatzeko programak garatzeari begira plaza gehiago behar dira.
- Zentroetako talde profesionala, hezkuntzaren eremuan esku-hartzen eta, horren ondorioz, neska-mutilak bizi-garapenean laguntzen diharduten adituen osasuna eta ongizatea, zaindu behar dira.
- Banakako hezkuntza-planak egin behar dira, neska-mutil bakoitzaren behar eta gorabehera bereziki arreta eskaintzeko.
- Iritsi berriak diren pertsonen informazioa kontu handiz eman behar zaie, hala, migrazio-proiektuarekiko erabakiak hartzeko egiazko informazioa eta harrera- eta babes-mezua batu behar dira.

Baina zailtasunak ez dira gizarte-zerbitzuen sisteman gelditzen, beste zerbitzu eta administrazio batzuetara ere zabaltzen dira:

- Administrazioaren ikuspegitik legeztatze-prozesuak atzeratu egiten dira eta hurrengoei egotz dakizkien arrazoiak elkartzen dira: kontsulatu eta enbaxadei, gobernuko ordezkariordetzari eta foru sailetakoa administrazio-zerbitzuak “gainezka” egoteari.
- Nerabeen beharrekin bat datorren hezkuntza-, prestakuntza- edo trebakuntza-proposamenik ez dago. Nolanahi ere, gai hau jada txosten honetan bertan, hezkuntza-eskubideari buruzko atalean, landu da.
- Emantzipazio-prozesuekiko eta adin nagusia lortzean haur babesgabetuentzako egoitza-zerbitzuetatik irten behar dutenean euskarriarekiko erantzun publikoa

ahula da eta ez da nahikoa, gainera. Egoera hori urtez urte behin eta berriz salatzen du Arartekoak, beraz, ez da deskribapen gehiago egingo, are gehiago, ofizioz ikerketa irekia dagoenean. Izan ere, ondorioak hurrengo urtean jakinaraziko dira.

Horrez gain, aurrez egindako adierazpenetan Arartekoak aitortu du dagoeneko, besteak beste, fenomeno orokor konplexu baten aurrean gaudela -prozesu migratzaileena, eta haren sartzan da laguntzailerik gabeko adingabe atzerritarren mugimendua-; fenomeno horren barnean eragile asko daude, tokiko ikuspegitik aldentzen dena eta ikuspegi zabalagoa behar duena. Arrazoi hori dela-eta, behin baino gehiagotan iradoki du gogoeta partekatuak eta erantzun solidarioak egitea Euskadin; izan ere, esparru horretara bidera ditzake bere gomendioak eta, aldi berean, estatuko eta Europako kideei proposamenak igortzen zizkieten elkartasun eta zuzentasunaren klabe berean.

Familia babeslea izateko eskubideari dagokionez, Arartekoak gogorarazi behar du familien beharrei erantzuna ematea gizarte osoaren erantzukizuna dela, batez ere, agintari publikoena. Frogatuta dago familiei laguntzeko eta beren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko politikak sustatzen eta finkatzen dituzten gizarteek ekarpen baliotsu eta eraginkorra egiten diotela giza garapenari eta kohesio ekonomiko eta sozialari. Ildo horretan, ezinbestekoa da **familiei zuzendutako laguntza politika publiko guztietan aintzat hartzea**, laguntza hori egoera eta osatura desberdinen ondoriozko premia askotarikoetara egokituz eta gizarte eta ekonomia arloetako politika publiko desberdinek euskal familietan duten eragina ebaluatzeko aukera emango duen zeharkako ikuspegia sustatuz.

2018. urtean zehar, aurrerapauso aipagarriak eman dira norabide horretan, adibidez, familietan egiten den inbertsioa handitzearen aldeko apustu irmoa bultzatzen duen Familien IV. Plana egitea, edo familientzako diru-laguntzen erreforma, laguntza horiek bigarren seme edo alabaren bizitzako bigarren urtean ere emateko, eta guraso biologikoen eta adoptatzaileen arteko desberdintasunak sorrarazten zituzten disfuntzio batzuk zuzentzeko. Hala ere, familientzat garrantzitsuak diren hobekuntza batzuk egin behar dira oraindik ere, eta horiek politika publikoaren mailan jorratu beharko liriteke nahitaez.

Batez ere, erakunde honen iritziz, premiazkoa da neurriak hartzea, jorratu behar diren honako arlo hauetan:

- **Guraso bakarreko familiei estatus berezia ematea**, beren premia bereziei behar bezala erantzuteko.
- **Seme-alabak izateagatik eta lana eta familia uzartzeko ematen diren diru-laguntzak jasotzeko izapide administratiboa argitu, azkartu eta erraztea**, herritarrentzat eskuragarriagoak izan daitezen eta laguntza horiek izapidetzea ahalik eta automatizatue-na izan dadin.
- **Familia ugarien tituluak kudeatzeko irizpideak hobetzea, batez ere, gurasoak bananduta daudenean**

edo bikote berria osatu dutenean edo, hala bada-gokio, arlo horretan erregulazio autonomiko propioa burutzea.

- **Seme-alabak dituzten familietan egiten den inbertsio ekonomikoa** igotzen jarraitzea, batez ere, zerga arloko neurrien bidez.
- **Familiei laguntzeko zerbitzu eta baliabide publikoak** areagotzea eta hobetzea, batez ere, seme-alabak, adinekoak, gaixoak, desgaituak edo mendekoak dituzten familien kasuan.
- **Adinekoek osatutako familien babes eraginkorra** areagotzea eta hobetzea, **gero eta gehiago direla kontuan hartuta, zahartzeak dakartzan beharrak asebetetzen lagunduz.**
- **Familia eta lana uztartzea eta emakumeen eta gizonen erantzukidetasuna lortzea ahalbidetzen duten** neurriak bultzatzen jarraitzea, familia-ardurak betez, ez bakarrik diru-laguntzen bidez, baizik eta **baliok aldatzea eta ekonomia- eta enplegu-egiturak pertsonen beharretara egokitzea** bultzatuz.

Familiei laguntzea oso modu eraginkorra da pertsona bakoitzari bere bizi-garapenean laguntzeko, edozein adin eta egoeratan. Azken batean, funtsezko baldintza da gizarte-justizia lortzeko, eta botere publikoek hori bilatu behar dute, eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliz. Adingabearen interes gorena eta garatzeko bi gurasoak izatearen eskubidea, nahiz eta bikotea hautsia egin, da familiaren topaketa-guneak aurkezteko erabakiaren oinarria. Horiek familiaren eremuari lotuak daude eta ez justiziaren arloari. Aurten zerbitzu horri buruzko kexarik ez da jaso. Bestalde, Tolosakoaz gain, Durangon eta Gernikan iragarri diren “antenak” irekitzearen bitartez zabaldu da. Lehenengoa jada 2019ko lehenengo asteetan inauguratu da. Erakunde honek aurreko urteetan izandako erreklamazioak erantzun dira.

Familiaren topaketa-guneek garatutako jarduerarekin eta, nagusiki, beren helburuarekin estuki harremanetan, Arartekoak Eusko Jaurilaritzan hausnarketa sustatzeko asmoa du. Helburua Euskadin **guraso-koordinazioa** ezartzea da. Hori jadanik beste autonomia erkidego batzuetan aurrez ikusia eta funtzionamenduan dago. Irudi aditua da eta seme-alabak ardurapean dituzten bikoteak eteten diren prozeduretan esku hartzen du, betiere lege-agintaritzaren zuzendaritzapean eta horren zerbitzura, gurasoen arteko harreman gatazkatsuen normalizatzeko eta baketsu bilakatzeko. Gurasoen planak arautzen dituen ohiko alderdietan liskarrak ebatzi nahi ditu, haurren eskubide erkideak babesteko.

Haurdu dauden emakume atzerritarrek osasun-arreta lortzeko zailtasunak izan dituzte eta seme-alabak arriskuak egon dira. Halako kexak baztertzeko badira, guztiek konponbidea izan dutelako, Arartekoaren kexa nagusia haurren **osasunerako eskubidean horien eta gazteen osasun mentalarekiko** arretak jarraitzen izaten du. Haur eta Nerabeen Bulegoaren jardura oso bizia izan da 2018. urtean gai honetan. Batetik, gaixotasun mentala duten

personak edota senitartekoen gizarte-erakundeekin lankidetzaren harremana egituratu da eta, bestetik, **ENOC Haurrak Defendatzeko Europar Sareak** lanerako gai moduan hartu du eta aipatu bulegoa kide da. Azkeneko lanaren ondorioz egin da azterketa gaixotasun mentala duten haurren osasun- eta gizarte-arretari buruz, baita gizarte-zerbitzuek eskainitakoari buruzkoa ere sarea osatzen duten herrialdeetan. Abiapuntutzat onartutako eskubideak hartu dira. Nolanahi ere, antzeko testuinguruetan aplikatzeko zailtasun partekatuak eta praktikoak daude. Gainera, diagnostikoaren ondoren, erakunde-adierazpenaren arabera, herrialdeetako gobernuei, Europar Batzordeari eta Europako Kontseiluari gomendioak ematen dizkie. Aurrekoari eutsiz, gomendioek hurrengoekin zerikusia dute: ezinbesteko osasun-estrategiak, araudi-garapenak eta garapen teknikoak, haurren eskubideetan (gizakienetan) oinarrituak, estigmaren aurka borrokatzeko formulak, eskola barneratzaile eta osasuntsuak sustatzea eta zerbitzu espezializatuak, diziplina anitzekoak eta erkidegoaren ikuspuntuak garatzea.

Atalari amaiera emateko, azpimarratu nahi da arlo horretan jardun behar duten sistema publikoek eta maila desberdinek, osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeei arreta osatua eta diziplina anitzekoa emateko, nahitaez, behar bezala koordinaturik egon eta laguntzaren jarraitutasuna bermatu behar dutela. Zentzu horretan, beharrezkoa da erakunde arteko koordinazio eremu egonkorrak sortzea eta erakunde arteko koordinazio hori behar bezala arautu eta protokolizatzea eta, dagoeneko tresna juridiko horiek dituzten egoeretan, behar bezala betetzen direla bermatzea.

Justizia-administrazioaren eremuan, Arartekoaren erakunde arautzeko legea 13.1. artikuluan oso argia da. *Epaia irmoa denean edo lege-ebazpenaren zain dagoenean, erakundeak ez du kexa banaka aztertuko*. Hala ere, haurren eta nerabeen eskubideak babesteko funtzioak, batetik, adingabeen fiskaltzak eta, bestetik, eskubideak defendatzeko erakundeek, kasu honetan Arartekoak, gauzatu behar dituzte, beraz, praktikan komunikazio-kanal irekia da bi erakunde artean informazioa eta gestioak trukatzeko. Ez dago esan beharrik balizko gestioak iritzirik eman gabeko printzipiopean garatzen direla, betiere aztergaiak *sub iudice* badaude edo jurisdikzioaren bidetik ebatzi badira.

Hala ere, Arartekoak interesa ager dezake Eusko Jaurilaritzako Lan eta Justizia Sailarekin zerikusia duten jarduketan gainean, hain zuzen ere, administrazio horrek baitu eskumena ezarritako neurri judizialak betearazteko baliabideak kudeatzeko eta legearekin arazoak dituzten adingabeei arreta emateko. Baliabide horiei dagokienez, 2018. urtean ez da kexarik jaso. Hala eta guztiz ere, ikuskapen-bisitaren bat egin da eta ondorioen berri hurrengo urtean emango da.

Halaber, sailaren aginpidekoak dira judizialki bideratu ostean, familiaren topaketa-guneak edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren jardura. Horiek txosten honen beste atal batzuetan lantzen dira, herritarren interes-eremuekin erlazioan direlako, zehazki, familia eta familia-erreferentziarik ez duten adingabe atzerritarrak, eraginpeko administrazioa alde batera utzita.

Poliziaren esparruari buruz, berriz ere egiaztatu da Ertzaintzaren atxiloteta-zentroetan adingabeak babesteko areto berezirik ez dagoela, bai, ordea, Donostiako Udaltzaingoaren lokaletan. Adingabeen berriazko atxiloteta-liburuak, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren arautegiak eskatutakoak, kontuan hartuta, jardunak desberdinak dira.

Jokorako, atsedenerako eta jolas- nahiz olgeta-jardueretarako eskubideari erreparatzen bazaio, Arartekoa kezkatu ageri da eskubidea errealitate bihurtzeko interesik ezaren inguruan, jada aditu batzuek egiaztatutakoaren arabera. Izan ere, haurrei buruzko politika publikoetan jolas-politikak ahaztu dira. “Ahazte” horrek Haurren Eskubideetarako Batzordeari berari ere eragin diezaike. Estatuetakoa txosten gehienek (2013. urtean bidalitako txostenen % 70) horietan eskubidea aipatzen dute, baina bakarrik erantzuteko azken oharren % 27tan Batzordeak erantzen du.

Pedagogoen eta pediatrek ohartarazitakoari jarraituz, gaur egungo haurrek joko-urritasuna dute, batez ere, bat-bateko jokoetan eta aire zabalean garatutakoetan. Jokoa funtsezkoa da osasuntsu hazteko eta puntu honetan aipagarriena ez da jostailuez inguratua egotea; guneak, denbora eta jolasteko haurrak izatea baizik.

2018. urteko erreklamazioetan planteatzen diren gaiei eutsiz, kopuru aipagarriak alderdi erkidea du eta haurrek modalitate ezagunenetan egiten duten kirolarekin zerikusia du. Beren jarduna lehiaketa-etekinera bideratzen da eta hezkuntza- nahiz partaidetza-balioak ahazten dira, funtsa bigarrena izan arren. Arartekoaren iritziz, federazioak eta kirol klubak pribatuak direla baztertuta, administrazioak ezin dezake beste alde batera begira erakundeak titulartasun publikoko instalazioak erabili nahi dituenean edo eskola-kirola programan parte hartzeko baimena behar duenean. Horiek beharrezkoak dituzten neurrian, jardunean une oro printzipio arautzaileak erabiliko dira. Ildo horri eutsiz, aginte publikoak era proaktiboan arituko dira balizko urraketak prebenitu eta zuzentzeko. Hala azaldu die Arartekoak udal eta foru agintariei, lurralde horietan kexak jaso badira. Esku-hartzea eskatu die, bakoitza bere aginpideen eremuan, haurrek eta nerabeek egindako kirola une oro eta tes-tuinguru guztietan hezkuntza-parametroean garatzeko.

Amaitzeko, beste urtebetez berri eman behar da nerabeak atzerrian jaiotakoak izanez gero, Espainiako Futbol Federazioak federatuen lizentzia emateko dokumentu-errekerimendu bereziei buruzko kexak jasotzen jarraitu direla. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzan dagokion sailak erantzuten ditu eta bereziki kontuan hartuta, azkar ebatzi ere bai.

